

# *Lezoko herri mugimendua XX. mendean*

*Ibon Ostolaza Oyarzabal*



*Lezoko historia urratsez urrats 4*





**ARANZADI**

zientzi elkartea . society of sciences  
sociedad de ciencias . société de sciences

# ***Lezoko historia urratsez urrats 4***

*Zuzendaria: Juan Carlos Mora Afán*



# ***Lezoko herri mugimendua XX. mendean***

***Ibon Ostolaza Oyarzabal***



Lezoko Unibertsitateko Udala

***Lezo - Udala***

***2007***

### **Ostolaza Oyarzabal, Ibon**

Lezoko herri mugimendua XX. mendean / Ibon Ostolaza Oyarzabal. - Lezo Udala, 2007.

163 or.; ir. kol. eta tx. b. ; 24 cm. - (Lezoko historia urratsez urrats; 4/Juan Carlos Mora Afán)

L.G. SS-708-07

ISBN 978-84-93580100

1. Lezo-Gizarte mugimenduak

316.4 (460.154 Lezo)

**Maketazioa:** eragin.com

**Azaleko argazkiak:** Lezoko Fototeka eta Lezo Aldizkaria

**Inprimatzea:** Gráficas Lizarra

**ISBN:** 978-84-93580100

**Lege gordailua:** SS-708-07

Zuzendu gutunak helbide honetara:

**ARANZADI zientzi elkarte**

Zorroagagaina 11

20014 Donostia

Tel: 943466142 Fax: 943455811

idazkaritza@aranzadi-zientziak.org

www.aranzadi-zientziak.org

## HITZAURREA:

Lezoko 800. urteurrenaren ildotik, 2003. urtean gure auzokoen kemena ezagutzeko parada ederra izen genuen. Orduan antolatu ospakizunetan, herriko jendearen partehartzea guztiz azpimarragarria izan zen. Bertan, Lezo bizia eta dinamikoa ikusi ahal izan genuen.

Horrelako ekimenak guztiz beharrezkoak direla uste dugu, herri baten nortasuna eta herritarren arteko harremanak nabarmentzen eta estutzen laguntzen duten heinean. Batez ere, gizakien arteko loturak gero eta lausotuagoak diren garai hauetan.

Hau dela eta, 2003. urteko ekitaldiak atzera begiratzeko talaia ezin hobea iruditzen zaigu; gure iraganaren aldarre bat ezagutzeko abiapuntu ederra. Liburu xume honen bitartez, Lezoko talde eragileen gainean begirada orokor bat luzatzea nahiko genuke. Lezoko bizitza suspertzen saiatu ziren taldeak ezagutzea, alegia.

Franco diktadorearen azken garaitik aurrera herriko mugimendu hauek loratu zirela ezaguna da. Bai Lezon bai eta Hego Euskal Herri osoan ere. Orduko mugimendu haiek, ahalik eta gehien behintzat, gogora ekarri izan nahi dugu. Ez da iragan-miñak jota egingdako ariketa bat, baizik eta herri honen nortasuna jorratu zen garai bat ezagutzeko griña.

Izan ere, azken urteotan izugarritzko aldaketak ematen pairatzen ari dira Lezon. Alde batetik, herriko biztanleriari dagokionez. Gero eta gehiago dira Lezora bizitzera etorritakoak. Honek, noski, herria girotzen eta berritzen lagundu beharko luke. Beste aldetik, gure herria Gipuzkoako hainbat azpiegiturak kokatzeko "ezinhobeto" kokatuta dagoela ematen du. Honek, herriko izaera baldintzatuko duela begi bistakoa da.

Hortaz, aldaketa sasoi honek, egungo Lezoko nortasuna indartu zen garaietan murgiltzeko une egokia dirudi.

Horretarako hiru aro historiko marraztu dugu, sei ataletan banatuta.

Lehendabizikoa hemeretzigarren mendean abiatzen da eta, noski, ez dugu topatuko hogeigarren mendeko bukaeran eman ziren herri-mugimendu bezalakoak. Bai ordea, lezoarren beraien burua molde berrietan antolatzeko beharra eta nahia. Izan ere, hemeretzigarren mendean gizarte tradizionalaren haustura hasi zen. Prozesu luze horrek 1936ko estatu kolpearekin goia jo zuela esan dezakegu. Gizarte tradizionalaren harreman-guneekin batera, elkargune berriak ikusiko ditugu, politika eta kulturarekin loturik gehien bat.

Gerraostean, berriz, iluntasuna izango da nagusi, jendea lozorrotik atera eta biziberritu arte. Lezon, Allerru elkartearen sorrera mugarri bat izan zela esan genezake. Hemendik aurrera, herri-mugimenduaren garaia irekitzen zaigularik.

Beraz, hirugarren aro hau 1975. urtean zabaltzen zaigu. Lezoarren asko eta askoren memorian oraindik fresko-fresko gordetzen diren gertakizun ugari. Kanpotik iritsi eta bertokoei honen berri eman arrisku eta abantailak ditu: zalantzarik gabe, lezoar batek baino gehiagok jaso gabe gelditu diren gertaerak izango ditu bere buruan eta, batez ere, auzoko gehienek iritzi sendo bat izango dute orduko pasadizoen gainean. Baina, bestalde, urruntasunak garai bateko grinak biguntzen lagunduko digu.

Honengatik guztiagatik, hurrengo orriek Lezoko jendea bere gertuko iraganarekin hurbiltzen lagunduko dutela espero dugu. Era berean, Lezora iritsi berriak direnentzako bere bizilekua bere herria bilakatzen lagungarri suertatzea espero dugu.

Amaitzeko, ezin utzi aipatu gabe liburu hau egiten lagundu gaituzten guztiak. Mila esker gurekin izan duzuen pazientziagatik eta eskeini diguzuen denbora eta begiruneagatik. Denen artean, ezinbestean, Agustina Pontesta, Lander Zurutuza eta Imanol Esnaola nabarmendu nahi ditugu.

## **AURKIBIDEA**

### **SARRERA:**

**MAMU BAT DABIL LEZON BARRENA: VICTOR HUGO DU IZENA.** 11

### **I. XIX. MENDEA: ALDAKETA ATE JOKA** 13

1.1 LEZO BESTELA 19  
1.2 GERNIKAKO ARBOLAREN GARAIA: FORALISMOAREN BIDE GURUTZEA 26  
1.3 TRANTSIZIO IDEOLOGIKOA. KARLISMOTIK ABERTZALETASUNERA 28

### **II. GERRA AURREA** 35

2.1 HERRIAREN AISIALDIA 36  
2.2 ALDERDI POLITIKOAK 49  
2.3 KATOLIKOAK ELKARREKIN EDO ELKARREN AURKA 60  
2.4 ABERTZALE ETA EZKERTZALEEN ARTEKO LISKARRAK 64  
2.5 EUSKALZALETASUNA. IKASTOLA 67  
2.6 ERREPUBLIKA 72

### **III GERRA BERRIZ** 75

3.1 ABASTOS 83  
3.2 AUTARKIAREN AMAIERA. FRANKISMOAREN ONARPENA NAZIOARTEAN 85

### **IV GIZARTE ALDAKETA** 87

4.1 GERRA OSTEKO KULTUR JARDUERA 88  
4.2 HIRUROGEIKO HAMARKADA. LORALDIA 92  
4.3 HEZKUNTZA, HERRIA BIZIBERRITZEKO TRESNA 96  
4.4 ALLERRU 102  
4.5 EKIMEN POLITIKOA MARTXAN 111  
4.6 BASERRITARREN KOOPERATIBA: ANTXILLASTEGI 113  
4.7 1970ETIK AURRERA: ALDAKETAK ARRAPALADAN 114

### **V FRANKISMO OSTEA** 119

5.1 TRANSIZIO POLITIKOA. GIRO NAHASIA 120  
5.2 TRANSIZIO OSTEA: KRISI SOZIO-EKONOMIKOA ETA HERRI AUTOERAKUNTZA 124  
    5.2.1. DROGA  
    5.2.2. LEZO GAZTE EZ ETSIA  
    5.2.3. ESPARRU KOMUNIKATIBOA  
    5.2.4. LEZOKO ELKARTE KOORDINAKUNDEA: ESPERIENTZIAK BATERATU  
5.3 GATAZKA LEZON 148  
5.4 EUSKALGINTZA LEZON 152  
5.5 HEZKUNTZA FORMALA: BESTE GATAZKA GUNEA 153  
5.6 KULTUR ERAGILEAK 155

### **LABURBILDUZ** 159

**BIBLIOGRAFIA** 161



## MAMU BAT DABIL LEZON BARRENA: VICTOR HUGO DU IZENA

Egia da Lezori buruzko ikuskerak kontrajarriak direla, kanpokoa izan edo bertakoa izan. Nekatuta ageri dira lezoarrak ikuskera ezberdinen inguruko eztabaida horrekin, eta hau guztia Victor Hugoren errua da. Baina ukaezina da Lezoar askoren gogoan daudela hark esandakoak<sup>1</sup>. Hark esandakoak, Leandro Silvanek hari erantzuteko idatzitakoak, eta horren iguruan eztabaidatutakoak. Leandro Silvanen erantzuna, Lezoarrek duten kanpo ustea borrokatzeko nahiaren adibide dela esan dezakegu.

*“Lezo no es, de ningún modo, el pueblo pobre, lóbrego y entristecido que pintó Victor Hugo al hacer la descripción de su visita a este lugar. Cuando la escribió estuvo, sin duda, bajo la influencia de una falsa impresión, patente ya en otras obras de este literato. Quizás, por lo que a Lezo se refiere, su incomprensión proceda del contraste que entonces existía entre el desenfado y la libertad -de matices extranjeros y claramente heterodoxos-, existentes en la zona donde él habitaba y el recogimiento y la calma, no exentos de prudente alegría, que campeaban en el ambiente urbano Lezotarra, dándole unas características seguramente bien diferentes de las que le atribuyó el ilustre escritor galo. Irreligioso, al estilo de la época, no encontró gratos la pacífica gravedad y el silencio del pueblo, no le gustaron las calles, donde la luz del día era atenuada por la sombra que proyectaban edificios severos, sobre los que a menudo aparecía una cruz”<sup>2</sup>.*

Lezo alaiaren aldarria egiten du Leandro Silvanek, Victor Hugok egin zuen deskribapenari erantzuteko. Kanpo eraginak itxuraldatutako inguru baten aurrean, bere izaera mantentzen duen herria da Lezo, eta Hugok ez du hori atzematen asmatu.

Ukaezina da, baina, Victor Hugok ondo asko asmatu zuela Lezo bere inguruarekin alderatzean, Lezo Vs Pasaia, Lezo Vs Errenteria-Orereta, Lezo Vs ingurukoak, finean, mahai gaineratzean. Guztiok egiten dugu. Baina Victor Hugo ez zen lezoarra. Eta idazleek sarri egiten dutena egin zuen: begiratu, ikuskera findu, ingurua presazko ikuskera horretara moldatu, eta deskribapena egin.

<sup>1</sup> Ikus J.L. Aperribay: “Lezo, Victor Hugok idatzia”. *Lezo*, 1. zenbakia, 24-28 or.

<sup>2</sup> Leandro Silvan: *Lezo*. Donostia: Gipuzkoako Foru Aldundia, 1970.

## Lezoko herri mugimendua XX. mendean

Victor Hugok kanpokoaren begirada nagia zorroztu, eta idatzi batetan egitura-tu zuen, aurrerantzean tesiaren froga izango zena eskeiniatz.

Baina egia da ere, emakumeak Pasai Donibanera bueltan egin zion galdera, eta harekin izandako elkarrizketa, adierazgarriak direla oso<sup>3</sup>. Kanpoko (baina inguruko) hainbatek egingo lukeen (egiten duen) galdera egin baitzion. Kanpoko (baina inguruko) hainbatek Lezorekiko adierazten duten jarrera agertu baitzion.

Lezoarrak (axola dutenak, behintzat), nire ustez, uzkur ageri dira ikuskera honen aurrean: Ingurukoek horrelakotzat gauzkate, eta gainera nork eta Victor Hugok horrelakoa idatzi behar!.

Zaila zuten bestela ere, are zailago idazle frantziarrak idatzitakoak idatzita.

<sup>3</sup> J.L. Aperribay: *op. cit.*

## I. ATALA

# XIX. MENDEA: ALDAKETA ATE JOKA

## Lezoko herri mugimendua XX. mendean

Lezok harreman estua izana zuen itsasoarekin. Harreman hori eten egin zen baina, eta eten hau hondoratze batekin irudika daiteke. Ez zuen hondoratze bakar horrek aldaketa ekarri Lezora, baina hondoratze hura mugarriztat har dezakegu Lezoren historian. Lezok itsasoari bizkarra eman zion: Alde batetik, itsasontzi berrien egiturak behartuta, Lezoko itsasbazterra ez baitzen haientzako nahikoa sakona, eta beste alde batetik gizarte aldaketak (industrializazioak) bultzatuta. Eta handik gutxira beste jardun batzuei ekin zien.

*(...) 1817an beste txalupa bateko zazpi arrantzale ito ziren galerna baten ondorioz. 1821ean oraindik itsasgizon asko zeuden herrian: sei patroï eta hirurogeita hamar arrantzale, hain zuzen ere. Lehen Karlistada (1833-1839) bukatu ondoren, ordea, egoera erabat aldatu zen. 1845ean Erretereriako "Sociedad de Tejidos de Lino" lantegia sortu zen, bailarako industrializazio kapitalistari hasiera emanez. Harrezkero, neurri handi batean, fabrikek hartu zuten arrantzaren lekua. Lezoko historiaren orri bat itxi zen betirako<sup>4</sup>.*

Hondoratzea izan baitzen XIX. mendearen bukaeratik aurrera Lezon gertatu zena, gizartearen ikuskera tradizionalaren hondoratzea, hain zuzen ere. Itsasontzia hondoratu, industria finkatzen hasi, eta hark balore berriak ekarri.

Aldaketaren kolpeak kanpotik etorri zitzaizkion, gainera; Itsasoak Lezori bizkarra ematearekin batera (Lezok itsasoari baino gehiago), Erretererian inguruko gizartea errotik aldatuko zuen industrializazioa garatu zen.

### BIGARREN KARLISTADA: IRAGANAREN AZKEN LUBAKIA

Lehenengo eta bigarren (edo hirugarren, 1846-49an Katalunian piztu zena bigarren gerra karlistatzat baldin badugu) karlistaden artekoa, amaitu gabeko gaztazka baten etenditzat dute askok. Gerra amaitua zen Bergarako hitzarmenaren ondoren, baina bi aldeak sostengatzen zituzten indarrek sendo zirauten gizartean. Desamortizazioak eta beste eman ziren garai hartan<sup>5</sup>, liberalek gizarte eredu berria ezartzeari ekin zioten.

Honako pasadizo honek irudikatzen du gatazka hau Lezon: 1858an herrian trenbidea egiteko lanak iragarri zituzten. Trenbidea gizarte aldaketaren sinbolo

<sup>4</sup> Lander Zurutuza: "Lezoarrak eta itsasoa" *Orratz!*. 2003ko ekaina, zbk. berezia, 14-17 or.

<sup>5</sup> Hainbat izan ziren arren, 1855eko maiatzaren 1ean Pascual Madozen agindupean egindakoak elizari, kofradia militarrei, Karlos erregegaiari eta lur komunalei eragin zien bereziki.

izan da hainbat tokitan, onerako eta txarrerako, eta berdin zen Lezon ere. Hala, eta burdinbidearen legeak zioenaren aurka trenbidean egoteagatik, Catalina Irizar eta Maria Aldetak isun bana jaso zuten, Andres Arretxe alkateari ordaindu behar izan ziotelarik. Gauza bera gertatu zitzaion Jose Manuel de Trekuri ere<sup>6</sup>. Bizilagunen eta trenaren arteko liskarrak zaharraren eta berriaren arteko liskarra irudikatzen du.

Ezinezkoa zatekeen gatazkarik ez piztea. Nekazal munduak, erlijio eta tradizioari gogor atxikiturik, bere usadio, eskumen eta indarren ahultzea ikusten zuen, hiritar burgesaren mesedetan. Aipatu bezala, 1846an gerra piztu zen, Isabel II Carlos Luis de Borbon erregegaiarekin ezkon zedin egin ziren ahaleginek huts egin ostean. Gerra baino, matxinada izan zen, Gipuzkoan hainbat talde sortu zirelarik. Eta Isabelinoek irabazi bazuten ere, gatazkak bizirik zirauela argi geratu zen. Carlos Luis de Borbonek Frantziara egin zuen hanka, eta bere aldekoak amnistiatu egin zituzten, 1849an. Ez bide zuen matxinada honek gogo bizirik piztu Lezon; 1848ko ekainaren 30ean Lezoar matxinatuen zerrenda eskatu zuen gobernuak, baina ez zen izen bat ere eman<sup>7</sup>.

Testuinguru honetan, eta hirugarren karlistada ate joka zela, sortu zen kalapitarren bat Lezon bertan; 1870eko abuztuaren 20an, Antonio Etxegarai, Frantzisko Garin eta Migel Urdanibururi "Gora Karlos VIIa!" eta "Hil bedi Serrano!"<sup>8</sup> oihukatzeagatik isun bana ezarri zieten.<sup>9</sup> Artean Serrano gobernu burua zen, eta baita errege ordea ere.

Ez zen artean gerrarik, baina gerra aurreko urteetako tentsioa nabarmena zen. Karlisten aldarrikapenak agerikoak ziren, eta errepublikazaleek ere indar handia metatu zuten estatu mailan. Izan ere, 1868ko matxinadaren ostean (La gloriosa bezala ezagutua izan zena), eta Isabel II. a erreginak atzerriko bidea hartu eta gero, eztabaida sortu zen errepublikazale eta monarkiazaleen artean; azken hauen artean, gainera, erregegaia ez zen bakarra, lehenengo gerra karlistatik zetorren eztabaida berpiztu zelarik. Progresista eta unionistak monarkiaren aldeko ziren, eta demokraten artean talde bat bereizi eta errepublikar alderdia sortu zuen. 1869ko hauteskunde osteko konstituzioak monarkia konstituzionala aldarrikatzen zuen, eta errege egokia bilatu bitartean Serrano generala izan zen erregeorde, arestian aipatu bezala; bitartean, Prim generalak erregea bilatzeari ekin zion. Saboyako Amadeo aukeratu zuen azkenik. Kezka zen nagusi agintarien

<sup>6</sup> Carlos Rilova Jericó: *Askatasunaren Arbola. Lezo historia garaikidean (1793-1876)*. Lezo: Udala, 2005. 78-79 orriak.

<sup>7</sup> Ibidem. 77. orria.

<sup>8</sup> Francisco Serrano y Domínguez, Duque de la Torre. Militar liberala, 1868an Isabel II.a erregetatik kendu zuen iraultza eta gero gobernu buru izendatu zutena. Amadeo Saboyaren erregealdian gobernu buru izan zen bitan. Carlos VII. a, karlisten burua, garaitu zuen 1872an, Orokietan, Amorebietako hitzarmena sinatuaz.

<sup>9</sup> Imanol Esnaola: *Lezoko euskararen hizkuntza soziala*. Lezo: Udala, 1999. 35. orria.

## Lezoko herri mugimendua XX. mendean

artean, hainbestereinokoa, ezen 1869ko abuztuaren 21ean trenbidea zuten udalerriei (Lezo barne) hura zain zezaten eskatu baitzieten, horretarako talde armatuak osatuaz. Urrian ere horrelako eskaera gehiago egin zuen gobernu zentralak<sup>10</sup>.

Alderdi errepublikar federala, aurrerakoia zena, alderdi karlista eta alderdi moderatua (Canovas del Castilloren, gerora Alfonso XII. aren aldeko azaldu zena), hiru hauek ziren garaiko indar nagusiak.

Garaiko Lezon karlismoaren aldeko jarrera nagusi bazen ere, ez zen joera hori isladatzen udaletxean, izan ere, udal idazkaria ( botere handia zuena ), eta beste hainbat herri agintari gobernu zentralak izendatzen baitzituen.

Gerra ofizialki 1872ko apirilaren 21ean hasi bazen ere, aurretik izan zen kalapitarik beraz. Aipatuez gain, izan zen bestelakorik ere: Horren adibide da 1870eko irailaren 5ean Migel Antonio Salaberria Agirre lezoarrak alkate zen Andres Arretxeri barkamena eskatu izana, bi egun lehenago Carlos VII.aren alde matxinatzera joana baitzen<sup>11</sup>. Barkatua izan zen. Gerora, eta behin gerra piztuta, lezoar askok, Salaberria bera tarteko, matxinatuekin bat egin zuten.

Ezaguna zaigu ere Claudio Gezalari gertatutakoa: Iskanbila sortu zuela egun haietan, arma eskuan zuela, alkateari legea errespetatzea exijituaz. Claudio Gezala liberala zen, eta Carlos VII. aren aldekoekin izan zuen enkontru baten karira, kezkatuta ageri zen harrotuta ikusten baitzituen aintzin errejimenaren aldekoak herrian<sup>12</sup>.

Istilu honengatik espetxealdi motz bat betetzera izan zen zigortua, baina irten eta berehala, bake epaile izendatu zuten, 1870eko urriaren 30ean. Bere lan postu berritik gogor borrokatu zituen karlistak<sup>13</sup>.

Gerra apirilaren 21ean piztu zela aipatu dugu. Hurrengo egunean bertan, 1872ko apirilaren 22an, Gipuzkoako Gobernadoreak eskutitza bidali zion Lezoko alkateari, matxinadaren alde egin zutenen zerrenda eskatuz.

Horrez gain, 1873ko otsailaren 18an, gobernu liberalak bolondres taldeak sortzeko agindua eman zion udalari, eta agindu honi aurre eginez, Angel Garbizu udal diruzainak eta Antonio Berasategi herriko maisuak uko egin zioten liberalen alde armak hartzeari. Maisuari bere kargua kendu zioten, baina urtebete berandago itzuli behar izan zioten, Madrilgo gobernuak aginduta<sup>14</sup>.

<sup>10</sup> Carlos Rilova Jericó: *op. cit.* 80. orria.

<sup>11</sup> *Ibidem.* 82. orria.

<sup>12</sup> *Ibidem.* 83-84 orriak.

<sup>13</sup> *Ibidem.* 85 orria.

<sup>14</sup> *Ibidem.* 87 orria.

Hemeretzi pertsonak osatu zuten bolondres taldea, alkatearen agindupean, eta bere betebeharrak nagusia trenbidea eta telegrafo linea defendatzea izan zen.

1873ko urtarrilaren 13an, Joxe Mari Olaizola, Joxe Mari Lopetegui, Frantzisko Salaberria, Jose Iñazio Garmendia eta Joxe Mari Lizarazu lezoarrak preso hartu eta Donostiara eraman zituen Ignacio Jaca bolondres liberalak, matxinoen aldeko zirela leporatuta. Olaizola ez beste guztiak libre utzi zituzten, eta preso geratu zen bakarrari zera leporatu zioten: Bolondres liberalen buruzagi bat desarmatzen saiatzea, kalean ozenki "Gora Karlos VII.a" oihukatzea, eta Jaizkibelen armak gordetzea<sup>15</sup>.

Herrialde mailako egoera nahasia zen, inondik ere: Hiriburua liberalen esku eta nekazal guneak, berriz, karlisten aldeko. Karlisten aldeko bai, baina horrek ez du esan nahi lurralde horien kontrol osoa zutenik. Lezo bera liberalen esku zegoen, eta Darieta Berri baserritik Lezo eta Errenteria kontrolpean zituzten; 1874an baziren jada han, albisteek diotenez, eta 1875eko abuztuan, inguruan zebiltzan karlistak bonbardatu zituzten, hainbat bomba Lezon bertan erori zirelarik, besteak beste udal aretoan. Honen aurretik izan zen borrokaldi gehiago ere:

*"En comunicación que recibimos de Lezo, se nos consignan los servicios que viene prestando aquella universidad desde el comienzo de la guerra civil a favor de los intereses liberales.*

*Últimamente, nos dicen, han estado alojados aquí en el transcurso de 12 días, a pesar de lo reducido del vecindario, varios batallones que éste ha recibido con la mayor satisfacción. El día 12, al pasar por aquella villa el general en jefe Sr. Laserna con su división, se le preparó por el Ayuntamiento una habitación, así como también se dispuso otra para los heridos que pudieran llegar, a cuyo frente se puso el médico de la localidad, D. Ricardo Gandioso, en unión de varios individuos de la cruz roja. Por último, se nos dice también que el primer día de ataque de las posiciones carlistas, no fue el fuerte de Salvatore de Rentería, sino el de "Daneta" (sic), situado en jurisdicción de aquella villa, el que cañoneó las posiciones enemigas. Consignamos con gusto estos hechos, satisfaciendo los deseos del comunicante de Lezo"*<sup>16</sup>.

<sup>15</sup> Karlos Barrentsoro: Lezo Aldizkaria. 11. zkia. 1993ko iraila.

<sup>16</sup> "Diario de San Sebastián", 1874ko azaroaren 19an.

## Lezoko herri mugimendua XX. mendean

1874ko abenduaren 4an Frantzisko Artola atxilotu eta Donostiara eraman zuten, epaitzeko.

1875eko bigarren sei hilabetekoan gerra ia amaiturik zegoen Euskal Herrian: 1873-74ko esperientzia errepublikarrak porrot egin ostean, Alfonso XII.a, Canovas del Castelloren begikoa bera, errege berri izendatu zuten, eta koroatze honek karlistak baretu zituen hein batetan, nahi ez zuten erregea izanagatik ere, gogokoago baitzuten hura errepublika iraultzailea baino. Honela, karlista askok atzerrira jo zuten, eta beste hainbatek indultoa eskatu behar izan zuten. Honatx indultatutako lezoarren zerrenda:

Joxe Mari Aiestaran, Benito Garmendia, Frantzisko Salaberria, Joxe Salaberria, Martzial Legorburu, Iñazio Gaztelumendi, Manuel Iartza, Frantzisko Iartza, Migel Urdaniburu, Joxe Manuel Larrea, Juan Mari Lartzabal, Joxe Manuel Lopetegi, Iñazio Olasagasti, Bixente Ibargoien, Nikolas Aranburu, Joxe Irigoien, Domingo Zapirain, Joxe Garmendia, Bixente Lizarazu, Ramon Lizartza, Joxe Aranburu, Kristobal Larreta, Bixente Lopetegi Garmendia, Joxe Mari Aizpurua, Joxe Arana, Manuel Aiestaran, Joxe Antonio Legorburu, Martzial Gaztelu, Benito Legorburu, Ramon Irazu, Andres Iretxalalleta, Joan Kruz Olaizola, Joan Mari Urzelaieta, Isidro San Sebastian, Luis Olaizola Salaberria, Jesus Ibarguren, Joxe Ibarguren<sup>17</sup>.

Ez zen baina doakoa izan lezoarren partehartzea gerran. Hauek izan ziren hildako lezoarretako batzuk: Jose Maria Salaberria, Peliar baserrikoa, Rafael Lopetegi, Buruteneakoa, Jose Maria Olarra Arrilhandikoa, Francisco Aranburu, Patxillerborda baserrikoa<sup>18</sup>.

Gerra osteetan gertatu ohi denez, galtzaileek jazarpena eta beren ondasunen bahiketa pairatu behar izan zituzten. Dakigunez, jendaurreko enkantean honako baserri hauek eskeini ziren: Patxillaborda, Borda, Babilonia, Lopene eta Sagasti<sup>19</sup>.

Eta gerra amaituta, Gipuzkoa, Bizkaia eta Arabako Foru Aldundiak Aldundi probintzial bilakatu ziren, bai eta zituzten ogasun eskumenak galdu ere. Gainera, aurrerantzean herrialdeetako gazteek soldadutza egin beharko zuten, gainerako estatuko gazteek bezalaxe. Nafarroari zegokionez, 1841eko legeak indarrean jarraitu zuten.

<sup>17</sup> Karlos Etxezurieta: *Lezo herriaren ikuspegi sozio-politiko ekonomikoa*. Argitaratu gabea.

<sup>18</sup> Carlos Rilova Jericó. *op. cit.* 90. orria.

<sup>19</sup> Karlos Etxezurieta: *op. cit.*



## 1.1 LEZO BESTELA

**G**erra bukatuta beraz, zetorkion aldaketara moldatu beste aukerarik ez zuen izan Lezok. Eta ez zen makala izan etorri zitzaiona, izan ere aldaketek gizarte egituraren erro guztiak eraldatu zituzten: Populazioaren hazkundera, populazioaren ezaugarriak, biziera, ehun ekonomikoa, ideologia, politika eta abar.

**Esparru ekonomikoari** dagokionez, jada aipatua dugun bezala, **industrializazioaren** lehen zantzuak agertuak ziren Lezon. Prozesuak aurrera jarraitu zuen, baina orain azkarrago.

Inguruan, kaia eta Erreterria hazte prozesuan ziren jada, eta Lezok garai berri honetako lehen industriak ezagutu zituen: La Merceditas teilagintza fabrika, Altzatekogañan zegoena, eta sutauts fabrika, Aritzbakarran.

Jakina da industrializazioak errotiko gizarte aldaketa eragin zuela Euskal Herrian; Lezon XX. mendearen hasieratik nabarmendu zen hau.

Garai honetarako, zehazki 1901ean, hiru enpresa ziren Lezon<sup>20</sup>:

- "La ocasión" teilagintza eta adreilugintzan ziharduena. 34 langilek egiten zuten lan bertan.
- S.A. española de productos tártricos. 30 langile.
- "Ustekabekoa", oihal eta ehun fabrika. 6 langile.

**Populazioari dagokionez**, hazkundera XX. mendeko bigarren hamarkadatik aurrera nabaritu zen batez ere. Izan ere, mende hasieran enpresa gutxi zen oraindik, eta beraz hazkunderaren motore zen industrilazazioak ez zuen artean eragin handirik Lezon. Honela, Lezok mende berriaren lehen hamarkadan ez zuen hazkunde demografiko deigarrik ezagutu (%5,43). Inguruko herriak berriz, eta batez ere Pasaia eta Erreterria, gogor hazi ziren urte haietan, %25,04eko eta %35,43eko igoerarekin, hurrenez hurren. Lezo Versus ingurua, berriz ere<sup>21</sup>.

XX. mendeko bigarren hamarkadan eman zen populazioaren hazkunde nabarmena, %12,64ko igoerarekin. Jakina da lehenengo gerrate mundialak eragin positiboa izan zuela estatuko ekonomian, gerran zirenek neutral zirautenen ekoizpen industrialaren premia baitzuten. Testuinguru honetan, handia izan zen Pasaiako portuaren hazkundera, eta hazkunde honek Lezon ere izan zuen eragina. Eragina bai, baina ez oraindik inguruko herriek bizi zuten adinakoa. Pasaiak, esaterako, %33,63ko populazio hazkundera izan zuen tarte hartan.

<sup>20</sup> *Guía de Lezo. Naturaleza y huella humana*. Lezo: Udala, 1927.

<sup>21</sup> Gotzon Garmendia Amutxastegi, Alaitz San Roman Uranga: *Lezoko demografia eta industria XX. mendean*. Lezo: Udala, 2003.

## Lezoko herri mugimendua XX. mendean

Inguruko herriak industriak erakarri zituen langileen eraginez hazten ziren. Lezoren hazkunde apalak, berriz, berezko hazkundera zuen oinarri, hots, ez zen oraindik etorkin olderik ezagutu Lezon<sup>22</sup>.

Hasierako industria haien ondotik, eta 1920a baino lehen, beste hauek etorri ziren Lezora<sup>23</sup>:

- “Unión alcoholera española”, legamia ekoizten zuena.
- “Unión comercial Parker´s”, gailetak egiten zituena.
- “Guitett y cía.”, barniz eta lehorgarriak egiten zituena.
- “Fábrica española de papeles químicos, S.L.”
- “Castellanos y cía.”, kupelak egiten zituena.

Industrializazioaren aroaren hasiera zen, baina **nekazaritza** zen oraindik nagusi. Eta esparru horretan ere bazen aldaketarik. 1917an “**Denantzako**” nekazal kooperatiba sortu zen. Ohikoa zen jarduera komun baten inguruan biltzen zirenak kontsumo eta tresneria kooperatibak sortzea. Nekazal esparruko kooperatibak mende hasieran hasi ziren ugaltzen, industria arloko kooperatiben ondoren; haiekin batera, nekazal aurrezki kutxa katolikoak ere sortu ziren, elizak



“Fiesta exaltación del trabajo. 18 de julio de 1939. Guitett y Cia. Lezo”. *Lezoko Fototeka*.

<sup>22</sup> Ibidem: 29. orria.

<sup>23</sup> *Guía de Lezo... op. cit.*

bultzatuta. Estatu mailan, Nafarroan izan zuen mugimendu honek indar gehien; Gipuzkoan, 1920 aldera, 38 kooperatiba zeuden, tartean Lezoko Denantzako kooperatiba zela.

Beste horrenbeste gertatzen zen industrian ere: Produktuak merkeago lortzen zituzten kooperatibako bazkideek, eta bestelako onurak ere bazituzten, esate baterako, epeka ordaindu ahal izatea, trukea egitea, eta abar. Industriaren kooperatiben kasuan, gaurdaino mantendu dira gutxi batzuk, jarduera honek indar handia izan duen guneeetan (Pasaian, Ibaizabaleko ezker aldean, eta abar).

Lezoren kasuan, "Lezoko baserriak lehen eta orain" liburuan, egileek kooperatibak auzolanaren jarraipen gisa aurkezten dituzte. Eta helburu nagusia pentsu merkeagoa lortzea zela badiote ere, argi dago, orduko iragarkiei erreparatuta, bere lan esparrua zabaltzeko egin zutela, eguneroko beharrei erantzuteko ziurrenik. Garagarra elkarrekin egin, eta errota lanak ere partitu egiten zituztela aipatzen da baita ere<sup>24</sup>.

Esan bezala, eta dakusagun iragarkian, tresneriaren elkar trukea eta pentsua merkeago lortzeaz gain, aritzen ziren ere beste lanetan. Janariak ematen zituzten, eta taberna ere bazen. Gainera, herriko elkarte zenez gero, herrigintzan ere laguntzen zuen kooperatibak, 1927an egin zuen bezala, Lezoko gidaren argitalpenean lagunduta. Iragarkian argi ageri da bere jarduera esparrua nekazaritzatik haratago zihoala:

*"Ultramarinos y comestibles, conservas de todas clases, **ALMACEN DE CEREALES**, se sirven comidas a todas horas, vinos de las mejores marcas, cafes y licores finos".*

Bigarren hamarkadan, eta aipatu dugun industrializazio prozesu hasi berriaren ondorioz, etorkinak jasotzen hasi zen Lezo. 1920-30 hamarkadako daturik ez dagoen arren, lehenengo hamarkadan hasi eta hirugarren hamarkadan segida izan zuen gorantzko joerak ez zuen etenik izan ziurrenik Lezon, garaiko testu-guruari erreparatzen bazaio. Alde batetik Primo de Riveraren politika protekzionistak garapen ekonomikoa ekarri zuen, eta gainera XIX. mende bukaerako Ameriketarako migrazio fluxua eten egin zen.

<sup>24</sup> Usoa Barrutiabengoa Olazabal, Nerea Elias Muxika, Garoa Gonzalez Fernandino, Araitz Rodriguez Gutierrez: *Astelehenean baserrian, asteartean... Lezoko baserriak lehen eta orain*. Lezo: Udala, 2005. 61-62 orriak.

## Lezoko herri mugimendua XX. mendean

Mende hasieran izan ziren etorkin gehienak Gipuzkoatik bertatik etorri ziren; mendeak aurrera egin ahala, ordea, estatukoak gailendu zitzaizkien gipuzkoarrei. Mende hasieran etorkinen %82 gipuzkoarrak baziren, 1920an jada %64ra jeitsi zen hauen pisua<sup>25</sup>.

Heriotza tasak ere behera egin zuen, eta eredu demografiko klasikoari jarraiki, honek eragin zuzena izan zuen populazioan, izan ere heriotza tasa jeitsi bai, baina jaiotza tasak mantendu egiten ziren, lehenengo fase batetan. Hala ere, izan zen kinkarik ere prozesu honetan, 1918an hain zuzen ere, “gripe española” deiturikoak 6 lagun hil zituenean, urte horretako heriotzen %15,78 izan zirelarik<sup>26</sup>.

Datu hauek guztiek gizarte aldaketa irudikatzeko balio digute. Gizarte aldaketa ari zen gorpuzten beraz, baina munduaren ikuskera, **ideologia** finean, oso erro-tuta zegoen Lezon. Kristau fedea indar handia izaten jarraitu zuen, eta Lezon fede honen mugarri zen Santo Kristoren ospeak bere horretan zirauen. Eta ez bakarrik inguruan, garaiko ezkontza agiriei erreparatuta argi ondoriozta daite-keenez: Estatu osoko jauntxo eta haundikiak etortzen ziren herrira, Santo Kristoren bedeinkazioa helburu, bertan ezkontzeko.

Santo Kristoren jatorriaren inguruko kondairaren indarrak erakarrita, herrira etortzen ziren eta bertan ezkondu. Ezkontzara bertaratutakoek ospakizunaren aurretik egiten zuten ibilaldixora biltzen ziren bizilagunak, ospe handiko haiek ikustera, eta neska gazteek, atarietan jarrita, zera esaten zieten, kandelak saltzarekin batera:

*“Señorita, guapa y bonita, 1 sos al aire!”  
(Madrilgo andereñoei zuzenduta)<sup>27</sup>.*

Garaiko agintari eta handikiek sarritan hispanitatearen egunean, urriaren 12an, ospatzen zituzten beren bataio eta ezkontzak.

Gizarte aldaketa gorpuzten ari zen, baina Santo Kristoren ospeak luzaroan iraun zuen; horren adierazgarri da 1929ko irailaren 24ean ospatu zen ezkontza. Alfonso Martínez de Orellano y Esteban, Encinares-eko markesa, María de las Mercedes Rosa Antonia Federica del Corazón de Jesús Pérez-Caballero y

<sup>25</sup> Gotzon Garmendia Amutxastegi, Alaitz San Roman Uranga: *op. cit.* 76-77 orriak.

<sup>26</sup> *Ibidem.* 65 orria.

<sup>27</sup> Rosi García Lizarragari egindako elkarrizketan bildua.

Moltó-rekin ezkondu zen, eta gonbidatu zein lekukoen izenei erreparatuta, aukeratu zuten tokiaren garrantziaz jabetuko gara. Eulalia infanta, Miguel Primo de Rivera ministro kontseiluko presidentea, ekonomia ministro zen Andeetako kontea, Romanoneseko kontea, eta abar<sup>28</sup>.

Sonatuak ziren ere hura gurtzeko egiten ziren erromeri eta erromesaldiak. Iparraldetik, Nafarroatik, eta beste euskal lurraldeetatik etortzen ziren Lezora; asko eta asko bezperaz etortzen ziren, eta behartsuenek kaildean egiten zuten lo.

Erromesaldia baliatuta, merkatua antolatzen zen goiko plazan, eta ganadu tratuak ugari izaten ziren.

*(...) La romería que se celebra en Lezo es una de las más clásicas y características del país basco; no sólo acude gente de los alrededores del partido, sino que su radio de acción abarca campo mucho más extenso, pues el continente de romeros se compone en gran parte de Guipúzcoa, de Bizcaya, de basco-franceses y también de los pueblos nabarros londantes á nuestra provincia. En día tan señalado todo el mundo se acerca al famoso Cristo de Lezo con la correspondiente súplica fervorosa. Unos piden la salud propia ó la del deudo; otros, que la cosecha sea de resultados óptimos; que el viaje largo del hijo ó del hermano sea feliz; que el fallo del litigio sea favorable; el matrimonio sin descendencia pide un vástago, y en fin, que no hay creyente que no venga sin causa, sin motivo (...).*

*En aquel tiempo los kóstarrak ó vecinos de la costa hacía la expedición en lanchas á vela, y esto daba al asunto una distinción y originalidad que acusaba brillantemente carácter legítimo de raza.*

*Las animadas embarcaciones atracaban al puerto de San Sebastián muy de madrugada, y de aquí, los alegres tripulantes tomaban el caminito del Santuario en permanente jolgorio y lanzando a los vientos el zantzo é irrintzi.*

*Los romeros de Goyeri, por ejemplo, realizaban su expedición andando de monte en monte ó por el camino real, (...) y gizonas con las chaquetas colgadas del makilla, á manera de armas al hombro, hacían su entrada triunfal en el venerado lugar.*

<sup>28</sup> Erregistro zibila. 17. tomoa, 6. orria.

## Lezoko herri mugimendua XX. mendean

*En obsequio ña los mismos el Ayuntamiento engalanaba la Casa Consistorial, y tocaba la música y el tamboril, luciendo la iluminación de la plaza con fuegos artificiales y toro también de chispas y chupinazos. (...)*

*Las doncellas, por no quebrantar la tradición, repetían en voz bajita, humildemente y en tono de rogativa:*

*Gure Gurutze Lezoko Santu  
Iru gauz abek bigal gugana  
Ezkuartia eta osasuna  
Eta senar bat gañera ona<sup>29</sup>.*

Ezkontidea lortze aldera, bazen tradizio bat ere.

*(...) Euskal-erriko baztar guzietatik biltzen dira leku artara. Nekazariyak eskatzera lurren ontasunak; arrantzale ta ichas-gizonak laguntzaren billa, ta ez guchi..ezkontzera.  
Donosti'tik beñepin, ta beste asko errietatik ere bai, iya egunero badira ezkontzera dijoazenak.  
¿Egiya ote da ezkontzen danak, gurutze astuna bizkar gañean artzen duala?  
Ariñago izan deyen joaten dira nonbait, gu pekataria'gatik astunena bere gain artu ta gurutzian asken asnasa eman zubenaren gara.(...)<sup>30</sup>.*

Fede kristauaren inguruan biltzen zirenek elkarteak ere bazituzten; elkarte hauek dotrinaren inguruan biltzen ziren, emakumeak alde batetik (Mariaren alabaren bazkuna) eta gizonezkoak bestetik (Luistarren bazkuna). Bilgune hauek bazirauten XX. mendearen hirugarren hamarkadan ere, garaiko prentsa artikuluetan dakusagun bezala:

<sup>29</sup> Euskalerría aldizkaria. 1903.

<sup>30</sup> J.M.A. Euskalerría, 1916.

*“Igaro zan igande ortan, Jesus´en Biotzaren elkartekoak izan zuten ill ontako eleizkizuna. Oso ederki egin zuten eleizkizun au, eta bikario jaunak bitarte ortan egindako itz arduratusak, bai gogoz entzun ere.”<sup>31</sup>*

*“Urteko igande ontan, egingo degu emengo Luistarek gure zaindari Luis Deunaren urtebetetzeko jaia. Gudari aginte onen menpean, igandea iritxiko ba litzaiguke ez degu eliz birik edo prozezioa egiterik baña ala ta guztiz, elizan barrenean egingo ditugun elizkizunakin, beste urteetan baño motzago ez det uste geldituko geranik, eta ortarako Lezo´ko Luis´tar denak etorri eliza.”<sup>32</sup>*

Errepublika aldarrikatu berria zen, urte nahasiak ziren, eta elizkoiaren kezka ageri da, ez baitzekiten prozesioa egiterik izango ote zuten.



Argazkian, 1925ean Mariaren alaben bazkunakoak udaletxe aurrean, zutoihala dutela. **Lezoko Fototeka.**

Garaiko gizartean eskolaratzea nekeza zen herrian; nagia zen eskolarekiko bertako umeek zuten jarrera, ziurrenik beste betebeharrak batzuk zituztela medio.

Imanol Esnaolaren “Lezoko euskararen historia soziala” liburuan egileak aipatzen duenez, mende hasierako Lezon ez zen lan erraza bertako umeei oinarrizko eskola ematea. Maria Zapiain irakaslearen urte bukaerako txostena etsigarria da oso:

<sup>31</sup> “El Día” egunkaria. 1930ko azaroaren 23. Anastasioren kronika.

<sup>32</sup> “El Día” egunkaria. 1931ko ekainaren 19. Anastasioren kronika.

## Lezoko herri mugimendua XX. mendean

*“(...) creo que es imposible enseñar tales asignaturas en un pueblo en que la mayoría de las niñas abandonan la escuela a los diez años”<sup>33</sup>.*

Eta Simeon Antunez irakasleak, 1912an, eta mutilen asistentziari dagokionez, oso kaskarra dela azpimarratzen du, izena emandako 99 ikasleetatik eguneroko asistentzia 22tik 26rako zelaririk<sup>34</sup>.

Eskolarekiko utzikeria honek egoera sozio ekonomikoan zuen jatorria, baina baita hizkuntzarekin zegoen arazoan ere, izan ere, eta Maria Zapiain irakasleak aitortzen duenez, nekeza baizitzaien ikasleei irakasleen azalpenak gazteleraz ulertzea, beren eguneroko hizkuntza euskara baitzen<sup>35</sup>.

### 1.2 GERNIKAKO ARBOLAREN GARAIA. FORALISMOAREN BIDE GURUTZEA.

**F**oruen eraispenarekin, **aldaketa ideologikoa** mamitu zen Euskal Herrian eta Lezok ere nabaritu zuen.

Lehenengo karlistadaren ondorioz, sentimentu foruzaleak indar handia hartu zuen Euskal Herrian. Baina foralismoaren defendatzaile zen karlismoa lur jota zegoen gerra galduta. Gizarte aldaketa saihestezinak alde batetik, eta baita gerra galdu izanak ere, derrigorrezko egin zuten talde honen transformazioa. Gerra amaieran hasi eta XX. mendeko bigarren hamarkadara bitartean, foralismoaren ingurura bilduak ziren sektoreak berkokatu egin ziren. Foralismoak lege zaharrak, erlijioa eta tradizioa zituen ardatz. Denborak aurrera egin ahala, eta sektore bakoitzak balore haiei ematen zien interpretazioaren arabera, lerratze ideologiko berriak eman ziren. Batzuetan, elkarren etsai amorratu izateraino. 1888an, sektore integrista Alderdi Karlistatik atera zen, erlijiorik gabeko ordena zibilik ametitzen ez zuelako. Fededun sutsuak, foralistak eta industrializazioaren aurkako ziren erabat. Gerora, Liga Foral autonomista sortu zen, eta 1904 eta 1906 artean Foru Aldundia kontrolpean izan zuen. Integristak bertan ziren. Baina barne kontraesanak handiak zirela eta, 1906ean mugimendua banandu egin zen, bi talde ezberdinu sortu zirelarik: kontserbadoreak (tradizionalistak, karlistak, abertzaleak), eta beste alde batetik aurrerakoiak (liberal, errepublikar eta sozialistak).

<sup>33</sup> Imanol Esnaola: *op. cit.* 91. orria.

<sup>34</sup> *Ibidem.* 92. orria.

<sup>35</sup> *Ibidem.* 93. orria.



Gizarte mugimenduei dagokienez, eta deskribatzen ari garen ideologia foruzale honen inguruan, mende bukaeran mugimendu euskaltzale sendoa piztu zen. Euskara eta literatura sustatzeko elkarteak sortu ziren, horien artean Nafarroako Euskara elkarte, **Euskara** aldizkaria argitaratu zuena. Donostian, **Euskalerrria** aldizkaria argitaratu zen 1880 eta 1916 bitartean. Horren ingurura hegoaldeko lau lurraldeetako euskaltzale eta intelektualak bildu ziren.

Garai hartakoak dira Nafarroan Gamazadaren inguruan izandako istiluak eta foruen aldeko beste hainbat herri oldartze ere. Foruzaletasuna, gizarte eredu berriaren aurkako jarrera, tradizionalismoa, erlijioaren defentsa guztiak barnebiltzen zituen mugimendu hark.

Gaur egun izan zuen garrantzia ia galdua den arren, garai hartan, eta askoz beranduago ere, Iparragirrerren “Gernikako Arbola” abestia zen sentimendu hura isladatzen zuena. Foruen defentsan egiten ziren aldarrikapenetan, hura abesten zen. Gertatu zen Nafarroan, Gamazadaren garaian, eta gertatzen zen gizarte ordenu berriaren aurkako oldartzeetan. Donostian, esate baterako, 1893ko abuztuaren 27an, udal bandak ez zuen Gernikako arbola jo. Ereserki ez ofiziala zen herritarrentzat, oso maitatua zuena, foruzaletasunaren adierazle nagusienetako, eta herritarrak oldartu eta manifestazioa osatu zuten, -Gora foruak!- oihukatuz Gobernu zibilera eta Londres hotelera (garai hartan gaur egungo askatasunaren hiribidean zegoena) joan zirelarik. Bertan Sagasta gobernu burua zegoen ostatu hartuta, eta “Gernikako Arbola” abestu zioten, marsellesarekin batera. Gainera, Guardia Zibilari oldartu zitzaizkion. Ondorioz, hiru hildako izan ziren, hainbat zauritu eta atxilotuez gain<sup>36</sup>.

Lezok ere, foruzaletasuna nagusi izaki, ezagutu zuen foruen aldeko aldarrikapenik; 1904ko urriaren 27an, Errenteriako alkate Jesus Maria Etxeberria y Urtizbereak manifestaziora deitu zituen eskualdeko alkateak, tartean Lezokoa. Batzorde batek Madrilera joan behar zuen bertako gobernuak zerabilen foruen aurkako politikari aurre egitera, eta Errenteriako alkateak batzordea agurtzeko ekitaldira deitu zituen inguruko alkateak, Donostiara. Hilaren 29an egin zen manifestazio handia, Viva gure lege zarra! Eta “Gernikako arbola” abestu zirelarik<sup>37</sup>. Lezoarrak ere bertan izan ziren.

<sup>36</sup> Lola Valverde: *Historia de Gipuzkoa*. Donostia: Txertoa, 1984.

<sup>37</sup> Rafa Bandres: *Lezo 6*, 1991ko maiatza. 28. orria.

## Lezoko herri mugimendua XX. mendean

**1.3. TRANTSIZIO IDEOLOGIKOA: KARLISMOTIK ABERTZALETA-SUNERA**

**E**lementu ezberdinak zeuden sakoneko gizarte aldaketa ematen ari zen testuinguru hartan: Euskaltzaletasuna, foruzaletasuna, erlijioaren defentsa, gizarte mugimendu berriak...eta saihestezina zen lerratze berriak sortzea, taldeen berregituraketa.

Euskal Herrian bezala, Lezon ere prozesu honek egin zuen bere bidea. 1908an, Gipuzkoa buru batzarra sortu zen urtean, eta artean PNV egituratzen ari zirela, ez da ageri Lezoko ordezkariarik. Hala ere bazen jarraitzailearik herrian. Horren froga da 1908ko azaroaren 8an Lezoko abertzaleek Luis Arana Goiriri espexera bidalitako postala.



“ABERTZALETASUNAREN AGIRITEGIA. SABINO ARANA FUNDAZIOA”

*Distinguido Sr. Y compatriota: Felicitamos a Ud. así como a los demás compatriotas que sufren persecución por nuestra amada Euzkadi. Gora JEL. Lezoko Euzko abertzaliak. 8-1-1908<sup>38</sup>*

Garai hartan, euskaltzaletasun eta erlijioaren aldeko joera foruzaletasun eta tradizionalismoan biltzen zen, eta hala izango zen PNVk haien tokia hartu zuen arte.

<sup>38</sup> Abertzaletasunaren agiritegia. Sabino Arana fundazioa.

Arestian aipatu dugun Euskalerrria elkarteak PNVrekin egin zuen bat mende hasieran; kontutan hartzekoa da ideologikoki liberalak zirela haietako hainbat, Ramon de la Sota tartean, eta honek eragin zuzena izan zuela PNVn, integristek aldendu baitzuen neurri batetan.

Karlismoarentzat barne gatazka urteak izan ziren haiek:

1888an sektore integrista bota egin zuten alderdi karlistatik.

1909an, Carlos VII.a hil ondoren, barne banaketa izan zen karlismoan: alde batetik, haren seme Jaimereren aldekoek Juventud Jaimista sortu zuten 1914ean, Nafarroan. Tradizionalistek alderdi karlista utzi eta Juventud tradizionalista sortu zuten, Europako gerran haien buruak inperio zentralen aldeko jarrera azaldu zuela medio.

Estutu egin ziren hurrengo urteetan, Nafarroan, Jaimisten eta abertzaleen arteko loturak. komunean zituzten foruzaleatasuna eta erlijiotasuna. Autonomia estatutuaren aldeko aldarrikapenak bildu egin zituen, batasun horren adibide delarik 1918an "Junta Gestora Pro-Autonomía" sortu izana. Batzuek zein besteek eskazen zuten autonomi estatutua Hego Euskal Herriarentzat<sup>39</sup>.

Integristek euskaltzaletasuna alboratu zuten apurka apurka, eta lehen batera zihozazeneke bide kontrajarriak hartu zituzten aurrerantzean.

Karlismoaren baitango bi talde horien arteko tirabirak bere horretan mantendu ziren, batez ere Nafarroan, 1933ra arte gutxienez. 1931ko urrian Don Jaime hil zenean tradizionalistak berriz ere bildu egin ziren, Comución Tradizionalista alderdian, baina honen barruan tirabirak handiak izan zituzten, Lizarrako estatutuaren inguruak integristek kontrako jarrera azaldu zutelako, abertzaleekin ez baitzuten hartu emanik nahi. Espainiarzale baitziren jada<sup>40</sup>.

Lezon, transizio hori ezin argiago deskribatzen du Tege ezinenaz ezaguna zen Tomas Garbizuren idatzi batek: Testuan El Día egunkariari buruz eta bere ildo editorialari buruz dihardu. Tegek egiten duen eztabaidaren inguruko hausnarke-tak ezin hobeto deskribatzen du arestian aipatu dugun transizio ideologikoa:

<sup>39</sup> José María Jimeno Jurio. "Reivindicaciones autonómicas en 1917-16". *Punto y Hora*, 1984ko apirila. 18. orrialdea.

<sup>40</sup> José María Jimeno Jurio. "Navarra jamás dijo no al Estatuto Vasco". Tafalla: Txalaparta, 1997.

## Lezoko herri mugimendua XX. mendean

*“(...) Aspaldikoak dira, bai berriketa abek. EL DIA izperkariak arpegia aldatu duela alegia. Leno ez omen zan asmo oietakua, asieran ez emen zuan orrelako tankerik.*

*(...) Orain berriz auxe bera ez dut irakurri zarra. EL DIA abertzalia dela esan nai dute, itz batian bukatzeko, eta erriz erri laguntza bila ibili ziranian katolikua ta euskeltzalia izango zela esan emen zuen. (...) Orregatik erabat utzi ta kito.*

*Ederki egin duten. Atsegin ezpazitzaien, zertako tripak jaten egon? (...) Nik ere orixe egin nuen. “La Constancia” artzen nuen (...)” El Día” utzi dutela? Nik berriz “La Constancia” utzi nuen eta kito. Orduan ez da “El Día” bakarria arpegiz aldatu dena. Ez orixe.*

*“El Día” orain len bezelaxe katoliko ta euskeltzalia da. Oso euskeltzalia. Ta zenbat eta euskeltzaletasunari kalte geyo egin, “El Día”-k orduan ta euskeltzaletasun geigo azaldu biar.*

*“La Constancia” ez da nik artu nuen bezin zaroino nekua. (...) orduan etzuen esaten abertzaliak mota guzitakoakin nastuta Jaungoiko gabeko erkala (republika) ekarri nai izan genuenik, (...) orduan etzuen esaten “La Constancia”-k Sabin integrista zenik eta atzeniko orduan abertzale azaldu izanaz damaturik, ondorengoei <sed españolistas> esan zienik.*

*“La constancia”-n fuerozaletasuna belarrimotz-zale<sup>41</sup> biurtu zen ezkerero, EL DIA’n euskeltzaletasuna abertzale biurtu. Bat goitik bera ta bestia betik gora.*

*“La constancia” leno integrista zen. (...). Eta andik laster “tradicionalista” biurtu zen<sup>42</sup>.*

Azpimarragarria da garai hartako tentsioa; testua 1933koa da, eta ordurako transizio ideologikoa gauzatua zen Euskal Herrian. Alde bakoitzeko ezaugarri ideologikoak zorroztu egin ziren, ezberdintasuna azpimarratze aldera edo, baina bazuten ezaugarri bat komunean, bi aldeek sutsuki defendatzen zutenak: Katolizismoa, fedea. Fede ura ez zen nahikoa izan, ordea, gerran elkarren kontra ez aritzeko, urte gutxiren buruan ikusi ahal izan zen bezala.

Lehenengo gerra mundiala eta gero, krisian murgildu zen Espainia. Annual herrian, Marokon, espainiar tropa kolonialek porrot handia izan zutela eta, krisia piztu

<sup>41</sup> “Belarrimotz” esaten zitzaie kanpotik etorritakoei.

<sup>42</sup> Patxi Urkizu eta Patxi Intxaurrendieta: *Garbizu anaiak. Zubigar, Iruzubi, Tege. 1921-1936. Lezo: Udala, 547-49 orriak.*

zen. Arazo sozialak, kolonietan agintea mantentzeko zailtasunak...Alfontso XIII.aren erregealdia krisian zegoen. 1923ko irailaren 13an **Primo de Riverak** estatu kolpea jo zuen. Ugariak ziren, militar kontserbadoreen ustetan, Espainia mehatxatzen zuten indarrak: Anarkisten borroka, langileriaren antolaketa 1917ko greba orokorraren ondoren, Sobiet Batasunak haientzat suposatzen zuen erreferentzia berria, abertzaletasuna (bai Katalunian, bai Euskal Herrian)... eta Alfonso XIII.aren onespenearekin estatu autoritarioa ezarri zuten. Hainbat historiagileren ustetan, Annual-eko porrota ikertzen zuen "Picaso txostena" zeritzanak, erregearen ardura azpimarratzen zuen, eta ura argitara zedin ekiditeko estatu kolpea onartu zuen. Esan beharra dago politikan nagusi zen kazikismoa borrokatzeko konpromezua hartu zuela halaber, eta promesa hura zela eta, sozialistek ere babes eman ziotela hasiera batetan. Katalunian gorpuzten hasia zen autogobernua bertan behera utzi zuen, gaztelera ez beste edozein hizkuntzaren erabilera debekatu zuen ekitaldi publikoetan, eta "Unión Patriótica" alderdia sortu zuen, indar kontserbadoreak bertan biltzeko asmoz.

Lezon abertzaleek pairatu zuten jazarpenari, ezkutupeko lanarekin erantzun zioten. Ikuluetan egiten zituzten bilerak<sup>43</sup>, ikurrina paretan jarrita. Eta desobediencia ekintzarik ere izan omen zen: Inaxio Artolaren familiak ez zuen espainiar ikurrik jartzen balkoian ospakizun egunetan, garaiko izuari aurre eginez<sup>44</sup>.

*Ordura arte bazeuden mugimendu nazionalistak eta, harek moztu in zittun danak.*

*Anastasio salaberria jarri zun Primo de Riverak alkate.*

*1924ean eskola berriak jarri ziren, Antonio Pildain. Ordura arte, udaletxean egiten ziren eskolak.*

*Kaia zan...completamente salvaje...*

*Maestra re erdalduna, jakina, ta baten esan zion bikariuai (...) elizan etzula beiñe erdera itten,e ta zerbaitte in biarko tzala (...) bikariuak erantzun omen zion, (...) etortzen zian danak oso gutxi ezagutzen zian elizatikan (...) zuk ori nai baldin badezu, zuk hainbeste maitte dituzun kastellano oiek danak eliza ekarri, ta ekartzeituzunen ordun ingo deu erderaz (...)<sup>45</sup>*

<sup>43</sup> Imanol Esnaola: *op. cit.* 89. orria.

<sup>44</sup> Ibidem.

<sup>45</sup> Imanol Esnaolak Inazio Artolari egindako elkarrizketa.

## Lezoko herri mugimendua XX. mendean

Ez zen doakoa abertzale izatea. Martin Bidegain militante abertzaleak atentatua pairatu zuen urte haietan<sup>46</sup>.

Lezon, diktadurak Anastasio Salaberria jarri zuen alkate.

Baina 1930eko urtarrilaren 28an herbesteratu zen Primo de Rivera: Kontserbadoreen artean tentsio handia zegoen, diktadorearen saiakerak saiakera, harremanak ez baitziren batere onak, eta erregeak harengan jarri konfidantza kendu egin zion. Eta Alfontso XIII.aren azken defentsa horma izan zen diktadura erorita, bere erregetzak ere ez zuen luze iraun: Hurrengo urtean, “diktablanda” izeneko epe motz baten ostean, 1931ko apirilaren 12an, hauteskundeak ospatu ziren, eta errepublikaren aldekoek irabazi zutelarik, Parisera egin zuen ihes.

Garai hartako Lezon aurrera zerraien aldaketa prozesuak. Tomas Garbizu musikariak honela deskribatzen du bere herria, eta bertan emandako aldaketak nabarmendu:

*“Lezo herri maitagarria zen; batez ere baserri alde hura. Baina orain asko galdu du. Herria bera ere oso maitagarria zen. Dena den, gogoan dut nola ziren bi edo hiru aldetako kastak: haundixkiak (dirudunak). Beren diru izate hura ibiltzeko moduan ere ezagutzen zen. San Isidrotara joaten ziren Madriler...eta guk San Isidorrik bazen ere ba al genekien ba? Gure ama ez zen joaten; hura txerriak kontzen; ni ere bai. Nik txikitan amari zera esaten nion: “baina ama, guk ez al dugu etxeren bat edo...zelairen bat edo..denek badute”. Hark “ez maitia” edo “bai maitia, zuk denak baino aberatsagoa zara” erantzuten zidan. Gogoan dut Don Pedro Barrios orduko medikua. Ez zen euskalduna, Zaragozako. Denak sendatzen zituen euskeraz zekizkien bi hitz bakarrek: “Zalda berua”. Besterik ez zekien. Donostiako teatrorat abonatua zegoen, beti lehenengo filan. Konpainia guztiak ezagutzen zuten...Ondo konpontzen zen baserriarrek. Baserrietan jakingo zuten zer edo zer erderaz ere.Nik ez nekien erderaz; oso gutxi. Lezoko bikarioak behin proba bat jarri zidan: “Jauna, eskeintzen dizut egun honetako lan eta neke guztiak” erderaz jarri behar nuen. Eta nik: “Te ofrezco Señor los trabajos y los cansa todos de ese día”. Nik ez nekien erderaz. Agian Don Pedro medikuak gehiago jakingo zuen euskeraz nik erderaz baino.*

<sup>46</sup> Imanol Esnaola: *op. cit.*

*Bi mediku ziren Lezon: Fernando Carril bestea. Goizuetatik etorria zen. Honek ere ez zekien euskeraz. Etxe dotorea zuen, jardin ederrarekin-eta. Bere semeek bazuten bizikleta eder bat. Ni bizikleta haren atzetik ibiltzen nintzen. Askotan, bizikleta zegoen tokira joaten nintzen eta gainean eseritze bakarrarekin pozik gelditzen nintzen. Handik berriz goiko sorora jostatzerara...*

*Beste gauza atsegina: baserri alde hura. Hango sagarrak, gereziak, zelaiak, hango ixiltasuna. Orain, berriz, kea eta...ni ez naiz aurrerapenen kontrakoa baina...*

*Beste gauza goxua: sagardotegiak. Bonifazio Pagolak egiten zuen sagardo bikaina. Baita Adrian Salaberriak ere, eta Indionekoek...Tokan ere aritzen ziren. Ni ere sartzen nintzen, sekulako "axertua" nuen.*

*Beste gauza goxua: Ilunabarreko pelota partiduak. Estanis Salaberria oso ona zen. Baita gure anaiak Daniel e a Juanito; eta geroago oso ona Liborio, hau batez ere palaz. Orduan ez zen ezker paretarik, eskuinekoa baizik; kontrakoz alde aritu behar zen.*

*Eta gainera frontisa, dena kroskaz beteta. Handik pelotari onena ateratzen zena "campeón de Guipuzcoa" nahi eta nahi ez. Han pelotak pareta jo eta nondik aterako zen erne egon behar zen gero...Apaizek ere jokutzen zuten: Don Eusobiok, Pildainek, nere anaia Josek (pelotari ona zen). Sotana altxa, zinturoia jarri eta han ibiltzen ziren. Altzara ere joaten ziren eta ni haien atzetik, gero intxaurrak-eta jatera.*

*Kaia aldea ere gogoan dut. Baina horrek irabazi egin du. Orduan lohia besterik ez zen han<sup>47</sup>.*

Testuan agerikoa da orduko Lezon ezberdintasun sozial handiak zirela. Eta dirudunek gauza nabarmenak egiten zituztela, Madrilgo zezenketak ospatzen ziren San Isidrorra joatea kasu, ziurrenik hartaz gozatu baino, herrian inbidia sortzeko, herri xehe eta beraien artean lubaki bat eratzeko.

Ez da, baina, jauntxokeriaren inguruan aurkitu dugun aipamen bakarra. Antza, elizak eta familia boteretsu batzuk eragin handia izana zuten herriarengan, eta bere nahierara mugiarazten zituzten hainbat bizilagun. Bere horretan iraun zuen egoera horrek XX. mendeko bigarren hamarkadara arte, Agustina Pontestaren ustetan. Baina zauri handia utzi zuen, eta maila politikoan honek bazuen bere eragina, kezkatuta ageri zirelarik eragin horren aurkako zirenak:

<sup>47</sup> Patxi Intxaurrendieta eta Patri Urkizu: "Tomas Garbizu. 1901-1989". Lezo: Unibertsitateko Udala.

## Lezoko herri mugimendua XX. mendean

*“Euren denbora guztian eper-azpiko eseralki guridunan zale izan diran jauntxoak berak nai izan duten guztia egin izan diote gure baserritar gizajoari jauntxokeri denbora artan, gure baserritarrak beren botoakin etzuten agintzen, etxe nagusiak agintzen ziotenari, nai ta naiez eman bear.*

*Baño gaur eztago jauntxokerik, eta gizona azke dago bere botoa bere gogokoari emateko”<sup>48</sup>.*

Agustina Pontestak dioenez, hainbat handiki familia baserritarren lepotik aberastu zen, haiek hiltzorian zirela, eta idazten ez zekitela, beraien aldeko testamentuak behatzarekin sinatu arazita. Alkate, sekretarioak eta enparauak, jendea hiltzorian zela, testamentua egiterakoan horrela eskuratzen zituzten etxeak.



## II. ATALA

# GERRA AURREA

## Lezoko herri mugimendua XX. mendean

### 2.1. HERRIARREN AISIALDIA

**B**aina herriak hartzen zuen gozamenerako tarterik ere. San Isidrorra joaterik ez, baina herrian bertan antolatzen ziren pilota partidek ederki asko asetzen zuten herritar xehearen aisialdi premia. Pelota partidak **Gure Borda** Elkartek Indio-enea ostatuaren atzekaldean zuen frontoian antolatzen ziren; desafioak eta izaten ziren. Koldobike Gezala, profesional izatera iritsi zen lezoar pilotariak, bertan ikasi zuen pelotan:

*Gaur egun "Aizpea taberna" dena lehen "Gure Borda" taberna zen eta bere atzekaldean frontoi txiki bat zuenez, bertara joaten ginen pilotan aritzera garai hartako neska-mutilak. Errenteriatik eta inguruko herrietatik etortzen zen jendea. Askotan goizean goiz lantokira joan aurretik ere partidua jokatu ta joaten zen jendea lanera.(...) Horrela ikasu nuen eta Gure Bordako frontoia okupatuta zegoenean, Goiko Plazako frontoira joaten ginen"<sup>49</sup>.*

**SOCIEDAD RECREATIVA "GURE BORDA" elkarte** 1924ko ekainaren 22an sortu zen. Musika banda zuen<sup>50</sup>, arraunketa desafioak antolatzen zituen, sagardoa ere egiten zen bere tabernan...eta nahiko jaizaleak ziren. Bere jaizaletasun hori hasierako ekitaldian bertan nabarmendu zen, ekitaldi programari erreparatzen badiogu:



Gure Bordak musika banda propioa izan zuen.  
**Lezoko Fototeka.**

<sup>49</sup> Lezo aldizkariaren "gizartea" atala. 10. alea. 1993ko maiatza. Agustina Pontestak Koldobike Gezalari egindako elkarrizketa.

<sup>50</sup> *Guía de Lezo... op. cit.*

*“A las 8 ? carrera pedestre con el siguiente recorrido: Salida frente a la sdad y pasando por el callejón que hay entre las casas de D.J.R.Salaverria y Sra. Viuda de Inchaurrendieta suben por el depósito de aguas a Martizkuenea pasando por Iparraguirre, Cabite y Andreonea para venir a la plaza, seguir a Alzate, tomar el camino viejo a Zubicho y llegada a la meta”.*

*“A las 4 ? de la tarde carrera de carretillas con ranas”<sup>51</sup>.*

Desafioa edo lehiarako grina sorrera ekitaldian bertan antzeman dakieke:

*“De 5 a 5 ? gran regata de bateles por los socios y a continuación cucañas”.*

Garaiko ikuskera tradizionalen izan zuten, parrandazaletasuna zela eta ez zela, arazorik ere:

*“Gure Bordakoak” berriz, urte betetzea zutela ta, abek ere beren jai alditxoak eragin zuten. Illundu arteko jaiak, oso atsegiñezkoak, egin zis-kiguten, eta ortik gorakoak, ez, ez eta ez. Gauz onak txalotzeko gertu gauden bezela, gauza txarrak aspiratzeko ere berdin. Euskaldun jayo ta esukaldun bizi, gure oiturak, gure eredu<sup>52</sup>.*

Jaien antolaketan parte hartze zuzena zuten, honako jai programan ageri den bezala:

<sup>51</sup> “Gure Borda” elkartearen inaugurazio ekitaldirako prestatutako jai programa. Lezoko Udal Artxibo Historikoa. *Espectáculos*.

<sup>52</sup> “El Día” egunkaria. 1930eko ekainaren 19. Anastasioren kronika.

## Lezoko herri mugimendua XX. mendean



Gure Borda Elkartearen 1924ko jai programa.  
Lezoko Udaltzaindari Historikoa.

Aisialdirako taldea ziren arren, badirudi orohar abertzale zirela **Gure Bordakoak**. Hori ondoriozta daiteke Jon Garbizu "Zubigar" idazle eta olerkariak elkarteari, bere egoitzaren inaugurazioa zela eta, jarritako bertsoei erreparatuta. Agerikoa da ere ez zela giro onik bizi herrian, alegia, bazegoela bizilagun edo taldeen arteko liskarrik.



Gure Borda Elkartearen egoitza. Lezoko Fototeka.

Gure aurreko asaba zarrak  
Berriz etorko ba'kira  
Ta begi argiz lengo antzera  
Jarri Lezo'ra begira  
Ikaratuta juango lirake  
Berriro lengo tokira  
Esanaz: ¿Zer da, zer da nasketa au?  
guazen azkar lengo obira!

Milaka urteak igaro ditu  
Belartza onek ain txukun  
Eta txukuna zalako, beti  
Izan da guretzat kutun;  
¡orain ordea galtzen dijua  
ta jarri gaitu txit ilun  
biotz argi ta laguntzale au  
utzirik betiko ilun!

Belar txar onek galdu du arrunt  
Lezo'ko pake aldia  
Urraturikan oso maiteki  
Bildua zegon sendia;

¿ba'dakizute orain sortu dan  
soroko belar aundia  
nola deitzen dan izen jatorrak?  
¡bekaitz edo enbidia!

Lezo guztia lezo'tarrentzat  
Soro bat bakarra zan len  
Eta guztiak belar mota bat  
Antziñean zuten jaten;  
Arrokeria bazter batean  
Beti zuten aiek uzten  
Ta anaitasuna noiznai ta nunai  
Agertu izan oi zuten.

Sube gaizto bat mixtoz betea  
Sartu zan noizbait errian  
Pozoitutako mixto txar ura  
Boteaz soru guztian;  
Orain belarra pozoindu dago  
Lengo sorotxo garbian  
¡ta ango jaleak pozoindu dabiltz  
an, soroaren erdian!

## Lezoko herri mugimendua XX. mendean

*Bekaitza belar kaltegarri au  
Lezo 'n ari da gaietzen  
Ta belar onek gizon mordoxka  
Digula sendo mantentzen;  
A, baña zuek, adiskideok,  
Nola jaten ez dezuten  
Pake-paketsu ta bekaitz gabe  
Beti zerate azaltzen.*

*Belar gaizto au sortu danean  
Aguro zerate etorri  
Artzai batekin soro artatik  
<<Borda>> txokora txit larri;  
pozoï gabeko azi goxoa  
ereingo da <<Borda>> 'n sarri  
ta ez da izango Lezo guztian  
aren antzeko belarrik.*

*Ba 'dira gizon on utsak ere  
Ez dira danak gaiztoak,  
Oraintxe bertan esan litezke  
Nor diran ango txatxoak;  
Talde aretan gizon batzuek  
Izanik biotz osoak  
Zuentzat eta nerentzat ere  
Dabilzkite itz gozoak.*

*Zuek paketsu zebiltzate, bai,  
Ta besteak ez ordea  
Biotz aietan pozoia dago  
Nunbait oraindik gordea;  
Erri batean aserre bila  
Dabilen gizon taldeak*

*¡¡gaur edo bihar ekarriko du  
izugarrizko kaltea!!  
Gauza garratzak dizkigute esan  
Beren izenak gordeta  
Odol txar utsa daukatelako  
Sartua beren zañetan;  
¿baña zergatik sartu nai dute  
aiek besteren gauzetan?  
¿orrelakorik ez da entzuten  
txit umetan!*

*Danen aiskide izan bear det  
Oraintxe arte bezela  
Beaz kanpoan ortxe egon naiz  
Biotz au itun dutela..  
Oraintxe bertan txit samindua  
Kentzera nua txapela  
Eta eskatu Jaun altsuari  
Pakea eman deigula.*

*Adiskideok:ez deila bada  
Zuen errurik agertu  
Berealaxe aserre gaitzat  
Deutelako aiek artu  
Esan dizuet goizean ere  
Txukuntasunaz jarraitu  
Eta orduan egingo dira  
Aiskide asko azaldu*

*Ta alaxe dedin gertatu Jauna 'ri diot  
eskatu*

*GARBIZU TAR JON ( Zubigar)*

Desafioak aipatu ditugu; sonatua izan zen bateletan egindakoa. Gure Borda elkarteak bi koadrila atera zituen, eta Alaitasuna elkarteak bat<sup>53</sup>.

1924ko uztailaren 3rako jai programan, Alaitasuna eta Gure Borda elkarten arteko desafioak aurkezten dira.

<sup>53</sup> Patri Urkizu: *Zoazte hemendik!*. Zarautz: Susa, 1995. Alaitasuna eta Gure Borda elkartekoen desafioa izan zela diosku.



Gure Bordako kideak Billabonako Arkaitzako kideei ongi etorria ematen. **Lezoko Fototeka.**

*“A las 3 y media: Partido de pelota entre los aficionados Don Estanislao Salaverria y D. Santiago Eguibar con faja azul de la sociedad ALAITASUNA, y Don Esteban Garmendia y Don Benito Echave con distintivo rojo de la Sociedad GURE BORDA”.*

*“A Las 6 y media Tendrá lugar una gran regata tomando parte tres embarcaciones del GURE BORDA y una del ALAITASUNA, bajo la dirección de los patronos D. Juan Jose Azcue, D. Isidoro Irastorza, D. Florencio Veintemillas<sup>54</sup> (sic) y Don Jose Miguel Salaverria”.*

<sup>54</sup> “Veintemillas” esaten zioten. Eskuindar amorratua, Francoren aldeko agertu zen gerran.

## Lezoko herri mugimendua XX. mendean

Zubigarrek bertso hauek jarri zizkion haietako desafio bati:

Ez nuan uste Lezo´n ba´zenik  
Arraunketako gizonik  
Baña ba´dira asko ta onak  
Iñork ez uste izanik  
Orrengatikan niozkateke  
Bertso batzuek jarri nik.

Bat, bi, iru, ta beste bezela  
Ziraden ogeitazortzi  
Oso ederki ornitu ziren  
Lezo´tar utsaz bi ontzi  
Ba orrelako gauzari beti  
Jendea biltzeko utzi.

Ontzi bateko arraunlariyak  
Ziran danak ezkongayak,  
Bestean berriz ezkonduetako  
Gizon azkar ta biziyak  
Arritu gaitu gazteai auek  
Sartu dioten ziriya.

Uste genduan gazteak aisa  
Irabaziko zutela  
Ta zarrak ere ez izaki ba  
Arraunketa ain motela;  
Aitor dezagun oraingoz behintzat  
Zarrak geyago dirala.

“ezkongayetan zerbait banintzan  
ezkondu eta ezer ez”  
ori dago, bai, esana baña  
gezurra da nere ustez  
orain eñepein ikusi degu  
ezkondua gayan gañez.

Ezkongayetan onak ba´ziren  
Baña utzi au esaten  
Onak bezela dakazkigunak

Dira aguro nekatzen  
Orrelaxe ba askotan guri  
kukubak digu kantatzen

beste gauza bat esan bear det  
berandu det ba jakindu  
ezkongai abek goizetik ziran  
arraunean erdi lertu  
trañaro billa ziraderalako  
ondarrabiyan izandu

Arraunketa bai oso polita  
Izan zuten ezkongayak  
Baña laistertxo nekatu ziran  
Alde-aldean ardiyak  
Beraz onela auexen paltan  
Galdu zuten ba guztiyak

Aurrenekoan zuten gazteak  
Oso ederki bogatu  
Baña geroko zirudienez  
Egin ziraden nekatu,  
Beraz lagunak oraingotikan  
Indar zarrari barkatu.

Aspalditxoan jan edanian  
Bogatu gabe bizitu,  
Geroko ere ederki dute  
Berak jatekoa sortu  
Baba berriyak egin zaizkate  
Eskuetan ba agertu.

Eskuetako baba berriyak  
Bukatzean ez kejavu  
Apurdi masaill pyetan ere  
Laister dira-ta zoritu  
Danak ezin jan ba´dituzute  
Laguntzeko neri deitu.



Gaztietako patroya ziñan  
Ixidoro Irastortza  
Zuzen jua ziñan bañan alperrik  
Bestean zegon-ta gatza  
Baña egiyak danak zeinduten  
Atera ugari patza.

Beste ontziyan patroi zana zan  
Jose Migel Salaberri  
Bidean ziran zuzen okerrak  
Ibilli zuten au larri  
Baña denborak batu-ta behintzat  
Au zan aurren etorri.

Ontziyak ere ba-zuten bada  
Beren ona eta txarra  
Txar onek zuben (lengua ba´da)

Izena "San Pedrotarra"  
Onen aldean askoz ohea  
Da beste ontzi "muskerra".

Oso ederki egin zenduten  
Nere Lezo´tar maiteak  
Kalterik beintzat ez dezute-ta  
Ez batek eta ez besteak  
Gañera beti lagun zerate  
Bai zarrak eta gazteak

Praon ederki danan artean  
Diru orixe gastatu  
Ori dalako onen-onena  
Lagun artea agertu  
Eta datozen urte askotan  
Orlaxe bada jarraitu.



Lezoko Fototeka.

Ez ziren baina lezoarrak soilik elkarren kontra aritzen estropadetan. Donostiako estropadetarako ere prestatzen ziren:

## Lezoko herri mugimendua XX. mendean

*“Donostian urtero oi dan bezela, iraillan egingo diran estropadetako gertutzeko, emengo arraunlari gazteak, egunero ekiñaldi gogorrak egiten dabilta, Urkizu azkarra buru dutela”<sup>55</sup>.*

Eta beste hainbat gauzatarako egiten zen bezalaxe, arraunketa sostengatzeko ere diru bilketa antolatzen zen:

*“Gure arraunlariak aurrerapen aundia egin dute arraunketa apañago ta bulartsuago egiten dutela, ikusten ditugu beren leyaketan. Arraunlari kementsu abek egunezko lan gogorrari utzi ta neke aundiagoa duan arraunketa oni eltzen diotela dabilta egunero. Txolarteko orduetan arraunketa-neke ortan dabiltzan **mutill bulartsu aberi laguntzea bearrezkoa dala oroituta arpidea zabaldua dago**. Erritar guztiok apurtxo bana eman dezagun, gure mutill bulartsu abek bear bezala gerta ditezen, Donostiara joateko”<sup>56</sup>.*

Serio hartzen zituzten prestaketa lanak:

*Donostian urtero oi dan bezela, iraillan egingo diran estropadetako gertutzeko, emengo arraunlari gazteak, egureno ekiñaldi gogorrak egiten dabilta, Urkizu azkarra buru dutela”<sup>57</sup>.*

**Alaitasuna** elkartearen bazen beraz. Hau ere 1924eko martxoaren 1ean sortua. Otsailaren 29an Gobernu zibilean elkartearen osatzeko baimena jaso zuten, beti ere behin betiko estatutuak aurkeztu beharko zituztela agindu eta gero. Gobernuaren jakinarazpena honako bazkide hauek jaso zuten: Carlos Mecalalde, Bonifacio Pagola, Anastasio Salaverria, M. Alberdi, Eustaquio Inchaurrendieta, Candido Garbizu, Tiburcio Ascasibar, Julian Salaverria<sup>58</sup>.

<sup>55</sup> “El Día” egunkaria. 1930eko uztailaren 13. Anastasioren kronika.

<sup>56</sup> “El Día” egunkaria. 1930eko abuztuaren 8. Anastasioren kronika.

<sup>57</sup> “El Día” egunkaria. 1930eko uztailaren 13. Anastasioren kronika.

<sup>58</sup> Gobernu zibilean aurkeztutako eskaeraren erantzuna. Lezoko Udal Artxibo Historikoa. 1924ko otsailaren 29an.



Gobernu Zibilaren baimena Alaitasuna elkarteak legeztatze<sup>59</sup>.

Gure Bordaren parean zegoen, Manuelenean. Gaur egun Manueleneari “Mariya enea” esaten zaio: Manuelenea izenaren jatorria bertako tabernariaren izenean bilatu behar da; izan ere, Manuel Alberdi zuen izena. Berezko izena, berriz, Elizalde da<sup>60</sup>. Elkarren parean egote hori ez omen zen kokapen fisiko soilak. Izan ere, eta Inaxio Artolaren hitzetan, ezberdinak ziren bi elkarteotako kideak, izaeran eta portaeran. Pentsatzekoa da ideologia ezberdinetakoak izango zirela:

*“Manuelenia bai, plazan. Kale Nagusitikan plazara sartu ta ezkerreta lenbiziko etxea, eta azpiyan tzeukan taberna bat. Manuelenian bazterrian tzegeon geo Indionea, an e zan beste taberna bat. Eta geo etorri zanian Primo Riveran zea mugimendua (1923) milla beatzireun da ogeita batian o biyan edo ola, ba batzuek ayeka batea ta besteak bestea jendia erriyan e pixkat pikatu zan, zergatikan batzuek ordurako re bai baizian ba aberza-*

<sup>59</sup> Lezoko udal agiritegia.

<sup>60</sup> Lander Zurutuzak emandako datuak.

## Lezoko herri mugimendua XX. mendean

*liak, eta aberzaliak etzianak gutxiyo izango zian baño bazian. Ua zala meriyo Lezoko gazte jendia denak ba Gure Borda aldea jo zuen eta an beren soziedadia ein tzuten. Eta geo bestian berriz, ba Manuelenian, ba iya iya danak gizon zarrak, iya danak ezkonduak eta abar eta ola. Manuelenekuak zeukan izena Alaitasuna, eta Indionekuak zeukan Gure Borda. (Alaitasunaren izaera:) Oi da, serioquak esango genuke, serioquak. Geo klaro, ortikan sortu zan erriyan lengo alkatiak eta kendu ta, botuak ein bear tziala etziala baziala ta istoriyak, erriyan saltsa pixka bat sortu zan, eta Alaitasuna, orkua atera zan alkate, ez botuangatik baño goitikan etortzen tzialako izenak: (Gure Bordakoen joera:) Abertzale nabarmenaguak. (Alaitasunakoen joera:) Ba, conservadores edo nola esangodiyogu: Daukagunari kontu!<sup>61</sup>.*

Elkartea elizkoia zen; Gure Bordakoen kasuan ez bezala, hauek bere ekitaldien baitan meza programatzen zuten:

*“A las nueve y media: reunión de todos los socios en su local y asistencia a misa mayor, acompañados de tamboril”<sup>62</sup>.*

Argazkian, **Alaitasunakoak** erromesei ongi etorria eskeintzen azaltzen zaizkigu:



Lezoko Fototeka.

<sup>61</sup> Lander Zurutzak Inaxio Artolari egindako elkarrizketa, Lezoko toponimiaren gainean. Argitaratu gabea.

<sup>62</sup> Alaitasuna elkarteak Lezoko udalean aurkeztutako ekitaldi programa, bere lehen urteurrena ospatzeko. 1925eko otsailaren 20ean. *Lezoko Udal Artxibo Historikoa. Espectáculos.*

Alaitasuna bilgune zen batez ere, hau da, kalean baino, beraien egoitzan eta beraientzat antolatzen zituzten ekintzak. Horien artean, txangoak ere bazeuden, garaiko kroniketan dakusagun bezala:

*“Emengo bazkunen joan-etorriak- Igazko igande ortan “Alaitasuna” izena duen bazkun ortako bazkideak urtero oi duten bezela, euskalerriri zear, eguna ederra igaro omen zuten. Urte askotan orrelaxe.”<sup>63</sup>*

Nolanahi den ere, antolatzen zituzten ekitaldiei erreparatuta, Gure Bordakoak baino “formalagoak” zirela ondoriozta daiteke; etzuten hauek igelek bultzatutako gurdi lasterketa antolatzen; bazkideen semeentzako eltze jokoa antolatzea ei zen bere ekitaldirik “informalena”.

Bestela, “elkartearen argiztatzea” eta “dultzaina, danbolina eta itxafero jaurtike-ta” bezalako ekintzak antolatzen zituzten<sup>64</sup>.

Bi elkarte hauekin batera, bazegoen hirugarren bat: **Bixi-bixi elkartea**, “la piña” izenez ere ezagutua zena. Izaeraz parrandazaleak, ez dago argi joera ideologiko nabarmenik zutenentz; iturri batzuen arabera, talde abertzalea zen orobat<sup>65</sup>, baina beste hainbaten arabera ez zen soilik abertzalez osatutako taldea. Horrek azalduko luke argazkian karlistaren bat ere azaltzea<sup>66</sup>.

Nolanahi den ere, elkartea Donibane kalean zegoen, batzokiaren aldamenean, 6. atariaren ondoan. Bazuten ereserki antzeko bat edo, taldearen izaera parrandazale eta bromazalearen erakusgarri zena:

*Los diecinueve componentes  
De la piña en cuestión  
Somos todos muy formales  
Salvo alguna excepción  
Pontxo, Inaxio y Ricardito  
Dos Patxikus Julio y Bixente*

<sup>63</sup> “El Día” egunkaria. 1930eko ekainaren 19. Anastasioren kronika.

<sup>64</sup> Alaitasuna elkarteak Lezoko udalean aurkeztutako ekitaldi programa, bere lehen urteurrena ospatzeko. 1925eko otsailaren 20ean.

<sup>65</sup> Xexili eta Manoli Pikabeak Agustina Pontestari esana.

<sup>66</sup> Rosi Maria Lizarragak emandako datua, hari egindako elkarriketan.

## Lezoko herri mugimendua XX. mendean

*Con Retenaga al frente  
Y Txolin los dos hermanos  
Con Martin y Gabino formamos  
Joxe Mari, Patxi y Sebastian,  
Corderito de capitán.  
Gora piña Bixi-bixi  
La alegría y el irrintzi  
La armonía y el buen humor  
Nunca faltarán en nuestro salón<sup>67</sup>.*

Gazte koadrila zen, eta desafioak ohiko zirenez gero, haiek ere egiten zituzten bereak, honako kronikan egiazta dezakegun bezala:

*Datorren igande ontan, mutil zarren “kofradiko” pesta izango dala “el Día”-tik emengo mutil-zar guztiori, aditzera emateko agindu didate, eta noski dei onekin mutil-zar geinak jakitun geldituko zerete.  
Jai onen ziyo edo motiborik andiena, orain illabete bi edo, “Bixi-bixi”ko gaztien aurka desapio (...) mutill-zar kuadrilla irabazle izan zalako (...)<sup>68</sup>.*

1936ean beste elkarte bat sortu zen, **Gure Billera** izenekoa, baina gerrak proiektu berri hau zapuztu zuen. Talde honen sorreran Anacleto Garmendia, Juan Pedrosa, Jose Legorburu eta Jose Etxenike izan ziren, besteak beste.

<sup>67</sup> Agustina Pontestak Rosi Garcia Lizarragarengandik bildua.

<sup>68</sup> “El Día” egunkaria. 1933ko abuztuaren 24ean. Anastasioren kronika

<sup>69</sup> “El Día” egunkaria. 1930eko urriaren 23an.

## 2.2 ALDERDI POLITIKOAK

**P**NVren sorrerak indar korrelazioa aldatu zuen Lezon; soziologikoki foruzale zirenak Jelkide egin ziren orohar. PNV sortu zen arte, tradizionalista eta integristak izan ziren nagusi Lezon. Baina lehen aipatu dugun eraldaketaren ondorioz, eta Tegeren hitzen arabera, integristak tradizionalista bilakatu bezala, herritargo euskaltzaleak PNVren aldeko hautua egin zuen. Foruzaletasunak indarra galdu zuen abertzaletasunaren mesedetan, eta aurretzean zaila izango zen euskaltzalerik topatzea tradizionalisten artean.

Errepublikaren etorrerarekin abertzaleak nagusi egin ziren Lezon; PNVren Uri Buru Batzarra 1930eko urrian sortu zen, eta bederatzi hilabete beranduago, batzokia sortu zuten. Batzokiaren zabaltzeak asko lagundu zuen alderdiaren sendotze prozesuan. Egoitza dinamikoa izan zen, lan politikoaz gain kultur arloan ere lan handia egin zutelarik.

Primo de Riveraren diktadura garaiko klandestinitatearen ostean, nonahi sortu ziren Uri Batzarra, PNVren herriz herriko egiturak, eta Lezon ere berdin egin zuten:

*Zazpi urte ixil-ixilik, zazpi urtean umezurtz billotz antzera egon ba gera ere, noizpait burua jasotzeko azkapena lortu degu, ta orra gure Euskerari bere berea emateko, zerbait, eta zerbait baño ere geiago, biltzen asi gera bere semetxoak, guk genezaken guztia egiteko.(...)*

*Euskalerriko alderdi guztietan orain egiten eta eratzen ari diran Uri-Buru-Batzarrak dirala ta, Lezo'ko Jelbatza aldra bat, esnatu ta guk ere, ori bera, au da, Uri Buru Batzar ori gure erri ontan sortzea gogoratu zaigu. Aurrera ba danok, ta batez ere gu lezotarrak guri piztu zaigun egitazko argi au, iraunkorantzat artu ta, lo-zorrotik bizitasunara igarotzeko izan dedilla.*

*Ostegun illunabar ezker, eratuta daukagu erri ontan, Uri Buru Batzar au, eta ara bertan aurrena eman diteun beren izen ta abizenak: Gezala'tar Polentzi, Broste'tar Atanasio, Salaberria'tar Benan, Garbizu'tar Tomas, Garbizu'tar Danel, Agirre'tar Pello, Pikabea'tar Joseba, Ayarza'tar Nikomedes, Oregi'tar Joseba, Ijiniotar Zerupe, Etxenike'tar Iñaki, Agirre'tar Dunixi, Gezala'tar Rejino, Zapirain'tar Anastasio.*

*Batzar ontan, Bazkintz artezkaria, oraingo izango diranak: Lendakari, Broste'tar Atanaxio; Idazkari, Garbizu'tar Tomas, eta diruzai, Zapirain'tar Anastasio"<sup>69</sup>.*

## Lezoko herri mugimendua XX. mendean

Lezoko batzokia sortu aurretik, herriko abertzaleak Errenteriako batzokian biltzen ziren. Errenteriako batzokiak indar handia izan zuen, kultur eta kirol ekitaldi asko antolatzen zituen, eskualdeko abertzaletasunaren akuilu izateraino.

Lezoko kroniketan Errenteriako batzokiaren berri ematen zen maiz; agerikoa zen herriko jeltxuek batzokia edukitzeko premia zutela.

*Igaro zan larunbata ortan, Errenteri'ko Eusko Batzokian egindako itzaldi goietakoak entzutera, ogeienbat euzkotar izango giñan erri ontatik. Aba eta belarriak zabalik eduki genituen. ¡Nola ez atsegindu gure biotzak eta oarmenak! Zorionak!<sup>70</sup>.*

Bere hasierako ekitaldien artean, Sabino Aranaren aldeko mezaren antolaketa dugu:

*Gokaixuatzez oroituta, igande ontan (gaur obeto esateko), goizeko zapietan Gurutz Doitsuaren elizatzooan, erri ontako Jelbatzak meza ixil bat ateratzen du, gure irakasle Arana Goiri'tar Sabin'en gogaide. Meza emango du, erri ontako semea dan Garbizu'tar Liborio, jaun agurgarriak, eta otoi dagizutegu lagun euzkotar guztioi zintzo eldu zaitezela meza ontara<sup>71</sup>.*

Kroniken arabera, Lezoko Uri Batzarra sortu eta hurrengo hilabeteetan alderdia sendotzeko lanetan ibili ziren, bai eta propaganda banaketan ere<sup>72</sup>.

Alderdiak orohar harrera ona izan zuen, baina sortu zuen ere ezinegonik hainbaten artean:

<sup>70</sup> "El Día" egunkaria. 1930eko azaroaren 28an.

<sup>71</sup> "El Día" egunkaria. 1930eko azaroaren 23an.

<sup>72</sup> "El Día" egunkaria. 1930eko abenduaren 6ean. Anastasioren kronika.



*Askok usteko zuan malaparteko irtengo giñala hiri ontako Jel alderdikoak, matxinada bat emango giñoten bildur ere bai agian...ez da orrelakorik gurekin gertatuko, orain arte bildu geran Jeltzale aldra (agian ni gaixtoena) danak eliztarrak eta Arana Goiri tar Sabinen jarraitza-leak”<sup>73</sup>.*

Herriko batzokia 1931ko uztailaren 31ean zabaldu zuten. Horretarako diru bilketa egin zuten. El Día egunkariko *Euskal orria* atalean Anastasiok jendearen parte harzea galdegin zuen, baita parte hartzen ez zutenei kargu hartu ere.

*Lezo´n ez da iñor ere izango, emengo abertzale aldra bat, Batzokia zabaltzeko buruz dabilela, ez jakiñean dagonik. Ba, ¿zer egiten dezute ba zuek, oraindik izena eman gabe zaudeten oiek zuen izenak abertzale aldran ortan ipiñi gabe? ¿Zure izena biar ematekotan zaude? Ba al dakizu, agian bihar zure laguntza aberriari astirik gabekoa izango bazaiote betaz iritxi etzeralako?<sup>74</sup> (...)*

Inaugurazioa ospatzeko egun osoan zehar antolatu zituzten ekitaldiak: Goizeko 7etan txistulariak izan ziren, 9tan mendi-goizaleari harrera ospakizuna izan zen, ondoren meza, gero batzokiaren eta ikurrinaren onespren ekitaldia egin zen, eta 11 t´erditan, Errenteriako ezpata dantzariak dantzaldia eskeini zuten. Ordubetetan oturuntza “ospetsua” izan zuten, eta arratsaldeko 3 t´erditan hitzaldia eman zuten Leundak, Zeletak, Ormaetxeak eta Oruetak. Lehenengo biek euskeraz eman zuten hitzaldia, eta azken biek gazteleraz.

Jaiari amaiera emateko, erromeria egin zuten jelkideek.

Baina jeltzaleek ez zituzten bere ekitaldi guztiak batzokian bertan egiten: Jaiak eta erromeriak ere antolatzen zituzten, esate baterako, **Arizti Berri** baserrian antolatzen zituztenak.

Pepita Legorbururen arabera, Altzetak mitina eman zuen bertan, bai eta Irujok ere. Pepita aitarekin joaten zen, eta haren esanetan, egun osoko erromeriak iza-

<sup>73</sup> “El Día” egunkaria. 1931ko urtarrilaren 8an. Anastasioren kronika

<sup>74</sup> “El Día” egunkaria. 1931ko ekainaren 19an. Anastasioren kronika

## Lezoko herri mugimendua XX. mendean

ten ziren. Goizean pospolinak, bazkaria, hitzaldia, eta ondoren dantzaldia izaten zuten bertaratutakoek. Arratsaldean, berriz ere, poxpolinak izaten zituzten. Taberna jartzen zuten baserriaren kanpo aldean, bertan denetik saltzen zutelarik: esponjak (gozokiak), azukre makila (bakoitza 2 sosetan, hau da, 10 xentimotan), edari freskoak...

Ez zituzten soilik Arizti Berrin prestatzen jai politiko haiek: Joxepinaxi Garmendiaren arabera, **Errekalde baserrian** ere Monzonek eman zuen hitzaldirik. Gogoan ditu hark esandakoak: "Hemen behiari bazka eman eta esnea Madrilen saldu!", Madrilekiko morrontza salatu nahiean edo.

Gatozen berriz batzokira. Oholtza zuen, bertan hitzaldiak eta antzezpenak egiteko. Garrantzia handia izan zuen antzerkiak Lezon mende lehen herenean; izan ere, sasoi hartan euskal antzerkigintzak berpizkunde garaia ezagutu zuen, zabalduz joan ziren euskaltzaletasun eta abertzaletasunarekin batera. Batzokia izan zen horretan mugarri Lezon, eta ugariak izan ziren, garaiko prentsa kronikei erreparatzen badiegu, entsegu eta antzezpenak. Beraz, Lezon antzerkigintzaren loraldia batzokiaren sorrerarekin batera eman zen, 1931tik aurrera. Kultura eta ideologiarako transmisio tresna zen antzerkia, bertan isladatzen zirelarik garaiko kezka, bizipen eta aldarrikapenak. Gazte taldeak aritu ziren, garaiko kroniketan ageri denez, antzezlanen prestaketan, hauek batzokiaren sotoan burutzen zituztelarik:

*"Gazte langile asko daukagu gure Batzoki ontan. Aben sayoak ikusteko egarri bizia eman digute, eta benetan aseko gaituztelakoan nago. Negurako antzerki-jai atsegingariak eratzeko zorian daude, eta Hauna lagun, parra egin nai duanak aukera ederra izango du Batzokiko-jai abetan"*<sup>75</sup>.

Eta nabarmena zen oso, artikulua berean nabarmen geratzen den bezala, jarduera honek aberrigintzarekin, politikarekin, zuen harremana;

*"Ederki, ederki, Batzoki batean sortzen diran txinparta abek (...), eutsi egin bear noizbait su bizia aterako dek eta, eta orduan, orduan, gaztain erreak jango dizkiagu. Aurrera zuek ere mutilak, Aberria azke ikusi arte!"*<sup>76</sup>

<sup>75</sup> "El Día" egunkaria. 1931ko azaroaren 13an. Anastasioren kronika.

<sup>76</sup> "El Día" egunkaria. 1931ko azaroaren 13an. Anastasioren kronika.

Gizartearen aldaketa nabarmena zen garaiotan, antzerkiak bere rol politiko eta soziala zuen; ideiak zabaldu eta jendea berauetara biltzeko tresna zen, zalantza izpirik gabe. Lezon beste horrenbeste gertatzen zela ezin uka.

*“(...) Basetxeko horma xarretan gure ele maitagarri, pitxi ederrena bezela gorde duten gure baserritar maitagarri ta eredunak ez ditugu lagako, nolana arerioak eramaten, ori bein ere ez. Euren denbora guztian eper-azpiko eseralki guridunan zale izan diran jauntxoak berak nai izan duten guztia egin izan diote guse baserritar gizajoari, jauntxokeri denbora artan, gure baserritarrak beren botoakin etzuten agintzen, etxe-nagusiak agintzen ziotenari nai ta naiez eman bear.*

*Baño gaur eztago jauntxokerik, eta gizona azke dago bere botoa bere gogokoari emateko. Ori ikusteko datorren igande ontan gure Batzokiko antzezleri gaste ta langileak antzeztuko duten “Gurutzepe” bi ataleko ta eusko gogo utsa dan antzerki ikusgarria, eta ondoren “amets gozoa” atala batekoa. Antzerki jai eder hau, danak ondo ikusi dezaten bitan egingo dute. Euskerak askoren idaz-lan ugaria bear dizu. Lan oietan lastorik asko izango degu, baña ez bildurtu! Lasto askoren buruz galburutxoak ere pixkanaka sortuko zaizkigu an-emen esuko-ore gozoa egiteko. (...) Guztiona artean Lizardi-ren otsunea beteko al-degu erdizka bada ere.(...).<sup>77</sup>*

Ezin argigarriagoa dugu, arestian aipatutakoaren karira, Anastasioren beste kronika hau:

*“(...) Antzerki jaiak ez dira gure begien jolaserako bakarrik izaten, baita abertzale guzti-guztiak onen bidez, elkartu, itxartu, bildu, eta Aberri maitearen arazoetaz itz egiteko ere (...).<sup>78</sup>*

Tresna izate horrek ekarriko zuen, horrelakoetan gertatu ohi denez, eztabaidarik, ez baitzen Lezon soilik gertatzen arestian aipaturikoa. Eztabaida horiek ez zaizkigu arrotzak, kultura minorizatuak burutzen dituzten berpizkunde ahaleginetan sortzen diren kezken isla baitira. Toribio Alzaga

<sup>77</sup> “El Día” egunkaria. 1933ko martxoaren 24ean. Anastasioren kronika.

<sup>78</sup> “El Día” egunkaria. 1933ko urriaren 25ean. Anastasioren kronika.

## Lezoko herri mugimendua XX. mendean

antzerkigile ospetsuak honako hau esan zuten, euskal antzerkiak zuten rolari buruz:

*“(...) es hora de que en las obras vascas no se fíe al patriotismo del público el éxito de aquellas, sino que se procure obtenerlo mediante el concurso de cuantos medios ofrece el arte para el mayor esplendor de las representaciones dramáticas”.<sup>79</sup>*

Hedabideak gutxiago, eta eraginkortasunari dagokionez apalagoak ziren garaiotan, antzerkiak herritarren interesa biltzen asmatu zuten. Kroniken esanetan, arrakasta handia izaten zuten emanaldiek:

*“Igasitako igandian iragarri nuanez, egin zan gure batzokiko aretoan lenbiziko antzerki jai polit pat. Jai au ikusteko zaletasuna ba zagola ederki ikusi zan bertan bildu zan jendeakin bada aretoaren neurria betebetea egon zan. Antzerkilariak yayo egin zuten beren egitekoa, eta ore-gatitik oso txalotuak izan ziran.*

*Datorren igandian ontan, izango da bigaren antzerki jai, eta antzestuko dituzte “Aldiz aldiz” eta “Gibel aundi” egintza batekoak.”<sup>80</sup>*

*“(...) Antzergileak baño antzerkigile ziruditen antzergile gazte yayoak, bai ben-benetako lana egin ere. (...) neurritik gainezka parra egin zuan an bildu zan jendeak eta berak uste baño lenago amaitu zitzaizen jai au. Bazeok, gogoa ementxe!*

*Oso ederki, Alberdi ´tar Martin, Egibar ´tar Julio, Salaberria ´tar Rikardo, Arriaga ´tar Patrizio, Agirre ´tar Bizente, Salaberria ´tar Zelestino, Azku ´tar Prantzizka ta Brijida, Isasa ´tar Iñaki, Retenaga ´tar Gilermo, Berasarte ´tar Jon, Askasibar ´tar Benjamin eta Azkue ´tar Erramuna. Zorionak anelka, mutil eta neskatil aberi (...)”<sup>81</sup>.*

Ez ziren antzez talde guztiak lezoarrak ordea, kanpotik ere etortzen baitziren batzokira, Donostiako Euzko Etxekoek egin zuten bezala<sup>82</sup>.

<sup>79</sup> Patri Urkizu eta Juan Agirre Sorondo: “Teatro y cine Vasco” (Toribio Alzaga, “representaciones euskéricas”. Euskal Erria, T.LXV,1912, 387).

<sup>80</sup> “El Día” egunkaria. 1931ko azaroaren 27an

<sup>81</sup> “El Día” egunkaria. 1931ko abenduaren 20ean. Anastasioren kronika.

<sup>82</sup> “El Día” egunkaria. 1932ko maiatzaren 13an.

Euskal antzerkia, mendearen lehendabiziko herenean, euskaltzaletasunari eta abertzaletasunari loturik ageri zaigu, euskal berpizkundearen beste atal eta era berean tresna gisa. Antzeztu zituzten lanen artean, eta aipatutakoez gain, “bihar arte jai jai”, “utzi bearko”, “Iziartxo”, “gurutzepa”, amets gozoa” eta “xardo”, azken hau bakarriketa, daude.

Halabaina, eta Imanol Esnaolak bere “Lezoko euskararen historia soziala” liburuan aipatzen duenez, ez zen batzokian lantzen zena garai hartan ematen zen antzerki jarduera bakarra, izan ere eliza inguruan zebiltzan gazteek ere antzeppenak egin ohi zituzten, batez ere erlijio gaiak jorratzen ei zituztelarik.

Antzerkiak gain, jarduera politikoarekin zerikusia zuten ekintzak antolatzen zituzten batzokian: Hauteskundeak prestatu, propaganda zabaldu, eta abar. Aberri egunera joateko txangoak ere antolatzen zituzten:

*Datorren igande ontan Aberri eguna dala ta, emendik aldra polita joatekoak gara Bilbo´ko Urira.  
Berebil bategaz 28´enbat eta beste mordozka bultzian bidez<sup>83</sup>.*

Batzokian antolatu ziren ekitaldi gehienek atzean emakumeak izan ziren. Izan ere, Eusko Alderdi Jeltzalearen baitan emakumeen taldeek berebiziko garrantzia izan zuten alderdiaren baitango jardueren antolaketan. Alderdiko emakumeek bere talde propioa izan zuten, **EMAKUME ABERTZALE BATZA** izenekoa. Talde asko izan zuten Euskal Herriko herri ezberdinetan, eta Lezon indar handia izan zuten. Imanol Esnaolaren esanetan, EABren lanak gerra osteko abertzaletasunaren biziraupena ziurtatu zuen, frankismo garaiko mugimendu politikoaren protagonistetako batzuk haien altzoan ikasi baitzituzten abertzaletasuna eta euskaltzaletasuna.

Emakume Abertzale Batzaren jatorria mende hasierako **laguntza elkarteetan** aurkitzen da. Laguntza elkarte hauen bitartez behartsuei arropa, altzariak eta janaria helarazten zitzaizkien.

Jaio berria zen abertzaletasunera bildutako emakumeek, “**Ropero Vasco**” izeneko laguntza erakundea sortu zuten 1908an. Urte batzuk beranduago, eta **Eusko Gazteriak** taldearen eskutik, “**Begoñako Sorospen Bazorde Abertzalea**” sortu zen. Urte haietan estatuak ez zituen hiritarren beharrian premiazkoenak asetzen, ez baitzen existitzen ongizate estatua bezala ezagutzen dugun adminis-

<sup>83</sup> “El Día” egunkaria. 1932ko martxoaren 24an.

## Lezoko herri mugimendua XX. mendean

traziorik, eta talde politiko eta erlijiosoek sorospen talde propioak antolatzen zituzten, laguntza eta proxelitismoa uztartuz.

Bainan EABren sorrerarako mugarría Ambrose V. Martin O'Daly irlandar abertzaleak 1922an Bilbon emandako hitzaldia izan zen. Euskal abertzaleek begiz joa zuten irlandar mugimendu abertzalea, independentzia lortu berria zutenez gero, haren garapenak berebiziko interesa zuelako hemengo borrokari begira. Gerora Irlandako abertzaletasunaren eragin hau Jagi-Jagi mugimenduaren sorreran ere isladatu zen, talde honen sortzaileek mirespen handia adierazten baitzuten Irlandako mugimendu abertzalearekiko.

Esan bezala, Irlandako emakume abertzaleek bere talde propioa zuten, "Cumann na mBan" izenekoa. Hitzaldian bertan 50 emakume inguruk Euskal Herrian antzeko talde bat sortzeko konpromezuari heldu zioten.

Baina sortu eta urtebetera Primo de Riverak estatu kolpea eman eta taldea desegin zuen.

Errepublikaren ezarpenarekin, Eusko Alderdi jeltzaleak emakumeen boto esku-bidearen alde egin zuen; gogoan izan behar da eztabaida bizia piztu zela emakumeen boto eskubidearen inguruan, bai eta eztabaida paradoxikoa izan zela gogoratu ere. Izan ere, eta itxurazko logikaren aurka, kontserbadoreak (PNV barne) eskubide honen aldeko azaldu ziren, eta progresisten artean berriz, asko kontra azaldu ziren (PSOeko emakume feminista ezagun batzuk barne). Arrazoia zera zen: Sozialista eta komunistek uste zuten elizgizonek eragin handia zutela emakumeengan, eta haiak bozkatu ahal izanez gero, kontserbadore bozkatuko zutela. Hartara, eta hauteskunde bezperatan, anarkista eta komunistek hainbat eraso burutzen zituztela jakina da, eraso hauen helburu behinena emakumeengan izua sortu eta bozkatzera joan ez zitezen lortzea zelarik. Aipatu dugun bezala, errepublikaren ezarpenarekin taldea berrantolatu egin zen. 1931ko ekainaren 25ean Bilbon berrantolaketa prozesua abiatu zuten, zuzendaritza batzordea aukeratuta. Eusko Alderdi Jeltzaleak dauzkan datuen arabera, EAB batez ere Bizkaia eta Gipuzkoan antolatu zen, Nafarroa eta Arabako hiriburuetan ere izan zituztelarik talde eratuak. Errepublika garaian 20000 emakume izatera iritsi ziren, horietatik erdia baino gehiago bizkaitarrak zirelarik.

Monarkiaren amaiera 1931ko apirilaren 12ko hauteskundeetan eman zen; udal hauteskundeak izanagatik ere, monarkiazale eta errepublikazaleen arteko lehia izan zen gai nagusia, eta Lezon, monarkiaren aurkakoek zinegotzi akta guztiak lortu zituzten.

Milla pasata bederatzireun  
Ogeita hamaika urte;  
Jose<sup>84</sup> onekin lezoar askok  
Esperantza ona daukate;  
Bere fabore izandu giñan  
Eun da larogei botante,  
Nere partetik denbora askuan  
Izan dedilla alkate

Lezoko alkate aukeratua  
Izantzan Jose Gezala;  
Erriko pestak prestatu ditu  
Aspaldiyan ez bezela;  
Aurretik ere bagenekigun  
Ortan sayatuko zala;  
Gure Jaungoikoak urte askuan  
Onela kontserba dezala<sup>85</sup>

Garai honetakoa dugu Lezoko EABren sorrera. 1931ko udazkenean izen emate epea zabaldu zuten sortu berria zen Batzokian. Hasiera batetan 50 bat emakumek eman omen zuten izena, baina baziren gehiago ere, pausua emateko prest<sup>86</sup>. Azaroan sortu zuten taldea, barne egitura zehaztu eta arduren banaketa zehaztu zutelarik.

*Igasitako igande ontan, E. Abertzalekoak bildu ziran batzar bat egiteko.  
Bertan autatu zuten, artezkari batza edo (junta diretiba)(sic) eta ara nortzuk  
autatuak izan ziren:  
Lendakaria. Kortabarria ´tar Juanita.  
Diruzaya: Azkue ´tar Prantziska.  
Idazkaria: Garbizu ´tar Benita.  
Ordezkarriak: Isasa ´tar Akelina, Korta ´tar Manolita eta Salaberria ´tar Juanita.  
Zorionak eta aurrera aberria indartu dezagun<sup>87</sup>.*

Aipatu dugu emakumeek berebiziko garrantzia hartu zutela errepublikaren garaian. Bozka eskubidea izaki, haien parte hartzea sustatu nahian zebilen EAJ, izango zuten eraginaren jakitun.

*Emakume abertzale abek jardun dioten lanari begira pozez gaude.  
Beronen lanerako jaikierak, bedatx baten gañeko lore zuri-gorri bat artuta  
Euzkadi ´ri eskeintzen diotela dirudi, eta beronen maitasun sutsuak laister  
argituko ditu aberriaren lauso lodienak.*

<sup>84</sup> Jose Gezala, alkate hautatua.

<sup>85</sup> Bertsuak Lezoko Mendiyan Gañian Jariyak. 1931 urtea.

<sup>86</sup> "El Día" egunkaria. 1931ko azaroaren 19ko kronika.

<sup>87</sup> "El Día" egunkaria. 1931ko azaroaren 27an.

## Lezoko herri mugimendua XX. mendean

**Espainiako lege berritze ortan**, erikeran len gizonak daukan eskubidea berdin berdiña emakumeari eman diote eta bidezkoa dute bakoitzak, berak dezaken al guztiakin aberria ´ren alde lan egitea.  
 ¡Emakumeak, lapikoari **ez ezik**, begiratu erikerazko arazotan, gure ondatsunari, guk maite degun aberriari, biarko zoriona onengan daukagu eta! Jaiki eta aurrera artu dezuten zuen lan ortan JELen ikurritzpean<sup>88</sup>.

EABkoen eginkizunen artean denetariko ikastaroak antolatzea zegoen: Erizaintza, haurzaintza, eta abar. Lezon buru belarri aritu ziren eginkizun haietan, eta 30 ume inguru bildu zituzten **Umetxoan Batza** deitu zioten taldean. Hauek meza ixil bat deitu zuten, “*bildutako txindi apurrakin*”, Sabino Arana Goiriren gorazarre<sup>89</sup>.

*Aberri egunean eta, hizlariak etortzen ziren honera. Hitzaldiak egiten ziren. Ta gero balkoietan eta kolgadurak jartzen ziren. Ikurriñekin eta gure etxean egoten ziren bi balkoiak lorez adornatuak, eta batean emakumeen eta gizasemeen ikurriñak (diferenteak baitziren), eta bestean berriz, **mendigoizaleena** eta **umetxoena**. Umetxoek ere bazuten berea, Eli Salaberria pintorearen semea ta gure Polentzi ziren jaunikiak buruak<sup>90</sup>.*

Irakaskuntzari dagokionez izan zuten erronka nagusia, berriz, Miren Gezalaren ikastola izan zen. Gero arituko gara horretaz.

Horretaz gain, literatura eta kazetaritza ere lantzen zituzten, eta alderdiaren baitango azpiegitura lanak ere burutzen zituzten (mitinak prestatzea,...). Lezon izan zen haiek antolatutako hitzaldirik ere:

*Igazko igande ortan, Emakume A.k, eratu ziguten itzaldi bat gure batzokian, emakumetan izlari azkarrena dan Urzelai ´tar Julite bidez.  
 Urretxindor bots-zoila zerion bere itzaldi arek entzule idorrenari ere; biotza ikutu arazi zion eta baita begiak malko-tantoz busti ere. Zorionak Julite, eta jarrai aurrera, ortarako adin aro onenean zaude eta<sup>91</sup>.*

<sup>88</sup> “*El Día*” egunkaria. 1931ko azaroaren 13an.

<sup>89</sup> “*El Día*” egunkaria. 1932ko ekainaren 21ean.

<sup>90</sup> Miren Gezalari Imanol Esnaolak egindako elkarrizketa. *Lezoko Udal Artxibo Historikoa*. 1998 otsailak 4.

<sup>91</sup> “*El Día*” egunkaria. 1932ko maiatzaren 13an.



Irakaskuntza arloa izan zen beren eginkizun nagusia. Euskararen irakaskuntzan aintzindari izan ziren, eta **Euzko Irakasleen Batza** izeneko taldea sortu zuten, euskara irakasleak trebatzeko xedez. Gainera, ikastolen sorreran parte hartze garrantzitsua izan zuten, hartarako **Euzko Ikastolen Batza** sortuaz.

Beste horrenbestetan zebiltzan Lezoko EABkoak; baina ez bakarrik euskararen irakaskuntzan, Lezon erlijio eskolak ematen ere ibili baitziren:

*Egunero, ordu bat edo, beren zainpean, dakazkite kristau ikasbidea irakasteko ume talde bat. Guraso askok bidaltzen dituzte, beren umeak batzokira emakume auen ikastaroetara, ta emakume abertzale abek maitasun beroz artzen dituzte kristau ikasbide ori irakasteko ume oiek<sup>92</sup>.*

Ikus daitekeenez, hamarkada batzuk beranduago, Frankoren diktadurapean, Euskal Herriaren berreraikuntza eta biziraupen prozesuaren zutabe izan ziren alorretako batzuetan aintzindari izan ziren Emakume Abertzale Batzakoak<sup>93</sup>, irakaskuntza eta euskara alorretan kasu.

<sup>92</sup> "El Día" egunkaria. 1932ko urtarrilaren 16ean.

<sup>93</sup> Emakume Abertzale Batzari buruzko datuak EAJ-PNV alderdiaren web orritik lortuak dira.

### 2.3 KATOLIKOAK ELKARREKIN EDO ELKARREN KONTRA

**A**zken karlistadaren amaieratik, fedea bere ideologiaren ardatzetako bat zutenen artean banaketa ugari egon zela esana dugu.

Karlisten arteko banaketak, integristen eszisia, integrista eta tradizionalisten arteko liskarrak, karlista izan zen herriaren abertzaletzea...

Errepublikara garaian laiko ez zirenen "lubakian" beste eten bat izan zen. Zatiketa honen ondorioz, abertzaleak eta integristek bide kontrajarriak hartu zituzten betiko.

Lizarrako estatutu proiektua izan zen azken batasun saioa. Primo de Riveraren diktadura eraitsia, eta monarkia kinka larrian zela, mugimendu ugari zegoen esparru politikoan, zetorrenari begira nork bere tokia hartu nahian. Katalunyan ez bezala (bertako autonomista eta abertzaleek Donostiako hitzarmenean<sup>94</sup> adostua zuten errepublikarrekin, berau aldarrikatuz gero autonomia onartuko zitzaizela), Euskal Herrian ez zegoen ziurtatua autogobernua. "Eusko Ikaskuntza" erakundea izan zen Estatutua taxutzeko ardura izan zuena. Estatutua diseinatzeko prozesuak 1930eko udazkenetik 1931ko maiatzera arte iraun zuen. Erreparatu datei, izan ere bitarte horretan (1931ko apirilaren 12an) hauteskundeak izan ziren: errepublika ezarri zen, eta mapa politikoa argitu egin zen hego Euskal Herrian. Abertzaletasun katolikoa eta ezker nagusi Gipuzkoa eta Bizkaian, eta katoliko eskuidarrak nagusi Nafarroa eta Araban. Banaketa honi erantzun nahian, estatutu proiektuak guztiak asetuko zituen mugak ezarri zizkion bere buruari. Gainera, herrialdeko kudeatzaile errepublikarrek ezarriak zituzten jada bere muga propioak. Katolikoek beldurrez ikusten zuten estatu mailako testuinguru politikoa: Ezker oldartuta, maiatzaren 1ean izandako komentuen erreketak,...beraien arteko batasuna beharrezkotzat zuten. Nolanahi den ere, Lizarran onartu egin zen estatutu proiektu hau, Euskal Herria eta Vatikanoren arteko konkordatu (eta konkordatu egiteko eskubidea, noski) onartzen zuten enmendakina (eta beste hainbat) gehituta. Lizarrara bildutako ordezkariak udalerrir mailakoa izan zen, eta estatutu honen aldeko, 427 udalerrir azaldu ziren (guztira 529 ziren)<sup>95</sup>.

Gerora gerran etsai amorratu izan zirenak, batera joan ziren estatutuaren defentsan. Askok izan ziren proiektu honen alde egin zutenak:

<sup>94</sup> 1930ko abuztuaren 7ko hitzarmena, errepublika ezartzearen aldekoen artekoa.

<sup>95</sup> Idoia Estornés Zubizarreta. "La construcción de una nacionalidad Vasca. El autonomismo de Eusko-Ikaskuntza 1918-1931". Eusko Ikaskuntza, 1990.

*Nuestro derecho -el de la autonomía- es muy anterior a la Constitución del Estado Español. Bendita esta corriente salvadora que ha hecho unir a las cuatro provincias y se considera nuevamente llamada a la vida; exige el reconocimiento de su libertad política...<sup>96</sup>.*

Testuinguru honetan eman zen katolikoek arteko batasuna. Madrilera, proiektua defendatzera, "Minoría Vasco-Navarra" deiturikoa joan zen, tartean Pildain lezoarra izan zelarik. Lezon abertzaleak ziren nagusi, baina baziren integrista eta karlistak ere. Ugariak izan ziren hauteskundeetara batera joateko mezuak, bai eta katolikotasuna defendatzearen aldekoak ere.

*(...) Katoliko guztiak batean presentatu bear luteke gure erri maite au aurrera ere fededuna izan dedin.<sup>97</sup>*

*Euzkadiko semejatorrak egin bear aundia dauka igande ortan bere erria eta bere ondasunak betiko galdu nai ez ba' ditu. Ez goaz monarkian eske, monarkia izandako Euzkadi' rentzat arerio andiena. Gu goaz Euzkadi gure Ama, askatzera, gure lurak guretzat eskatzera eta madrileko gizon aiei gure burujabetasuna eman diezaguten eske, gaur emen autatu edo elejituko ditugun euzkeldun jaun agurgarri aben bidez. ¿Nor dira gizon abek? Pildain jaun gure erkide gizon argi eta ospetsua, lenbiziko eta Urkijo, Pikabea ta Leizaola (...)<sup>98</sup>.*



Pildain. Lezoko Fototeka.

Lezoko Antonio Pildain izan zen batasun katoliko honen hautagaietako bat. 1931tik 1933ra arte izan zen parlamentari Madrilén. 1933tik aurrera, ez zen gehiago izango "minoría vasco-navarra"-rik.

Bere hitzetan argi ikusten da ezberdinen arteko batasunak izan zuten indarra, fede katoliko komunak alde batetik, eta ezkerraren oldartzeari ziztaion beldurak bestetik, eraginda.

<sup>96</sup> Marcelino Oreja diputatu karlistaren hitzak. 1931ko ekainaren 12an Gernikan egindako hitzaldia.

<sup>97</sup> "El Día" egunkaria, joera abertzalekoa. 1031ko martxoaren 13an.

<sup>98</sup> "El Día" egunkaria. 1931ko ekainaren 26an.

## Lezoko herri mugimendua XX. mendean

*“Vascos, compatriotas míos, aquí tenéis a este pobre sacerdote un tanto emocionado por la grandiosidad del momento, confiado por vuestro entusiasmo. Me habéis elegido diputado para que defienda el **Estatuto de Estella**, que podrá resumirse en la facultad para que los euskaldunes podamos entendernos directamente con la Santa Sede, con independencia absoluta del Estado español y de todos los gobiernos españoles.*

*Mañana saldremos para Madrid mis compañeros y yo no a pedir ni a mendigar. Se acabaron ya los tiempos vergonzosos de las mendicidades afrentosas. No iremos como fueron otras veces diputados vascos a pedir al gobierno español miserables concesiones. Vamos a exigir, reclamar, a reivindicar lo que es nuestro: las facultades que, como programa mínimo, están contenidas en el Estatuto aprobado en Estella, que arrancaron de la plena soberanía para que vosotros podáis negociar directamente con la Santa Sede.*

*Vamos a reivindicar, sobre todo, esa facultad en nombre de nuestra libertad racial y en nombre de nuestra libertad religiosa...**porque no estamos dispuestos a dejar nuestro culto católico en manos del primer poncio, más o menos Pilato, que venga a arrojar a nuestro obispo. Vamos a reivindicar nuestra libertad religiosa, porque no estamos dispuestos a entregar nuestro culto en manos de esas hordas que incendian bárbaramente, más que africanamente, porque en esta ocasión, el África empieza en Madrid.***

*Vamos a reivindicar esa facultad, vamos a reclamarla, y creo oportuno recordar, para que se enteren bien los que están obligados a ello, que las Cortes de Navarra y las Juntas Generales concordaron con la Santa Sede sin ninguna intervención del Gobierno Español. **Y los vamos a reclamar así, en nombre de nuestra democracia vasca, que ha servido de modelo a constituciones como la inglesa y la norteamericana. En nombre de esa democracia y de la libertad del pueblo euskaldun, que están sobre todos los parlamentos habidos y por haber.***

*Que nos se venga diciendo ahora que esas facultades son inalienables de la república y del Estado español. Yo creo que Alemania y Suiza son repúblicas tan bien organizadas como la española: y Alemania concedió a Prusia y Baviera la facultad de concordar libremente con la Santa Sede, y Suiza concedió la misma facultad a Friburgo. Si en el parlamento surge un Romanones o cualquier otro claudicante para decir que no podemos concertar fuera de las normas que establezca la república, le diremos ¡que para su abuela!*

*Que tenga el gobierno la gallardía de decir, pero claramente, que no se nos concede lo que pedimos y nosotros responderemos que los millares*

*de hombres aquí congregados, y muchos mas que están ausentes, están decididos a implantar sus leyes y a restablecer sus derechos”.*

*Clavó la vista en el Señor Aguirre, y dice:*

*Somos la Irlanda de occidente y ya tenemos a nuestro O´Connell que nos levanta ¡Aquí le tenéis! Es inteligente, es aguerrido y simpatiquísimo:*

*Jose Antonio Agirre<sup>99</sup>.*

Errepublikak ez zuen onartuko estatutu hau; mugak ezarri zizkion, eta abertzale eta eskuin tradizionalaren arteko lehiak azaleratu zirenez gero, estatutu proiektuak indarra galdu zuen. Gerora abertzaleek eta errepublikazaleek adostu zuten estatutua jada ez zen eskuindarren gogoko izango, 1931 ean batera joan zirenak betiko aldenduaz. Lubakiak beste batzuk izango ziren aurrerantzean.

<sup>99</sup> Lezo 3. 1989ko iraila. (5,6,7 orriak.)

## Lezoko herri mugimendua XX. mendean

### 2.4 ABERTZALE ETA EZKERTZALEEN ARTEKO LISKARRAK

**E**zkerraren mundu ikuskera ametsgaiztoa zen elizkoientzat; etzuten gogogoko ez elizak, ez tradizionalistek, ez kontserbadoreek, ez Jelkideek. Azken hauen kasuan, beldurra bikoitza zen: Ezkerrak zekarren laizismoa, eta orohar zuten jarrera espainiarzalea (ANVkoak salbu).

Aipatu dugu mende hasieran mundu berriarekiko erresistentzia aldarriak ugariak izan zirela. Errepublika garaian, eta ezker hartzen ari zen pisua ikusita, berriz plazaratu ziren kezka hauek:

*Emen ez baidegu beste toki askotan bezela “a la mora” bizi nai<sup>100</sup>.*

“A la mora” bizi nahi zuten haiek, berriz, Jelkideak bikaristatzat zituzten.

*“Badegu beste “txotxolo” baten berria ere. Emen dabil emengo Jeltzaleak, bikaristak garela esanaz. Poliki, zu, zirtzil ori. Gu ez gara bikaristak, Euzkadi’ko semeak baño (...).*



“Centro Republicano”-ren egoitza.  
**Lezoko Fototeka.**

Lezon abertzaleak nagusi baziren ere (1933ko azaroko hauteskundeetan EAJK 614 bozka lortu zituen, %69,53a), mugimendu errepublikarrak ere bazuen jarraitzaileak. Bere egoitza propioa zuten, Donibane kalean. **CENTRO REPUBLICANO** zuen izena.

Lehenengo solairuan zegoen, eta ezkenatokia zuen antzezpenak, hitzaldiak eta beste eskeintzeko. Taberna ere bazuten. Urtero egiten zituzten ekitaldien artean, errepublikaren eguna ospatzearena zegoen, apirilaren 14ero.

<sup>100</sup> “El Día” egunkaria. 1930eko ekainaren 11ean, pazku eguneko ospakizunen karira egindako kronika.

Centro republicanoko Insausti ezaguna zen herrian zuen elizaren aurkako jarrerarengatik. Barre egiten zion Santo Kristori egiten zitzaion gurtzeari, eta jarrera hori ez zen nolana hikoia, elizak eta Santo Kristoren irudiak garrantzia izugarria zuten garaian.

Errepublikarren egunkaria “La Voz de Guipuzcoa” zen, eta ugariak ziren egunkari hau eta abertzaleen “El Día” egunkariaren arteko liskarrak.

*Auteskundeak erria zuzendu bear duten gizonak autatzeko egiten dira, eta gu euskaldun ta sinismena dugunak “hipocresia”ren gañetik erlijioa eta gu bizi geran erria maitatu ta gogo batekin aldeztu bear ditugu, eta “la voz” (...) euzkotar danen etsai amorratu oiek dituzten gizon “demokrata” oieri, jaramon gutxi egin<sup>101</sup>.*

Rosi Garcia Lizarragak dioenez, umeez borrokak izaten zituzten politika aferak zirela medio. Eta umeez gain, gazteek ere izaten zituzten beren enkontruak. Iturri batzuen arabera, errepublikarrak kexu ziren jaietan ikurriña altuago jartzen zelako errepublikar bandera baino<sup>102</sup>. Beste iturri batzuen arabera berriz, mendigoizaleek ikurriña jarri behar izaten zuten, bandera errepublikarra baino jartzen ez zela eta<sup>103</sup>...zaharrak berri, honetan ere.

Abertzaleek arrea zieten errepublikarrei, antiklerikal eta ezkertiar zirelako, baina baita haietako hainbaten jatorriagatik ere:

*“¡Errikideak! Kontuz ibilli “Z”-kin bukatzen diran “apellidu” oiekin baita elizan ezkerreko ankakin makurtzen diran oiekin ere<sup>104</sup>.*

Abizena zen jatorriaren erakusgarri, eta jatorriaren arabera izango zen norbanakoaren jatorrasuna, jatorriak eragin zuzena zuelako joera politikoan. Eta joera politikoaren arabera izango zen, jatorrasuna.

<sup>101</sup> “El Día”, 1933ko martxoaren 10ean

<sup>102</sup> Rosi García Lizarragari egindako elkarrizketa.

<sup>103</sup> Imanol Esnaolari Melintton Garmendia eta Joxe Migel Trekuk kontatua.

<sup>104</sup> “El Día” egunkaria. 1931ko martxoaren 24ean.

## Lezoko herri mugimendua XX. mendean

Errepublikarrek langilegoaren eskubideak defendatzen zituzten, baina Jelkideek ere bazuten bere sindikatua ere.

Patri Urkizuk bere “Zoazte hemendik!” liburuan deskribatzen duenez, langile mugimendua Erreterian zegoen antolaturik batez ere. Hala ere, Lezon bazuen ere ordezkariak. Bai errepublikarren sindikalismoak, bai abertzaleenak ere.

ELAren kasuan<sup>105</sup>, burutzen zituzten ekintzan denetarikoak ziren: Laguntza kuxkak, aldarrikapenak, kontsumo kooperatibak, eta abar. Lezon ere izan zen kooperatiba sortzeko egitasmoa: Patri Urkizuk bildutako datuen arabera, Erreteria, Oiartzun eta Lezoko ELAkiek sortu zuten, baina gerraren ondorioz bertan behera geratu zen<sup>106</sup>. Alhondiga ondoan jarri zuten, eta ez zen herriko hainbat jautxoren gustoko ekimena izan. Batez ere, denda zutenen partetik harrera txarra egin zitzaion ekimenari. Gerra ostean, Urkizu ekimenaren bultzatzaileak herbesterako bidea hartu behar izan zuen, besteak beste, hura bezalako ekimen “gorriak” martxan jartzeagatik<sup>107</sup>.

Patri Urkizu Maritxalarren bertso hauetan ageri zaigu borroka sindikalaren existentzia Lezon<sup>108</sup>:

Guitet konpaini franzezia	Errepublika egon arren
Lana egiten nuan	Orduan agintzen
Lan zari ta legeberritzen	Eusko langilleentzat
Nabillen orduan	Etzan erraza ondo ateratzen
Ez nere borondatez	Jurado mistorako
bainan bearra zegonez	Epaitzaren bildurrez
nagusi langille arteko	Patronalian jokatu gendun
zindikatuaren bitartez	Gure alkar izketa.

Kontutan hartu behar da ordurako Lezok bazuela kontutan hartzeko industria multzoa: 1930ean bi kimika enpresa, lau zurgintza enpresa, bi papergintza enpresa, bi metalurgia enpresa eta kautxoa lantzen ziharduen enpresa bat zeuden Lezon<sup>109</sup>.

<sup>105</sup> Luis Gezala izan zen Lezon idazkari eta sortzaileetako bat.

<sup>106</sup> Patri Urkizu: *Zoazte hemendik!*. *op. cit.*

<sup>107</sup> Mari Kruz Urkizuri egindako elkarrizketa.

<sup>108</sup> “Nire azterketa 1910etik 1973ra” bertso bildumatik.

<sup>109</sup> Gotzon Garmendia Amutxastegi eta Alaitz San Roman Uranga: *op. cit.*



## 2.5 EUSKALTZALETASUNA. IKASTOLA

**A**ipatu mugimenduez gain, euskaltzaletasuna ere bizi bizirik zegoen Euskal Herrian.

XIX. mendearen bukaeratik zetorren mugimendu euskaltzale sendoa, eta Lezon ere bazegoen horretara lerratuta zegoen bizilagunik ere.

*(...) Euskaltzaleak bazkun onetan bost kide bakarrik gaudela erri ontan jakiteak...¿egunero xentimo bat eman ez lezaken gazte ta zar, ba ote daukagu txoko ontan? ¿Egunero xentimo bat gure Ama Euskeraren alde eskatzea aztuna egiten zaigu ba?<sup>110</sup>*

*“Orretarako zu, euskaldun anai, Euskeltzaleak elkarteko bazkide bear zaitugu, ta ia zurekin batera, zuk ainbat egiteko asmoz, zenbat ekartzen dizkiguzun.*

*¿Zer? ¿Asmo oiek guztiak ez al dizute ba biotzik ikutzen?¿ Eguneko xentimoa ukatuko ote diozu Euskera ta Euskelerriari?¿Ez ote diozu onenbeste opa Euskel-Jakintzari?*

*Ori naikoa dezu ba Euskeltzale izateko.*

*¡Biotz beroa, lagundu naia...ta egunero xentimoa (3,65 urteko)!!!  
Zure euskel gogo zabal eta zindoa erakus zaiguzu, bazkide txartela bete ta bialduaz!”<sup>111</sup>*

Urtero Euskal herriko herri ezberdinetan antolatzen ziren euskal jaietarako diru bilketak egiten ziren, bai eta txangoak antolatu ere. Diru laguntzak eman zituztenen izenak argitaratuak ziren, gainerako euskaltzaleen laguntza sustatzeko edo:

*Bergaran degu aurten euskal eguna, ta oroituz beretaz euskotar lezoarrak. Lenagore eskatu degun guztia eman dezutela ez gera aztu, ta ia orain ere, guztion artean Lezo lotsagarri gera ez dedin, alegiñak egiten ditugun. Urrengo astean asiko gera, emantakoen erreskadak argitaratzen<sup>112</sup>.*

<sup>110</sup> “El Día” egunkaria. 1930eko uztailaren 25ean.

<sup>111</sup> Secretariado de Acción Popular Vasca. “Euskaltzaleak. Zertarako?”. 1930

<sup>112</sup> “El Día” egunkaria. 1930eko abuztuaren 23an.

Lezoko herri mugimendua XX. mendean



Euskaltzaleak ekimenaren propaganda kartela. Lezoko Udal Artxibo Historikoa. Iñaxio Artolaren bilduma.

(...) Tira ba, zerbait emateko gogoaz dezutenok, jeman bildurrik gabe mutillak!

Lengo erreskadaz gañera ona emen artu ditugunak:

Salaberria 'tar Anastasio 'k.....	5,00
Pagola 'tar Bonifazio 'k.....	5,00
Broste 'tar Atanasio 'k.....	5,00
Pikabea 'tar Joxe 'k.....	1,00
Garmendia 'tar Jose Luis 'ek.....	1,50
Gezala 'tar Urbana 'k.....	1,50
Lengoak.....	8,00
Guztira.....	2700 <sup>113</sup>

<sup>113</sup> "El Día" egunkaria. 1930eko irailaren 2an.

Aipatu dugu lehen EABren eskutik ari zirela ikastolak sortzen. Euskarazko irakaskuntzari bultzada eman nahi izan zitzaion, Primo de Riveraren errejimena osteko loraldi demokratikoan. Lezon ere euskaraz irakats zedin gogoaz bazegoen. Herrira irakasle berria iritsi zela medio, itxaropena piztu zen:

*Etxeberria ´tar Jon orain urren etorritako irakasle berria, il onetatik asi da irakasketan. Baita arratsetan mutill adiñakoai, negu aldiko ikasketak ematen ere. Irakasle gazte ta arduratsua da dirudienez Etxebarria jauna, **ta euskaldun abizenekoa dan ezker, ikasketa abek bere ardurapean dauzkan ikasleai, bere elari dagokion eran irakatsiko balizkie, ja zer nolako mutilla izango litzaken!**<sup>114</sup>*

Izan ere, euskararen egoera ez zen batere xamurra irakaskuntzan. Ikastolak lege mugetan ibili ziren, baimenak gora eta baimenak behera.

*Elebitza gure ikastoletarako eman dizaizkiguten, ortarako Madril alderuntz joanak dira bazkun orretako jaun agurgarriak (“Euskaltzaleak” taldekoak), ta uste degunez erkadar agintean dauden gizon ´arengandik, zeatz lortuko dutelako baikor andiakin dabilta, euzkotar biotzdun jaun agurgarri oroek<sup>115</sup>.*

Lezon, Miren Gezalak jarri zuen ikastola. Legezko adina bete arte irakasle jardun ezinik zebilela eta, bere kabuz eskola antolatzea otu zitzaion, horretarako bere osabak zuen lokal bat baliatuta. 1930ean zabaldu zuen, gaur egun Arrutitarren denda den hortan. Plazan bertan, zubitxo kaletik gertu. Miren Gezala abertzale sutsua zen, jeltkidea. Gurutzea paretan jarrita ematen zituen eskolak, eta erlijiozaletasun horrek herriaren onespina balio izan zion.

*“Zuk emen gurutze donearen alboan gaur jarrita umetxoakin daukazun kabi edo txaloa Lezoko erriak ematen ez dizun bitartean, ez naiz aseko. Zu izan zera etzai askoren gañetik ikastetxeko ormatik gurutzea zintzilik ezarri dezuna. Zu izan zera umetxoai beste ezer baino len Jaungoiko eta gurutzegun bildurra izaten erakutsi diozuna; ta zu zera gaur egunean Lezoko ikastetxetan zaudezten emakumerik pizkorrenetako bat: Jakinduriaren zaña Jaungoikoaren bildurra izatea dela uste det eta”<sup>116</sup>.*

<sup>114</sup> “El Día” egunkaria. 1930 azaroaren 23an.

<sup>115</sup> “El Día” egunkaria. 1931ko maiatzaren 6ean.

<sup>116</sup> “El Día” egunkaria. 1932ko maiatzaren 3an.

## Lezoko herri mugimendua XX. mendean

Gerra arte iraun zuen ikastolak. Bera EABkoa zen, batzokian asko ibilitakoa, eta irakaskuntzaz aparte, antzerki eta dantza kontutan ere ibili zen.



Gerra aurreko ikastolaren egoitza.

Ikastolaren aurretik, hogeiko hamarkadan, Agustina Lizarazuk eskolaurea izan zuen kale Nagusiko 10.ean. Haurtzaindegi lanak egiten zituen, eta kristautasunaren dotrina ikasteaz gain, kantuak eta alfabetoa ikasten zituzten<sup>117</sup>.

Gaintxurizketako ume asko berriz Hondarribiko Lauaxeta baserriko eskolara biltzen ziren; Pepita Legorbururen esanetan, bertan dotrina eta oinarrizko hezkuntza baino ez zituzten ematen. Irakaslea Hondarribiko Beloki anderea zen (maistra Beloki). Hondarribia izan arren, Gaintxurizketa inguruko ume asko biltzen zen eskola horretara. Zaldun Bordara pasa ziren urte batzuren buruan, eta bertan neska mutilak batera ibili hasi ziren eskolak jasotzen.

Estatuaren eskolak 6 eta 13 urte bitarteko haurrak biltzen zituen, eta bananduta aritzen ziren neska-mutilak. Udaletxean ematen zituzten eskolak, baina 1924tik aurrera Pildain eskoletara pasa ziren, Inaxio Artolaren arabera<sup>118</sup>.

<sup>117</sup> Imanol Esnaola: *op. cit.*

<sup>118</sup> Imanol Esnaolak Inaxio Artolari egindako elkarrizketa.

Eskolak gaztelera hutsez egiten ziren Pildain eskoletan, baina herri euskalduna izaki, Frankismo aurreko etorkinen seme -alabek euskara ikasten zuten, kalean. Saiatu omen zen eskolako maistra ere, bizilagun erdaldun haiei inguru erdaldunagoa eskeintzen. Meza ere gazteleraz jaso behar zutela uste zuen, baina ez zitzaion erraza egin:

*Maestra re erdalduna, jakina, ta baten esan zion bikariuai (...) elizan etzula beiñe erdera itten,e ta zerbaitte in biarko tzala (...) bikariuak erantzun omen zion, (...) etortzen zian danak oso gutxi ezagutzen zian elizatikan (...) zuk ori nai baldin badezu, zuk hainbeste maitte dituzun kastellano oiek danak eliza ekarri, ta ekartzeituzunen ordun ingo deu erderaz (...)<sup>119</sup>*

Frankismoak dena aldatuko zuen.

<sup>119</sup> Imanol Esnaolak Inaxio Artolari egindako elkarrizketa.

## 2.6 ERREPUBLIKA

**1** 931ko apirilaren 14ean errepublika aldarrikatu zenetik, etengabekoak izan ziren gerra hotsak. Gizartea ezker-eskuin banandu zen inoiz ez bezala. Euskal Herria, Katalunya eta Galizan, afera nazionala zela medio, polarizazio horrek beste itxura bat hartu zuen.

Gerra urte batzuk lehenago sortu zitekeela ezin uka. 1932an, Jose Sanjurjo generalak estatu kolpea eman zuen Sevillan; kolpea eman zuenerako, general hau ezaguna zen jada, Primo de Riveraren estatu kolpean ere parte hartutakoa baitzen. Altxamenduak porrot egin zuen, baina abisua emana zegoen.

1934ean, eta CEDAko indar eskuindarra Lerroux errepublikarraren gobernuan sartu zela eta, PSOEK altxamendu ahalegina egin zuen Madrilan. CNTkoek ez zuten altxamenduarekin bat egin, baina Asturiasen, langile sindikatuen arteko bata-suna handiagoa zenez, matxinada zabaldu egin zen. Egun gutxi batzutan, 30000 langile armatuk eraso eman zuten Oviedon, Gijonen eta beste herri batzuetan. 15 egunez izan ziren erresistitzen, tartean, Pariseko komunan egin bezala, gizartea bere irizpide ideologikoen arabera antolatzeke ahalegina ere egiteraino.

Hamabost egun horien buruan, Yague generalak eta bere legionarioek, errepresio krudela erabilia, menpean hartu zuten matxinada. 2000 hildakotik gora eragin zuen altxamendu hark.

Hainbat historialariren arabera, Asturiaseko matxinadak bipolarizazio prozesua azkartu egin zuen. Kontutan hartu beharrekkoa da Asturiaseko langile matxinatuek armak, dinamita eta beste arma batzuk zituztela, mehategietan beharrezko lan tresna zirelako, eta altxamendu haren indarrak aberatsak ikaratu egin zituela.

Gipuzkoan ere, urte berean, langile altxamenduak eragina handia izan zuen, batez ere Arrasate eta inguruetan.

1936ean ezkerreko blokeak irabazi eta berehala jarri ziren martxan ezkeraren kontrako indarrak.

Honi guztiari krisi ekonomiko larria gehitu behar zaio. 1930etik aurrera, eta nazioartean emandako krisi larriarekin batera, industriaren gainbehera eman zen. Estatu espainolean ez zen Europa eta EEBBetan bezainbeste nabaritu krisi hau, baina nazioarteko merkatuetan bere gaiak saltzen zituzten enpresetan gogotik nozitu zuten merkatuen galera. Honek garapen demografikoa itxuraldatu zuen berriz: Inguruko herrietan aurreko hamarkadetakoa hazkundera baretu bazen, Lezon barealdi hau are nabarmenagoa izan zen<sup>120</sup>.

<sup>120</sup> Gotzon Garmendia Amutxastegi, Alaitz San Roman Uranga: *op. cit.* 36. orria.

## III. ATALA

# GERRA BERRIZ

## Lezoko herri mugimendua XX. mendean

Uztailaren 18an piztu zen Franco eta Mola buru zituen altxamendua; egun batzuk lehenago, Calvo Sotelo diputatu eskuindarra hil egin zuten PSOEren inguruko goardiek, egun batzuk lehenago falangek edo karlistek (ez dago garbi nork) hil zuten PSOEko kide baten hilketari erantzunez.

Egoera hauetan sarri gertatu ohi den bezala, aurrekariez gain, nabarmenak ziren kolpea eman nahi zutenen mugimenduak. “Fuerzas vivas” zelakoek bazuten zeozer prestatzen ari zen berri. Lezon, altxamenduaren alde egin zutenak Donibane kaleko etxe batetan biltzen ziren. Haien artean ziren Eusebio Garmendia Bikarioa, Erreterriako Carrera, Jose Juan eta Benito Intxaurrendieta anaiak, eta beste. Testigantza batzuen arabera, gerra piztu baino egun batzuk lehenago apaizak joan-etorri susmagarriak ere egin zituen, herritik hainbat egunez desagertzeraino. Nafarroako Amaiurrera joan omen zen, eta herrian, behin altxamendua piztuta, askok pentsatu zuten mugimendu arraro haiek bazutela altxamenduarekin zerikusirik.

Altxamenduaren aldeko indarrak Nafarroan eta Araban gailendu ziren arren, Gipuzkoan eta Bizkaian errepublikaren aldekoak ziren nagusi. Jelkideen jarrerak ere horretan lagundu zuen. Estatu osoan polarizazioak kale giroa erabat aztoratu zuen: Ezkerra nagusi zen tokietan elizak erasotuak izan ziren, komentuak kixkali egin ziren, eskuindarren jabetzak sozializatu ziren. Eskuina garaile atera zen tokietan, berriz, errepresioa krudela izan zen. Afusilaketak, espetxeratze eta torturak, errepublikazale ezkertiarren ondasunen lapurretak,...

Gipuzkoa eta Bizkaian, errepublika gailenduagatik ere, ez zen kale anabasarik izan: PNVren abertzaleak ziren nagusi, eta errepublikaren aldeko bai, baina ez ziren elizaren kontrako. Ordena soziala defendatzearen aldeko ziren, eta horregatik jabetza pribatua eta eliza ezkerraren erasoetatik defendatu zituzten, bai altxamenduaren osteko egunetan, eta baita gerrak iraun zuen bitartean ere. Kale giroa, beraz, oso bestelakoa izan zen, estatuko beste lurralde batzuekin alderatzen bada.

Gipuzkoan altxamenduak huts egin zuen, eta Donostian altxamenduaren alde agertutako matxinoak (militarrak batez ere, baina baita hainbat eskuindar ere) Loiolako koarteletan eta beste gune batzuetan gotortu ziren (Donostiako Maria Cristina hotelean, Udaletxean, eta abar). Milizianoek gogor ekin zioten gune horien aurka; eraso haien arrastoak eraikin haien paretetan diraute gaurdaino, Donostiako udaletxean kasu.

Matxinoen asmoa Nafarroatik sartzea zen, zehazki Bidasoa bailaratik, horrela Irun hartu eta Europarako atea bereganatzeko. Gainera, Donostian gotorturik zirauten kideak askatzeko asmoa zuten.



Erreketeak, Beorlegi generala buru zutela, bailaran behera abiatu ziren uztailaren 21ean, baina errepublikaren aldekoek Enderlatsako zubia dinamitatu egin zuten, eta Beratik aurrera errepublikazaleak zirenez nagusi, Oiartzunerako bidea hartu zuten. Beorlegi uztailaren 27an sartu zen Oiartzunen, inguruetan borrokaldi gogorrak izan ostean.

Enderlatsa eskuratzeko agindua Ortiz de Zarateren esku geratu zen, eta Beorlegik Donostia jarri zuen begipuntuan. Baina Donostiako kideek amore emana zutela jakin zuenean, Beorlegi Irun hartzeko lanetan murgildu zen buru-belarri.

Horretarako baina, eta behin Oiartzun eskuratuta, Erreteria erasotzeari ekin zioten. Beorlegi, Ortiz de Zarate, Los Arcos eta Diaz Duñabeitia erreketek eta falangisten buru zirela, eraso eman zuten, baina Erreterian erresistentzia handia kontrajarri zitzaion. Bertan langile mugimenduak indar handia zuen, eta milizianoek gogor ekin zioten errepublikaren defentsari.

Frankistak Erreteria inguruan zebiltzan, eta, karlistadaren garaian bezala, Lezo eta Erreteria arteko baserrialdea gune estrategiko bilakatu zen, bertakoen kaltetan. Darieta baserriaren inguruetan hil zituzten frankistek, 1936ko uztailaren 27an, Maria Oiartzabal Lekuona eta bere hiru seme: Domingo, Enrike, eta Sebastian Usabiaga Oiartzabal. Ezaguna denez, aita azendarako bazka bila joana zelarik, asalto goardiek ama eta hiru semeak topatu zituzten bertako inguruetan, eta semeak erreklutatu nahi izan zituzten. Haien ezetz esan eta ihes eginen saiatu ziren, baina harrapatu eta afusilatu egin zituzten. Ama afusilamendua gelditzen saiatu ei zen, baina labanaz erail zuten. Mutikoetako batek ikur abertzailea bat omen zeraman gerrikoan, eta bertan ere tiroa omen zuen, hilotzak ikusi zituzten lekuko arabera<sup>121</sup>.



Domingo Usabiaga, 1932an.  
Soldadutzako argazkia.

**Lezoko Fototeka.**

Uztailaren 28an Perez Garmendia indar errepublikazaleen burua harrapatu egin zuten frankistek; berehala Irunerako errepidean kokatu ziren, eta uztailaren 31ean Erreteriarri izugarrizko artilleria eraso egin zioten.

Donostiarako asmoak baztertuta beraz, Irun zuten helburu nagusi. Faxistei kosta egin zitzaion Irun bereganatzea; 45 egun igaro ziren, eskualdera iritsi zirenetik, Gipuzkoako bigarren hiria hartu ahal izan zuten arte; bitarte horretan, irundarrek bonbardaketa ugari jasan behar izan zuten, bai airez eta bai itsasoz, Velasco eta Almirante Cervera akorazatuetatik.

<sup>121</sup> Miren Gezalak *Orratz! aldizkarian*, 1993ko urriko 23. zenbakian. Hildakoak ikusi zituztenen artean Felix Arriaga kale garbitzailea dago; hilabete beranduago hilko zen bera ere, bonbardaketa batetan.

## Lezoko herri mugimendua XX. mendean

Nazionalak Irun hartu arteko hilabete t´erdi horretan Lezon gerra giroa izan zen nagusi. Centro Republicano-an, adibidez, Jaizkibelen zebiltzan milizianoentzat otorduak prestatzen ziren. Eguntako Erreterria eta Lezoren aurkako erasoaldietan, bomba batek goiko eliza jo zuen. Eusebio Garmendia apaizak “aviación bomba roja” idatzi zuen geratu ziren bonbaren hondarretan, eraso errepublikarrei egotzi nahian. Gernika gorriek erre zutela asmatu zuena ez zen, bistan denez, gerra garaiko gezurti bakarra izan.

Gerra pasadizo larriagorik gertatu zen, baina. Izan ere, abuztuaren 28an bomba bat bota zuten faxistek herrira. Felix Arriaga Zapirain berrogehi ta hamairu urteko kale garbitzailea, Esperanza Sein Garmendia hogeitaz bat urteko gaztea, bere iloba, Carmen Ginto Etxenike bi urteko haurra eta bi karabineo hil zituen bomba hark. Errepublikarrek Donibane kalean zuten egoitzaren ondora bota zuten bomba, eta eztaidaz gain, harrizko horma bat lehertu eta harri pusketek metraila lana egin zuten. Esperanza Seinen aurpegian nabarmen ageri ziren harri pusketek egindako zauriak. Bere hil kapera Oriotarra tabernan jarri zuten, eta aurpegia metraila hark egindako zauriez betea zuen.

Gainera, emakume batek zauriak izan zituen izterrean, eta herriko bizargileari hanka moztu zion bonbak<sup>122</sup>.

### IRUNDIK DONOSTIARAKO GERRA-BIDEAN, LEZO

Irun Irailaren 5ean erori zen, San Martzialgo bataila deitu zitzaionean. Ehunka herritarrek iparraldera jo zuten babes bila.

Frankistek muga kontrolpean zutelarik, begibistakoa zen Donostiarako bidea erraza izango zutela. Milizianoek lubakiak eta bunkerrak paratu zituzten faxistei aurre egiteko, Gaintxurizketako kaskoan eta Jaizkibelen. Hiru miliziano hil ziren eguntako borrokaldietan. Itsua baserria izan zuten gotorleku errepublikarrek; ganbaran egiten zuten lo, eta egongelan bulegoa zuten jarria, hiruzpalau idazmakinaz horniturik. Leihoetan koltxoak jarrita zituzten, bonbak gelditzeko<sup>123</sup>.

Argi zegoen Lezok ezin izango ziola eutsi, eta Garmendia bikarioak, aldaretik, faxistei ongi etorria egiteko deia zabaldu zuen. Mezaren ondoren, kasuilarik dotoreena jantzi, gurutzea eta estandarteak hartu eta Gaintxurizketara joan zen herriko agintari batzuekin batera, ume talde bat segika zuela.

Txatxamendin erreketek ume taldea atxiki egin zuten, herrian milizianorik ez zegoela ziurtatu arte. Hiru orduz izan zituzten preso, bitarte horretan sardina latak eta ogi zuria eman zitelarik jateko. Abertzaleak herrian geratu ziren elizak zaintzen, anarkisten erreko zituzten zurrumurrua zabaldu baitzen, eta azken

<sup>122</sup> Rosi García Lizarragari egindako elkarrizketa.

<sup>123</sup> Pepita Legorbururi egindako elkarrizketa.

unean baporea hartu eta Getariara egin zuten ihes. Faxistak irailaren 13an sartu ziren Lezon. Santa Krutz bezperan.

Udaletxean sartu, bandera errepublikarra eta Niceto Alcalá-Zamora presidentearen zein Indalecio Prietoren argazkiak leihotik behera bota, eta plazaren erdian erre zituzten. Bere aldeko zen Tiburzio Askasibar jarri zuten alkate. Ospakizunetan, airera tiroka ari zirela, Joxe Mari Larreta Intxaurrendieta zortzi urteko umea larriki zauritu zuen bala galdu batek: hilaren 15ean hil zen umea.

Harrapaketak eta txikizioak izan ziren nagusi ondorengo egunetan. Falanjeko buru eta herriko albaitari Miguel Salaberriak, adibidez, Gezalatarren pianoa hartu zuen beretzat. Gerraostean berreskuratu zuten pianoa Gezalatarrek, asko kostata<sup>124</sup>.

Errepublikarren alde agertu zirenek hanka egin zuten: Gezalatarrak Donostiara, Soraluzera, Bilbora eta azkenik Santurtzira joan ziren ihesi. Centro Republicano-ko presidente izan zen Jose Manuel Insausti Hermanin afusilatu zuten 1936ko urriaren 6an. Gogotik ordaindu zuen Insaustik errepublikaren alde adierazitako grina, bai eta elizaren zein Santo Kristoren aurka botatako biraoak ere.

Emazteari, gainera, bere lagun Fernando Lobatoren heriotza zigorra sina zezan exijitu zioten. Manoli Ormaburuk uko egin zion bere laguna salatzeari, eta esan zien nahiago zuela hil zezaten, laguna salatu baino<sup>125</sup>. Ihesean joan ziren beste hainbat lezoar, eta gehienak ixilpean bizitzera kondenatu zituzten.

Errepublikarren egoitza eta batzokia hartu egin zituzten; batzokia falanjisten egoitza izango zen gero, eta errepublikarren egoitza zentro sozial bilakatu zuten; herritarrentzat otorduak prestatzen zituzten. Amorruez gogoratzen du Rosi Garcia Lizarragak nola joan behar izaten zuten barazuri zopa hartzera bertara, beraien egoitza izan zenera.

Lezoar askok pairatu zituen gerraren ondorioak. Ez gainera alde bakarrekoak. Intxaurrendieta anaia karlistak eta Jose Miguel Salaberria Bilbon afusilatu zituzten errepublikarrek, preso zeuden barkutik indarrez aterata, hiria jasaten ari zen bonbardaketen mendekutan. 1937an izan zen afusilaketa<sup>126</sup>.

Frankistek udaletxeetan zeuden datuak baliatu zituzten errepublikar, abertzale eta anarkisten kontrako jazarpenean. Gerra karlistan bezalaxe, preso hartutako

<sup>124</sup> *Orratz! 23 zenbakia*. 1993ko urria. Miren Gezalari egindako elkarrizketa.

<sup>125</sup> Pilar Insausti alabak kontatua, *Oarsoaldeako Hitz*a, 2006ko uztailaren 27an.

<sup>126</sup> Pasarte ezaguna izan zen hura. Historikoki CNTko miliziei egotzi bazitzairen ere, eztabaidagai da historiarien artean, hainbaten ustez UGTko miliziak izan baitziren triskantza haren arduradunak. 200 presotik gora hil zituzten egun beltz hartan.

## Lezoko herri mugimendua XX. mendean

bizilagunen gaineko txostenak eskatu zituzten. Tito Labordetari buruz egindako txostenak zera dio:

*Miliciano voluntario a las órdenes del frente popular, requisó armas en el pueblo y luchó con entusiasmo a favor de los rojos, tomando parte muy activa en contra del Movimiento. Pertenecía al partido comunista y su actuación ha sido muy destacada<sup>127</sup>.*

Txosten hauek baliatuta, eta kasu batzuetan bizilagun batzuek gehitutako datuekin, akusazio idatziak egiten zituzten. Tito Labordetarenak honela zioen:

*Que el encargado Juan Labordeta Santos está afiliado al partido comunista, que en las elecciones del año 1936 intervino activamente y que durante el dominio rojo hizo propaganda marxista alistándose como miliciano voluntario, practicando registros, requisando armas y apoderándose de un coche propiedad de un falangista<sup>128</sup>.*

1940ra arte izan zen espetxeraturik<sup>129</sup>.

Bai gerra garaian eta ondoren, preso atxikitako errepublikarrak derrigorrezko lan batailoietan izan zituzten, obra publikoak egiten. Esklabu lanetan aritu ziren, batzuk urte luzez. Lan batailo horietako bat Itsua baserrian izan zen, Gaintxurizketako errepidea egiten zuten bitartean. Gainera, bunkerrak ere eraiki zituzten. Jaizkibelen ere errepidea egin zuten, bertan izan zelarik gerora buruzagi sindikal ospetsu izango zen Marcelino Camacho<sup>130</sup>. Gauez, baserrietako ganbaretan izaten zituzten preso, eta egunez lanean aritzen ziren<sup>131</sup>.

Gerra amaitu arteko urteetan Lezok ez zuen goserik jasan behar izan. Hala diote, behintzat, garai hura bizi izan zutenek. Gerra ostea izan zen gosearen garaia<sup>132</sup>.

<sup>127</sup> Orratx 53.

<sup>128</sup> Lezo Aldizkaria, 19. zenbakia. 1999ko maiatza. 68. orria.

<sup>129</sup> Askatu eta gero ere, eta Franko Donostiara uda pasan etortzen zenetan, komisaldegira joan behar izaten zuen lotara, beste hainbat herritar "susmagarri" bezala.

<sup>130</sup> Marcelino Camacho, CCOO sindikatuaren sortzaileetakoa.

<sup>131</sup> "Valle de los caídos" ospetsua ere horrela eraiki zuten. Esklabuak erabili zituzten, eta gero gerran hildako guztien oroigarri zela esan zuten. Horretaz gain, esklabuei bolondres deitu zieten.

<sup>132</sup> Javier Isasari egindako elkarrizketa.

Gizarte mailan, gerra aurretik tradizionalismoaren inguruan zebiltzanek hartu zuten herriko nagusitasuna. Udaletxea bere esku zuten, eta gizartean eragina zuten postuak ere bereak ziren. Albaitaria, medikua, apaiza... horiek denak Frankisten aldeko ziren. Gogoan izan behar da, gaur ez bezala, orduko gizartean postu horiek botere handia ematen zutela. Gerretan ohi den bezala, konkistatutako lurretan bere nagusitasun osoa ezarri zuten, modu basatian. Afusilamenduak, errepresioak, eta ororen gaisetrik, irain eta umiliazioak.

*“Ley de guerra, dura, viril, inexorable. Ha habido ¡vaya que sí ha habido! vencedores y vencidos. Ha triunfado la España una, grande y libre. Ha caído vencida, aniquilada para siempre, esa horrible pesadilla siniestra y atroz que se llamaba Euzkadi y que era una resultante del socialismo prietista de un lado y de la imbecilidad bizkaitarra por otro”.*<sup>133</sup>

Garaileek beren dotrina inposatu zuten. Abertzaleen eta ezkertiarren ikurrak desagertu egin ziren, haien jarduna erabat eten zen, eta kultur mailan ere ez ziren urte oparoak izan. Kontutan hartu behar da kultur eragile nagusienak, batzokia eta errepublikarren egoitza, desagertu egin zirela.

Geratu ziren talde bakarrak elizaren inguruan antolatzen zirenak ziren, eta hauek dotrina ikasteko eta otoitz egiteko baino ez ziren elkartzen. Gerra aurreko gainerako elkarteak ere desagertu egin ziren.

Irakaskuntzari dagokionez, ikastola itxi egin zen, eta eskola nazionala baino ez zen gertatu. Honek eten handi bat ekarri zuen euskararen transmisioan. Urte haietan oraindik familia transmisioa zen nagusi, baina urte gutxiren buruan, euskarak aitortza ofizialik ez zuela eta etorkin etorrera handia zirela medio, transmisio horrek ez zuen euskararen nagusitasuna ziurtatuko, euskara gazteleraren menpeko bilakatuz. Urte gutxiren buruan, familia transmisioa ere kolokan jartzeraino.

Eusebio Garmendia apaizarekin euskaraz hitzegiten zuten kalean, bai eta eguneroko gauzak aipatzeko orduan ere, baina eliza kontuei zegokienean, nahiago zuen gazteleraz hitz egin. Horretaz gain, oso zorrotza zen formei zegokienez. Bere bi arrebek “Usted” esaten zioten, hari zuzentzen zitzaizkionean. Euskaraz bazen, berorika, beti.

Errejimenak gogor ekin zion euskararen bazterketari, baina gune euskaldunetan oso sustraitua zegoen jakitun, onartu egin zituen euskara bitartezko hartu emanak. Hona hemen gerra garaian frankistek azaltzen zuten euskararekiko ikuskera:

<sup>133</sup> Jose Maria de Areilza, Bilboko alkate frankista. Albia koliseumean emandako hitzaldia, Frankistek Bilbo hartu zutela ospatzeko.

## Lezoko herri mugimendua XX. mendean

*Preocupación de toda autoridad debe ser el eliminar causas que tiendan a desunir a los gobernados. Y si esto debe hacerse en épocas normales, mucho más debe serlo en las anormales en que nos hallamos.*

*Para nadie es un misterio las diferencias que han existido entre algunas regiones de España y, sin meterme a analizarlas, sí considero de mi deber aprovechar estos momentos de convivencia en esta población de personas de todas las regiones para suavizar las diferencias y que, por la buena voluntad de todos, vayan fundiéndose en un exaltado amor a la madre España en apretado abrazo de sus hijos, hermanos de las diferentes regiones. Para ello, **uno de los mejores medios de demostrar esa compenetración de cariño y de idiomas es emplear el idioma común**, sobre todo cuando se dispone, como nosotros, de uno tan hermoso como el castellano para poder expresar lo mismo nuestros cariños de hermanos, como los enardecidos gritos guerreros propios de los momentos que atravesamos.*

*Como esto en nada indica menosprecio de los idiomas regionales, sino una exaltación patria que nos apiñe en las manifestaciones de nuestros entusiasmos, espero del patriotismo de todos contribuyan a ello, **sin que tenga que corregir resistencia alguna**.*<sup>134</sup>

Urtebete beranduago, 1937an, Euskal Herri osoa frankisten esku geratuko zen. Mendebaldeko gobernuak ez zioten laguntzarik eman errepublikari, Hitlerrek eta Mussolinik bai ordea Francori. Alde batetik, Ingalaterrako gobernuak ez zuen oso gogoko errepublika garaian izandako garapen iraultzailea, eta beste alde batetik ez zuten Hitlerren kontrako aurrez aurreko gerran sartu nahi. Gauzak honela, 1937tik aurrera nahiko garbi zegoen gerra irabazita zutela frankistek.

Gerra ostean izan ziren une latzenak. Bigarren gerrate mundiala hasi zen berehala, eta Espainia isolatuta geratu zen. Frankok Hitlerren aldeko jarrera azaldu zuen, eta honen ondorioz nazioarte mailan boikota egin zioten. Autarkia urteak izan ziren. Estatuak kudeatzen zituen janari banaketak, ekoizpen industrialak eta zerbitzuak. Biziraupen ekonomia izan zen, lehen urte haietakoak.

<sup>134</sup> Alfonso Velarde Gipuzkoako gobernadore militarra. 1937ko apirilaren 16ean.

### 3.1 GERRA OSTEA. ABASTOS

**A**utarkia eta gerra osteko ekonomia hark kontrola eta kudeaketa zorrotza behar zituen. Nekazariak bere ekoizpenaren zati bat estatuari eman behar zioten; udalburu eta zinegotziek esaten zuten ekoizle bakoitzak zenbat eman behar zuen. Lezon, horretarako, "abastos" izeneko azpiegitura sortu zen. Hasieran Tiburcio Ascasibar alkate frankistak kudeatu zuen, eta gero Aranjuelo falangistak hartu zuen bere gain "abastos"-en kudeaketa, bi betebeharrak zituelarik: Alde batetik, ekoizle bakoitzari ematea zegokion kuota ikuskatzea, eta bestetik baserrietarako ongarriak eskuratzea. Abastos izeneko hau Donibane kalean zegoen, botikaren parean; duela urte gutxira arte kartela hortxe izan da zintzilik.

Zinegotziek baserriarren lur sail eta ustiapenak ezagutzen zituztenez, bakoitzari ematea zegokiona zehazten zuten. 220 kilo babarrun ematera iritsi zenik ere izan zen; urteotan, kopuru handia zen hura<sup>136</sup>.

Primo de Riveraren garaian alkate izandako Aranjueloren semea zen Luis Aranjuelo, eta baserriarrek gogoratzen dutenez, lan handia egin zuen baserriarren alde.

Francok Hitlerren laguntza jaso zuen arren, ez omen zen hartaz fido; horren frogara lirake, Gaintzurizketa inguruan eta Irunerako bidean eginarazi zituen tunel eta bunkerrak. Eraikintzok preso errepublikarrek egin zituzten, bai eta, frankistek gerra ostean azaldu zuten, Hitlerren balizko inbasioa ekiditeko egin ere.

Zalantza dago ordea, ez ote zituzten egin gerrilarien eta aliatuengandik babes-tereko baina, behin Hitlerrek gerra galduta, ez ote zioten azalpen hori eman garai-leen aurrean Hitlerren kontrako itsurak egiteko.

Gerra amaituta, PSOE eta beste indar errepublikarrek aliantza osatu zuten, aliatuek Espainia inbadituko zuten esperantzan. Inbasio hori lortze aldera, eta aliatuek komunistei zieten gorrotoa kontutan hartuta, komunistengandik aldentzea erabaki zuten. Nazioartean baina, blokeen arteko logika inposatu zen. Sobietarren aldeko errejimen komunistak alde batetik, eta demokrazia liberalak bestetik.

Komunistek, bere aldetik, gerrilak antolatzeari ekin zioten; 1944ean hasi zuten gerra moeta hau, eta asmoa zera zen: ezinegona sortzea Espainiaren baitan, egonkortasuna eragotziz, eta aliatuen partehartzea erraztuz. Gerra ahalegin horrek porrot handia ekarri zion mugimendu komunistari. 15000 militante inguru galdu zituen saiakeran, eta bere jardunak, gainera, aliatuak izutu egin zituen.

<sup>135</sup> Mikel Salaberriari egindako elkarrizketa.

<sup>136</sup> Javier Isasari egindako elkarrizketa.

## Lezoko herri mugimendua XX. mendean

Urte gutxiren buruan, argi geratuko zen aliatuek nahiago zutela Frankoren diktadura, oposizio ezkertiarra baino. PNV saiatu zen, Estatu Batuarrekin zituen harremanen bitartez, haiek Frankoren aurka ekin zezaten, baina goi mailako interesek eragin handiagoa zuten PNVkoen eragin eskasak baino.

Sobietarrak ere ez ziren gehiegi saiatu; “elkarbizitza baketsua” zeritzon paradigma inposatu zen nazioarteko politikan: honen arabera, potentzia berriek eskuhartze militar zuzenak saihesten zituzten (ez beti), eta zeharka laguntza ematen zieten bere aliatuei, edo bere etsaien etsaiei.

Sobietarren ahaleginak bi helburu izan zituen: Frankoren errejimena NATO erakundean ez onartzea, eta Europako Komunitate Ekonomikoan onartua ez izatea. 1949an, NATO sortu zenean, Stalinek PCERI gerrilak alboratzeko eskatu zion.

Aipatu dugun bezala, autarkia urteak gogorrek izan ziren. Nekazaritza mekanizatu gabea zen, industria porru eginda zegoen, azpiegiturak birrinduta.

Marshall planak ez zuen Espainia kontutan hartu; Europa mendebaldearen berreraikitzea izan zuen helburu plan hark, batez ere, gerora Estatu Batuarrek onartu duten bezala, balizko iraultza komunistak ekiditeko. Eta Espainia, ez zen jada iraultzaren arriskupean. Bertako gendarme txikiak erabat menpeko zuen herria<sup>137</sup>.

Inflazioa handia zen, gosea eta arrazionamendua ziren nagusi<sup>138</sup>.

Autarkiaren ezaugarrietako batzuk: Estatuak zuzendutako ekonomia zen, eta ekoizpena, kontsumoa, prezioak zein merkataritza kontrolpean zituen. Atzeritik erositako produktu kopurua murriztu egin zen, eta kanpo inbertsioak enpresen kapitalaren %25era mugatu ziren. Espainiar kapitala zuten enpresei dirulaguntzak eman zitzaizkien bitartean.

<sup>137</sup> Historialari batzuren esanetan, hau izan zen hain zuzen ere Stalinek gerrilak desaktibatzeko arrazoiak: Mendebaldeko herriek Espainia laguntzen ez bazuten, errejimen frankistako elementu batzuk (antikapitalista aldarrikatzen zutenak bere burua), komunismoaren aldeko azalduko ziren. Gogoratu behar da falangea baztertu egin zutela, Francok izena hartu eta erabili zuela, karlismoarekin bezala. Falangeko buru izan zen Jose Antonio Primo de Riverak bere garaian ezkerri keinu batzuk egin zituen: Indalecio Prieto proposatu zuen gobernu buru, 1934ko matxinatuen arrazoiak goratu zituen, eta abar. Falangeak aldarrikatzen zuen izaera antikapitalista hori bilatuko zuen Stalinek, historialari hauen arabaera, Francoren aurka jartzeko. Horren adierazpen bat dugu falangistek 1951ko greban parte hartu izana.

<sup>138</sup> 1945ean, 1926an kontsumitzen zen haragiaren erdia baino ez zen kontsumitzen Espainian.



### 3.2 AUTARKIAREN AMAIERA. FRANKISMOAREN ONARPENA NAZIOARTEAN

A utarkiaren urteen amaiera, nazioarteko harremanetan emandako aldaketarekin batera etorri zen. Lehenengo urratsa Vatikanok eman zuen, espainiar estatuarekin sinatutako “concordato” –arekin. Elizak frankismoari nazioarteko atek zabaltzen zizkion harenbestez.

1953an EEBBek Espainiako gobernuari milioi bat dolarreko laguntza eman zioten, eta trukean EEBBek base militarrik jarri ahal izan zituzten Espainian. Isolamendua apurturik zegoen, eta Franco EEBBen gendarme bilakatu zen, mundan zehar zegoen beste diktadore anker askoren gisa.

1956ean Nazio Batuen Elkartearen onartua izan zen Francoren Espainia, oposizioaren azken itxaropenak zapuztuz betiko. 1957an, eta Nazioarteko Moneta Fondoarekin izandako negoziaketa batzuren ostean, Espainiako autarkia sistemari amaiera eman zitzaion. Espainiako gobernuan teknokratik gailendu egin ziren, eta merkatu ekonomia ezarri<sup>139</sup>.

Arrazionamendu eta autarkia sistemen bukaerak estatuaren kudeatze lana aldatu zuen. Eskuhartze zuzena baretu zen, eta enpresa pribatuen jardura libreari bide eman zitzaion. Gainera, kanpo kapitalari atek ireki zitzaizkion.

Lezoko “abastos”ek jada ez zuen nekazarien ekoizpena erosiko, estatuak finkatutako prezio batetan, eta ordutik aurrera nekazarien laguntzarako azpiegitura bilakatu zen. “**cámara sindical agraria**” deituko zen, aurrerantzean. Ongarriak ekartzen jarraitu zuten, eta nekazarien aseguru sistemaren kudeatzaile izatera pasa zen; urte haietan gizarte segurantz ez zegoen martxan, eta azpisektore ekonomiko bakoitzak bere sistema propioa garatu zuen: Kooperatibistak, nekazariak, bulegariak...bakoitzak berea landu zuen, estatuaren zuzendaritzapean. Ongarriak ekartzen jarraitu zuen, baina ez zuen ekimen handirik abiarazi, Mikel Salaberriak gogoratzen duenez. Estraperloan eta irekitzen ari zen merkatuan hobeak aurkitzen omen zituzten.

<sup>139</sup> Europako Elkarte ekonomikoan sartzea onartu ez bazitzaion ere, 1970ean lankidetzak akordioa sinatu zuten.

## IV. ATALA

# GIZARTE ALDAKETA

## Lezoko herri mugimendua XX. mendean

**F**rankismoak arestian aipatutako nazioarte mailako onarpenarekin, irekiera ekonomikoa eman zen, eta honek aldaketa asko ekarri zuen maila sozioekonomikoan. Gerra osteko ekonomia estua halamoduz gainditu eta industrializazioak gorakada nabarmena ezagutu zuen, batez ere hego Euskal Herria, Catalunya eta Madrilan.

Espainiatik atzerrira ere espainiar asko joan zen, eta atzerritik bidaltzen zuten diruak lagundu egin zuen ekonomiaren berpizte hartan.

Mende hasieran ezagututako migrazio prozesuak bigarren parte bat ezagutu zuen; garai honetan inguruko Errenteria, Donostia eta Pasaia nabarmen hazi ziren. 1950etik aurrera eman zen hazkunde berri hau, eta laurogeiko hamarkadara arte luzatu zen. Lezok bikoiztu egin zuen bere biztanle kopurua; %20 inguru, kanpotik etorritako lezoar berriak izango ziren.

Ekonomiaren suspertzeak egoera soziala zeharo aldatu zuen. Errejimenak estualdi uneak gainditu zituen nolabait, eta jada ez zuen errekurtsio guztien kudeaketaren premiarik. Hartara, udal instituzioak arautzen zituen legedia aldatu egin zuen, hauek diruz hornitu eta tokian tokiko kudeaketa zuzenago bati bide emateko. Lezon ere nabaritu egin zen aldaketa hura, besteak beste udal aurrekontuetan: 1960an 499027 pezetatako aurrekontua baldin bazuten, 1968an 1809160 pezetatako aurrekontura igaro ziren<sup>140</sup>. Aldaketa nabarmena izan zen.

### 4.1 GERRA OSTEKO KULTUR JARDUERA.

**G**erra osteko Lezok herri ekimena falta bazuen ere, ohiko kirol jarduera batzuk zutik iraun zuten. Horien artean estropadana dugu aipagarriena. 1954ko Donostiako banderan bigarren geratu zen Lezo, arraunketaren historian izan duen markarik onena lortuaz. Traineru horren jatorrian San Juango Lujanbio egon zen<sup>141</sup>: Antza, Luistarrekin izan zen batetan gazte mordoa ikusi zuen, eta zera esan zuen:

Traineru ederra egingo nuke hauekin!!.

Esan eta egin. Ekimena martxan jartzen aritu ziren ere Tomax eta Manuel Salaberria, eta baita Martin Kerejeta, Joxe Intxaurrandieta, Manolo Mekolalde, Antonio Pikabea eta Benjamin Askasibar ere<sup>142</sup>. Manuel Arrillaga izan zen patroia. Bi batelekin hasi ziren, eta koadrila bikaina atera ahal izan zuten. Azkenik lezoarrez, errenteriarrez eta hondarribiarrez osatutako taldea egin zuten.

<sup>140</sup> Leandro Silvan: *op. cit.*

<sup>141</sup> Javier Isasa.

<sup>142</sup> *Lezo Aldizkaria*, 18. zkia. 1998ko iraila. 8. orria. Joxe Krutz Sararola eta Martin Lekuonari egindako elkarrizketa.

Salbuespena zen baina, izan ere gerra aurretik nagusi izan ziren kultur eragileak, desagertu egin baitziren. Testuinguru honetan, eliza zen gizarte ekintzaren babesleku bakarra. Hamar urte inguru igaro behar izan ziren berriz ere kultur adierazpiderik lantzeko Lezon. Elizaren babespean, eta antzerkiarekiko Lezok gerra aurrean azaldu grina berreskuratuta, antzezlanak prestatzen hasi ziren Inaxio Artesoro “Zikirua”, Martin Kerejeta eta Anttonio Pikabea<sup>143</sup>.

### Antzerkia gerra ostean

Patxi Larreak azpimarratzen duenez, lehenengo pausu horietan asko lagundu zuten gerra aurrean kultur giroan ibilitako lezoarrek. Laguntzaileen artean Luke Gezala, Joxe Miguel Treku, Miguel Salaberria, Juanito Berasarte, Tito Labordeta... azpimarratzen ditu. Guztiak ere gerra garaian eta aurretik ere borrokatutako abertzale eta errepublikarrak. Gerra aurretik lan handia zegoen egin antzerkiaren alorrean, eta lan horrek, gerrak ekarri zuen etena eta gero, bere fruituak eman zituen. Patxi ere gogoz heldu zion ekimenari, eta gerra aurrean kultur arloan aritutakoek gordeak zituzten obra zaharrak eskeini zizkioten, oholtzaratu zitzaiz.

Oztopoak ugariak izan ziren; elizan jarduteko trabak etengabekoak izan ziren. Patxi Larreak aipatzen duenez, orduko giro moralistak ere murriztu egiten zuten antzerkigintzan aritzeko tartea: Adibide bat jartzearen, kontatzen du prozesioan gizonezko batek egiten zuela Ama Birjinaren papera, izan ere emakume eta gizonen arteko banaketa handiak eragotzi egiten baitzuen elkarrekin antzezenak egitea. Horretarako, gogoan duenez, mutilen artean “politena” hautatzen zituzten, emakume itxura emango zutenak, alegia. Horietako bat, Jose Krutz Sarasola<sup>144</sup>.

Gerra ostean Lezora apaiz etorri zen Inaxio Esnalen hitzok argigarriak dira:

*“kultura mailan oso behartsu topatu nuen, ez zegoen ezer egiterik, jendea beldurpean bizi zen, mehatxua airean zegoen. Kultura mailan hilda zegoen, eta oso gutxi egiten zituzten goi ikasketak. Francoren garaian jaiotako belaunaldi berria hasi zen egoera gaintzen”<sup>145</sup>.*

Elkargune bilakatuko zen antzerkigintza Lezon, eta entseguen ostean bildu egiten ziren tertulian, Lezoko istorioak elkarri kontatzeko. Tartean izaten zen Juanito Berasarte, gerra garaian heriotz zigorra jaso zuena, gerora indultatua izan-

<sup>143</sup> Imanol Esnaola: *op. cit.*

<sup>144</sup> Patxi Larreak Imanol Esnaolari emandako elkarrizketa

<sup>145</sup> Imanol Esnaola: *op. cit.*

## Lezoko herri mugimendua XX. mendean

teko. Gerra aurreko eta osteko ekimenek bazuten loturarik, ez zen erabateko ete-naldia izan, Patxi Larreak gogoratzen duenez. Hasierako emanaldiak elizan bertan egin zituzten, korupean<sup>146</sup>.

Baina arazoak ere ez zituzten faltan izan. Taldea hazten hasi zenean, baimen piloa lortu behar izan zuten, emanaldiak egiteko. Egile eskubidearekin ere izan zuten arazorik, izan ere, ez zuten ordaintzeko dirurik, eta ordaindu ezean, isuna jasotzen zuten. Haietako batetan, egilea zaharra izaki, ez zuten haren berri, eta ezaguna ez zen autore hari ez ordaintzeagatik, isuna jaso zuten<sup>147</sup>. Hamaika ikusteko jaio behar zen, garai hartako Euskal Herrian.

Arazoak arazo, Patxi Larreak nabarmentzen du herriaren babes handia zutela, eta beti zegoela jendea laguntzeko eta antzezlanetan parte hartzeko prest. Argi du gerra aurretik antzerki tradizio handiko herria izateak asko lagundu zuela.

Patxi Larreak harro gogoratzen du jendeak gustora hartzen zuela parte emanaldietan. 60 urteko pertsona baten papera, adin horretako pertsona batek egiten zuela dio, alegia, ez zegoela jendea biltzeko arazorik batere.



Antzerkia sustraiak dituen jarduera dugu Lezon. **Lezoko Fototeka.**

<sup>146</sup> Patri Urkizuk eskeinitako elkarrizketa.

<sup>147</sup> *Orratz!* 24. 1999ko azaroa.

### Dantza taldea

Lehen aipatu tertulia horietatik dantza taldea osatzeko ekimena abiatu zen. Patxi Larrea ibili zen horretan ere, "nik ez nekien dantzan" dioen arren. Horretan ere jendeak gogotsu ekin ziola gogoratzen du Patxik:

*160 pertsona Lezokoak, 2 orduz dantzatzen, atsedean gabe<sup>148</sup>.*

Dantza taldea 1955ean sortu zen<sup>149</sup>. Irailako festetako dantzaldi bat prestatzen zuten bitartean sortu zen dantza taldea abiatzeko ekimena, baita arrakasta handiz abiatu ere. Antzerkia sustatzen ibilitako Inaxio Artesoro "Zikirua", Martin Kerejeta eta Anttonio Pikabeak ume talde bat bildu zuten horretarako<sup>150</sup>, eta Patxi Larreari eskatu zioten ardura hartzeko. Gipuzkoako txapelketa askotan izan ziren garaile. Hamar urte beranduago Allerru elkartearen txertatuko zen dantza taldea.



**Lezoko Fototeka.**

<sup>148</sup> Patxi Larreak Imanol Esnaolari emandako elkarrizketa

<sup>149</sup> Gerra aurreko tradizioari jarraiki. Gerra aurrean, batez ere, batzokiaren inguruan sortu ziren dantza taldeak.

<sup>150</sup> Imanol Esnaola: *op. cit.*

## Lezoko herri mugimendua XX. mendean

### Beste kultur ekimen batzuk

Antzerkigintza eta dantza ez ziren aisialdirako gune bakarrak.

Ohiko jaietz gain, eta batez ere gerra osteko lehen urteetan hauek hartu zuten kutsu formal eta elizkoiegiari ihes egin nahirik edo, beste jai batzuk ospatzen hasi ziren Lezon.

Uralde tabernako jaiak ziren udaletxetik at antolatzen zen kultur ekintzetan bakarrenetakoa.

Baserrietako gazteek antolatzen zituzten jai haiek, Uralde tabernan. Manolo Artola eta Joxe Manuel Legorburu izan ziren jai haien antolakuntzan parte hartu zutenetako batzuk; abuztuaren 15ean izaten ziren, Ama Birjinetan, eta herri kiroletan, desafiotan, zaku lasterketan...ibiltzen ziren. Dantzarako tarterik ere bazen, poxpolinak izaten ziren, bai eta soinu-jolea ere. Jai hauetan dute jatorri gaur egun **Elortegin** antolatzen direnak. Elortegira pasa aurretik, 1965 urte inguruan, **Errekalderra** pasa zituzten. Errekalderra pasa ziren urteetan, jaiak udal babes jasotzen hasi ziren.

## 4.2 HIRUROGEHIKO HAMARKADA. LORALDIA

**E**liza zen beraz antolatzeko gunea gerra osteko lehen urte haietan. **“Acción Católica Española”** izeneko taldea izan zuten Lezon gerra ostean, baina ez zuen luzaroan iraun. Mugimenduaren aldeko taldea zen, integristek osatua<sup>151</sup>.

Mundu mailako korrante ideologiko nagusien bultzadak eraginduta, elizaren baitan ere berkokapena ideologikoa bat izan zen. Kezka sozialak eta elizaren rola inguruko hausnarketak ugariak izan ziren. Kezka eta eztabaida horien ondorioz, 1959an Vaticano II kontzilioa deitu zen. Sei urtez aritu ziren elizaren nondik norakoak aztertzen, eta irekiera prozesu bat izan zuen ondorio. Elizan sekularrek eduki beharreko partehartzea sustatu zen, dotrina emateko modua malgutu zen, mezatan tokian tokiko hizkuntzen erabilera onartu zen<sup>152</sup>, apaizak kaleko jantziz ibiltzea onartu zen...elizak ateak zabaltzen zizkion gizarteari.

Horren ondorioz, elizaren inguruan talde asko sortu eta hedatu zen, bai mundu mailan, eta baita Euskal Herri mailan ere. Horietako bat Gazteria Langile Katolikoa zen, Euskal Herrian gazteleeraz zuen izenaz ezaguna izan zelarik: **Juventud Obrera Católica**.

<sup>151</sup> Mikel Salaberriak esana.

<sup>152</sup> Euskal Herrian ez, baina Espainiaren debekuarengatik.

Talde hau Joseph Cardijn apaiz gazteak sortu zuen 1925eko apirilaren 18an. Bere helburu nagusiak: Langile gazteek pairatzen zuten esplotazio egoera aldatzea, eta horretarako beharrezko ziren tresnak eskeintzea, bai hezkuntza mailan, aisialdi mailan, eta abar.

*Nola liteke hau guztia, hainbeste gazte bizitza gogor hau izatera derrigortuak! Denbora gehiago behar dute eskolan, eta ez bere burua birrindu, hain gazte direlarik, lantegietan<sup>153</sup>.*

Euskal Herrian, eta Lezon ere, JOC erakundeak lan handia egin zuen gizartea biziberritzen. Dotrina ikasteko biltzen ziren Luistarretan<sup>154</sup> tokia izan zuten gazte askok, JOCera eman zuten urratsa 60ko hamarkadaren hasieran. Urrats hori eman baino lehen, hala ere, lan handia egin zuten euskal kulturaren alde, Don Ramon Azkonobietaren ardurapean<sup>155</sup>. Jose Maria Setien, Carlos Abaitua eta Ricardo Alberdiren “Doctrina social de la Iglesia” liburuak eragin handia izan zuten Euskal Herriko langile gazte mugimendu honen sorrera eta garapenean.

Batzuek elizaren dotrinan sinetsita, eta beste batzuek bere asmoak lantzeko beste tokirik ez zutelako, elizara bildu ziren urte haietan.

Lezon JOC taldea 1954-1955 urteetan sortu zen, Joseba Urkizuren arabera. Garrantzia itzela izan ei zuten gazte mugimenduaren susperraldian, eta herriko motore bilakatu zen<sup>156</sup>.

Mikel Salaberriak gogoratzen duenez, JOCekoak jende jantzia ziren: Gogoratzen du Errenteriako JOCekoak oso “intelektualak” zirela, hitz arraroak erabiltzen zituztela hitzegiten zutenean. Berak ez zituen herri xeheko semetzat, baizik eta beste maila bateko gaztetzat.

1958an, elizak bultzada handia eman zion mugimendu hari. Nazioarteko JOCen kongresua ospatu zen Erroman, eta mundu osoko kideak bildu ziren bertara. Gipuzkoatik 200 lagun inguru joan ziren, tartean zortzi gazte lezoar: Alfonso Romero, Gurutz Salaberria, Joseba Urkizu, Pilare Zapirain, Josebe Salaberria, Lucia Larrea, Arantxa Arin eta Juani Paredes. Gipuzkoako taldea estatu mailako

<sup>153</sup> Joseph Cardijn.

<sup>154</sup> Luistarrak. Elizan antolatua zen mutil taldea, hilean behin elkartzen ziren dotrina irakurtzeko, goizeko 6tan.

<sup>155</sup> Imanol Esnaola: *op. cit.*

<sup>156</sup> Joseba Urkizuri egindako elkarrizketa.



## Lezoko herri mugimendua XX. mendean

handiena zenez, hari egokitu zitzaion espainiako folkloreak erakusgarri izango zen emanaldia eskeintzea. Joseba Urkizuk gogoan duenez, ikurrina ibili zuten gora eta behera Erroman eman zituzten egunetan, kezka politikoaren lehenengo adierazpenak sortzen ziren urteetan.

JOC taldeak, “**compromiso temporal**” zeritzon kontzeptuaren bitartez, kideak ekintza sozialera bideratzen zituen. Horren arabera, gizarte premiei erantzuteko ahalegina egin behar zuten JOCTarrek, taldeak sortuz, beste gazteekin elkarlana sustatuz, hezkuntza arloko proiektuak garatuz, eta abar. Kontutan hartu behar da, estatuak ez zituela hezkuntza eskubideak bermatzen, ez gutxienez orain ezagutzen dugun gisan. Derrigorrezko hezkuntza oso mugatua zen, eta langileria eta herri xehearen seme alabek oinarritzko hezkuntza baino ez zuten jasotzen, segidan lan merkatuan murgiltzeko.

Aipatu dugun bezala, Erromako jardunaldietan jada hasi ziren JOCEko gazteak Euskal Herriaren eskubideen aldeko aldarriak zabaltzen. Joseba Urkizuk gogoratzen duenez, JOCEk urtero ateratzen zituen egutegiaren erdiak euskaraz bidal zituzten eskatu zuten hainbat herritatik, tartean Lezotik ere, eta hor hasi zen euskara erabiltzen JOCEn.

Euskara erabiltzen hastearekin batera, JOCEko talde ezberdinak biltzen zituen **OARGI** taldea sortu zen. Honek euskal kultura sustatzea zuen helburu.

Joseba Urkizuk gogoratzen duenez, JOCEn zebiltzanen helburu behinenetako bat formakuntza zen; ikasteko gogo handia zegoen, jendeak hitzaldiak eskatzen zituen, ikasitakoa herrigintzan aplikatu ahal izateko.

JOCEn aritzen zirenak **Hermandad Obrera de Acción Católica (HOAC)** talde-  
ra igarotzen ziren gero. Bertan izan ziren Iñaki Zuloaga, Iñaki Urkizu eta beste hainbat gazte. Talde haietan sortu zen, Joseba Urkizuren arabera, instituzio frankistetan zirrikituak bilatzeko eta bertatik eragiteko ideia. Udaletxeetan, sindikatu ofizialean...sartu eta eragiteko ideia.

Hauetaz gain, emakumeak ere hasi ziren bere antolatzeko era aldatzen. Ordura arte, Margaritak izeneko taldea zegoen, elizkoi kontserbadore amorratuak zirenak<sup>157</sup>. Haez gain, falangeren emakume taldea ere bazen Lezon, kale nagusian biltzen zena.

JOCEn sorrerarekin batera, emakumeak **Acción Católica** izeneko taldean bildu ziren. Hauek ere kezka soziala zuten oinarri, eta euskaraz hitzaldiak ematen hasi ziren, JOCEkoak herria astintzen hasi ziren garai bertsuan. Acción Católica-n ibilitakoek gogoan dute Doroteo Esnaola apaizak emakumeen protagonismoa

<sup>157</sup> Eusebio Garmendia bikarioaren arrebak ziren talde honen buru.

aldarrikatzen zuela, eta saiatzen zela haien konzientzia pizten. Gizarte aldaketa zetorrela aurrikusten zuen hark, eta emakumearen rola aldatuko zela ezinbestean<sup>158</sup>. Aldaketa haiek ematerako, prest egon behar zuten emakumeek, apaizaren arabera.

Patxi Larreak gogoan duenez, lehendabiziko antzezlan euskalduna JOCen eskutik landu zuten. Salesianan antzeztzen zituzten obrak, eta, gogoan duenez, gizonezko eta emakumezkoak elkarrekin aritzen ziren, beti ere elizaren gerizpean. Bere ustetan, inguruko herrietan baino liberatuagoak zeuden Lezon, gutxi izanagatik ere, bizkorragoak ziren herri ekitaldiak antolatzen. Euskararen aferari ere kementsu heldu zioten, eta, JOCen baitango kezka Goierritik etorri bazen ere, Lezok ere gogotsu heldu zion euskaraz jarduteari, bai antzerkigintzan, baina baita JOCEk antolatzen zituen beste ekimenetan ere.

Aipatu dugu elizak betetzen zituela hainbat hutsune. Herrigintzan zegoen hutsunea, baina baita estatuak bere gain hartu ezin zituen hainbat alorretan ere, tartean hezkuntzan. Eta aipatu dugu ere JOCen sortzailearen helburu behinene-tako bat, langile familietako seme alabei hezkuntza egokia eskeintzea zela.

Aurrekari hauekin, erraza da ulertzea zer dela eta murgildu zen eliza jende apalenaren aldeko hezkuntza ekimenetan. Esan beharra dago, Vaticano II kontzilioak ekimen hauek bultzatzeko deia egin zuela, eta haiek susta zitzaten agindu ziela elizaren baitango talde ezberdinei. Horrela, Jesuitek, Frantziskotarrek eta beste kongregazioek zituzten eskoletan familia apalen semeentzako kuotak jarri zituzten. Eskeintzen zituzten plazetatik gutxieneko kopuru bat familia apalenetako seme-alabentzat erreserbatua izango zen.

Tamalez, eta zenbait gusaso aberatsek bere seme-alabak langileen seme-alabekin nahasterik nahi ez zutenez, eraikin berriak egin zituzten eskoletan, aurrekoak baina dexente apalagoak gehienetan, umeak ez nahaste aldera.

<sup>158</sup> Mari Krutz Urkizu eta Anparo Lopetegik eskeinutako elkarriketa.

### 4.3 HEZKUNTZA, HERRIA BIZIBERRITZEKO TRESNA

#### Guraso elkartea

Lezoren hezkuntza egoera ez zen batere ona. Eskola nazionala zegoen herrian, eta baserri aldeko umeak Uruneko eskoletara joaten ziren. Gutxi zuten derrigorrezko hezkuntzatik haratago joateko aukera. Eskolak gazte-leraz ziren oso osorik: Boñi Urkizuk gogoratzen du Urunen zebilen irakasle baten kasua: Euskalduna zen, gerra garaian desterratutakoa, eta euskalduna izan arren, inoiz ez zuen harekin euskarazko hitzik trukatu<sup>159</sup>. Beldur urteak ziren.

Elizaren dotrinari jarraiki, eta lezoarren beharrei erantzunez, **Doroteo Esnaola** apaizak<sup>160</sup> guraso talde bat bildu zuen bere ingurura. **Mateo Alberdi** bikarioak agindu zion hori egin zezan. Hasiera batetan aholkulari lanetan aritu zen, elkarbitzita lantzen, egunerokoan sortzen ziren liskarrei nola aurre egin aztertzen... tes-tuak irakurtzen zituzten elkarrekin, formakutza etiko bat jasotze aldera. Helburua “bizitzari beste zentzu bat” ematea zen, eta “lagun hurkoaren alde” aritzeko gogoa piztea<sup>161</sup>.

Behin taldea osatu eta finkatu zenean, beste urrats bat eman zuten, eta herria-ren premiei erreparatuta, beharrian handiena hezkuntzaren alorrekoa zela ohar-tu ziren. Izan ere, eta JOCen sortzaileak salatu zuen bezala, langileen semeek eskolatik fabrikarako urratsa egiten zuten, bigarren mailako hezkuntza jaso gabe. Lezon, oinarritzko hezkuntza baino ez zegoen bermatua: Sei urte bete arte, **Manoli Larrearen** aurre eskola zegoen, eta hortik aurrera haurrak eskola nazio-nalera igarotzen ziren (bai herrian bertan, Pildain eskoletan, bai Gaintzurizketako Urune eskoletan ere). Hauxe gain, Arantxa Berasartek etxean jarria zuen eskola partikularra zegoen. Hark irakasle titulua zuen, baina bost urtetik bederatzi urte-ra bitarteko umeak biltzen zituen, ez besterik.

Familia apalenei laguntza eskeintzeko gogo horrekin, bigarren mailako batxiler bat sortzea erabaki zuten. Abian zen “**GURASO ELKARTEA**” izenarekin ezagu-tuko zen ekimena.

Lokal eta irakasleria propioa izan baino lehen, eskola nazionaleko irakasle batekin egin zuten tratua: Hark eskolak emango zizkien batxilergo mailara igo nahi zuten ikasleei. Horrela eman zituzten lehen urratsak, baina egitasmoa ez

<sup>159</sup> Imanol Esnaola: *op. cit.*

<sup>160</sup> Doroteo Esnaola, 1959 inguruan 18 urterekin Lazkaotik etorria. Urkizuren etxean bizi izan zen, Mateo Alberdi bikarioak eskatuta. Apaiz aurrerakoia, Lezotik Segurara joan zen apaiz lanetan jarraitzera.

<sup>161</sup> Anparo Lopetegi eta Mari Krutz Urkizuri egindako elkarrizketa.

zen horretara mugatuko. Lokalaren premia berehala sortu zen, eta lehendabiziko lokala Julian Berasarteren etxean izan zuten; Gerora, Iberdrolaren zentral elektrikoaren ondoan zegoen beste lokal batetara pasako ziren<sup>162</sup>.

Ez zen hezkuntza proiektu soila izan, bilgune ere izan zen Guraso Elkarte. Hartara, Mari Krutz Urkizu eta Amparo Lopetegik gogoan dute telebista jarri zutela lokalean, eta horrek jende mordoak erakartzen zuela larunbatetan.

Guraso elkartearen funtzionamenduak dirua eskatzen zuen. Hura biltzeko kuota kobratzen zuten, eta debaldeko lana egiten zuten gurasoek. Hilero 100 pezeta inguru ordaintzen zen, baina familia apalenei ez zitzaaien kobratzen. Mari Krutz Urkizuk gogoratzen duenez, kobratzen zen dirua ez zen gehiegi, eta horrek asko lagundu zuen proiektuaren hedapenean<sup>163</sup>. Hainbat familiak, seme-alabek ikas prozesua bukatu eta gero egiten zuten ordainketa, kuotak ordainduta. Eskolak gazteleraz ematen zituzten, baina Mari Krutz Urkizuk euskara eskolak ematen zituen larunbata goizetan. Lehenengo irakasle propioak kanpotik ekarri behar izan zituzten, eta azterketak ere Donostiako eta Irungo institutoetan egiten zituzten.

Doroteo Esnaolak bere inguruan bildu zuen taldeak<sup>164</sup>, sortu zireneko helburuak bete zituen, izan ere, herriko gazte askok jaso ahal izan zuen bere hezkuntza maila ekimen hari esker, baina, gainera, proiektuan parte hartu zutenek bere bizitzari zentzu bat eman ziotela esan daiteke, "lagun hurkoari laguntza eskeiniatz".

### **Ikastola**

Guraso elkartean gazteleraz ematen zituzten eskolak ordea, eta horrek ez zituen berpizten ari zen kontzientzia euskaltzalearen asmoak asetzen. Honek ikastolaren sorrera eragin zuen.

Beste hainbat tokitan bezala, ikastola ez zuten hutsetik sortu: Izan ere, Lezon jada sortua zen hezkuntza azpiegitura bat izan zuten ikastola berriaren oinarri. **Manuela Larreak**, 1960tik aurrera, haurtzaindegi lanak egiten zituen hezkuntza azpiegitura bat zuen sortua, kale nagusiko 18. zenbakian, hain zuzen ere, gerra aurretik Agustina Lizarazuren eskola izan zen toki berean. Umeei dotrina euskaraz ematen zitzaaien bertan.

<sup>162</sup> Manuel Oroz eta Pilar Saizarren etxea.

<sup>163</sup> 100 familiatik gora bildu ziren ekimenera, Imanol Esnaolak "Lezoko euskararen historia soziala" liburuan dioenez.

<sup>164</sup> Denetariko umeak bildu zituen arren, langile familietako seme-alaba ugari bildu zuela dio Patri Urkizuk.

**Lezoko herri mugimendua XX. mendean**

*“Ikastola bat daukagu, kristau ikasbidea irakurtzen, idazten eta kontuak erakusten diguna euskeraz”<sup>165</sup>.*

Ikastola esaten zitzaion, gazteleraz eskola esaten zitzaionari, nahiz gaur egungo ikastolen pareko izan ez. Izan ere, Manoli Larrearen aurre eskola ez zegoen legeztaturik, hark ez baitzuen behar zen titulaziorik. Titulazioaren arazoa gainditzeko, **Inazio Esnal** apaizak beharrezko titulazioa lortu zuen, eta behin proiektuan murgilduta, hainbat lezoar deitu zituen lanera. Ikastola hortik abiatu zen.

Deitu zituenen artean, Joseba Urkizu, Mikel Salaberria, Iñaki Zuloaga, Joakin Urkizu, Inaxio Lizarazu, Manuela Korta eta Luke Gezala<sup>166</sup> zeuden.

Guraso elkartearekin gertatu bezala, udaletxeak nagi jardun zuen hauekin ere; azpiegiturak eskatzen zituztenean, ezezko borobilik ez, baina trabak jartzen zituen. Baina, era berean, eskola nazionalak ez zituen herritarren hezkuntza beharrak asebetetzen: alde batetik, bigarren zikloa hankamotz geratzen baitzen Lezon, eta bestetik, herrian euskarazko hezkuntzaren aldeko jarrera zabaltzen ari zelako.

Gobernu ordezkariak ikuskatzaileak bidaltzen zituen, baina azpiegituren premia larriak, izan zitekeen ezezko borobila baretu egiten zuen. Estatuak ezin zuen erabateko debekua eman, estatua bera ez zenean hezkuntza premiei erantzuteko gauza.

Mikel Salaberriak gogoratzen duenez, Iñaki Zuloaga joan zitzaion laguntza bila, 1960 inguruan; orduan, Manolik dozena bat haur edo izango zituen bere eskolan. Iñakik esan zionaren arabera, Manoliri laguntza emateko taldea ari ziren osatzen, eta bilera bat egin behar zuten.

Hasierak gogorrak izan ziren, oztopo ugari izan zutelarik: behin Inazio Esnalek titulazioa lortu zuenean, proiektua gauzatu ahal izan zuten, batez ere egindako guztia elizaren babespean egin zutelako.

Azkar hazi zen ume kopurua, eta lokal berriak behar zituztenez, prefabrikatuak jarri zituzten Goiko plazan, “Acha y Zubizarreta. Aserraderos de Lezo” enpresari baimena eskatuta, haiek baitziren orubearen jabe. Mikel Salaberriak gogoan du, azpiegitura ordaintzeko kreditu pertsonala eskatu behar izan zuela. Udaletxean oztopo haindirik ez zuten aurkitu, aipatu jarrera nagiaz haratago. Iparragirre

<sup>165</sup> I. Torres: *Umeen deia*. Claret. Bilbo. 6 urteko bi ume lezoarrek idatzia.

<sup>166</sup> Azken bi hauek, gerra aurrean EABn ibilitako militante abertzaleak.

baserriko Rafael Izulain zen alkate orduan. Kontutan hartu behar da ordurako, lehen aipatu dugun bezala, udaletxeak "irekiagoak" zirela, jende moeta berria sartzen hasia zelako, eta baita ere kontutan hartzekoa da herriak hezkuntza azpiegiturretan zuen eskasia.



Lezoko Fototeka.

Izan ziren oztopo handienak Guraso elkarteko Julian Berasartek jarri omen zituen. Hura zinegotzi zen, eta antza ikastolak lehia egingo zien beldur zen. Doroteo Esnaola bikario eta Guraso elkarteko bultzatzaile nagusienak ere ez omen zion harrera gozoegia egin ikastolari.

Zeintzuk ziren, baina, ikastola eta Guraso elkartearen arteko ezberdintasunak?

Anparo Lopetegik gogoratzen duenez, sorrera helburuak ezberdinak ziren. Guraso elkartearen helburu nagusia formakuntza zen, hezkuntza maila goratzea, familia apalenei begira beti ere. Ikastolak, berriz, euskarazko hezkuntza zuen helburu.

Mari Krutz Urkizuren esanetan, urte gutxiren buruan euskararen aldeko jarrera nabarmen bizkortu zen Euskal Herrian, eta Guraso elkarte hori baino piska bat lehenago sortu zen.

## Lezoko herri mugimendua XX. mendean

Mikel Salaberriak, bere aldetik, Doroteo Esnaola apaizaren izaera aipatzen du, elkar ezin ikusi haren arrazoi nagusienetako bezala. Izan ere, izaeraz berezia omen zen, muturrekoa jendearekin, inguruan zituenekin harreman estua bai, baina gertuko ez zituenekin gogor jokatzeko zuela gogoratzen du.

Iritziak iritzi, ukaezina dena zera da: Euskara zela bi proiektuak bereizten zituen aldagai nagusia. Guraso elkarteak ez zuten euskara bazterrera utzi erabat, eta larunbatetan euskara eskolak ematen ziren<sup>167</sup>. Baina ez zuten euskarazko hezkuntza eskeintzen.

Eta komunean zituzten ezaugarrien artean, altruismoa eta herritartasuna aipatu litezke. Biak sortu ziren herritik eta herriarentzat; biak sortu zituen herriak, herriari behar zuten zerbait eskeintzeko (hezkuntza maila hobea, euskarazko hezkuntza), eta, ezaugarri horiekin bat eginik, bietan izan zen konpromezua ardatz, debaldeko orduak eta ahalegin pertsonalak eskeinita.



Ikastola zegoen tokia, Donibane kalean.

Ikastolak oinarri juridikorik ez zenez, goardia zibila maiz azaltzen zen Goiko plazako prefabrikatuetera, behar baino ume gehiago zegoela, azpiegiturak ez zirela egokiak... esanaz.

Eskola nazionalerako irakasleen batek ere kontrako jarrera azaldu zuen. Hauetako batzuk kanpotik etorritako irakasle funtzionarioak ziren, espainol amorratuak, eta euskararekiko begirune eskasa azaltzen zutenak<sup>168</sup>.

Legeztatzea lortzeko, Mateo Alberdi herriko apaizak egin behar izan zuen eskaera, berriz ere elizaren babespeko proiektu gisa ager zedin.

Azpiegituz gain, materiale eskasia handia zen, baina herrialde osoan zehar sortu zen ikastola mordo-

<sup>167</sup> Patri eta Mari Krutz Urkizu ibili ziren eskolak ematen.

<sup>168</sup> Kontrako jarrera oldarkorra agertu zutenen artean Federico Huertas nabarmendu zen. Eskola nazionalerako irakaslea bera. Imanol Esnaola: *op. cit.*



ren arteko elkarlanak arazoa gainditzen lagundu zuen. Donostiako **GORDAILU** elkartearen biltzen ziren ikastola ezberdinetan sortzen ziren materialeak, eta handik hartzen zituzten besteek sortutakoak, era honetan indarrak batuz.

Ikastolako lehenbiziko lehendakari izan zen Mikel Salaberriak aurreko belau-naldikoez emandako laguntza azpimarratzen du. Anastasio Zapirain, Jose Miguel Treku, Luke Gezala...indar handiz heldu zioten proiektuari.

Hamarkada honetan, ikastola asko hazi zen, ehun bat familia biltzeraino, eta, tokirik ez zutela eta, Orereta ikastolakoengana jo zuten, laguntza eske. Azkenean ez zuten bat egin, eta 1968an Lezo Handia ikastola sortu zen, eta, 1979an, Pasaia Lizeoan egin zuten bat inguruko ikastolek.

1970ean honakoak ziren Lezoren eskolaratze datuak: Ikaslegoaren %56, herriko zein baserrialdeko eskola nazionaletan aritzen zen. % 25, Guraso Elkartearen eskolan, eta %19 ikastolan<sup>169</sup>.

Ikastolan umeak hezteaz gain, helduen alfabetatzea ere landu zen, urte haietatik hasita. Ikastolaren ingurura ez ziren soilik gurasoak bildu, baizik eta baita laguntzaile ugari ere. Guraso eta laguntzaileen ekimenez **gau eskola** jarri zen abian, 70eko hamarkadaren hasieran. Hasiera batetan, ume eskolaratuen gurasoak euskalduntzeko xedez, eta gero, ikastolan seme alabarik ez zutenak ere bilduz. Euskal Herri osoan zehar zabaldu zen ereduaren zena, geroko euskaltegien jatorri izan ziren gau eskolak. Bolondresak ziren eskolak ematen zituztenak, eta materiala ere beraiek sortzen zuten ia gehienetan<sup>170</sup>. Hirurogehi lagun inguru biltzen omen zen hasierako urte haietan, eta eskolak, ikastolaz gain Allerrun eta elizaren bikario etxean ematen ziren. Ikasle aritutako asko gerora irakasle aritu zen, eta, jada Franko hil ostean, gau eskola zena euskaltegi bilakatu zen, AEK taldea sortuaz.

<sup>169</sup> Leandro Silvan: *op. cit.* Aipatzen duenez, bazen beste legeztatu gabeko eskola partikularren bat, baina ez zaigu ezaguna.

<sup>170</sup> Horretan laguntzeko Joxe Manuel Odriozola euskaltzale ospetsua etortzen zitzaizkien, irakasleak formatzera.



## Lezoko herri mugimendua XX. mendean

### 4.4 ALLERRU

**B**erpizte giro hartan, eta herrian aisialdia lantzen zuen talderik ez zegoenez<sup>171</sup>, despedida bazkari batetan, Errenteriako Panier Fleury jatetxean hain zuzen ere, **Gotzon Urretabizkaiak** eta **Gurutz Salaberriak** talde bat antolatu behar zela erabaki zuten. Batez ere gazteei bideraturiko ekimena izango zen; gazteek antolakuntza eta aisialdia premia zutela argi zekusaten, eta inguruko herrietan bezala, Lezon ere horrelako taldea antolatu behar zela.

Patxi Larrearen arabera, hamar-hamabi lagun inguru baino ez zen mugitzen herrian; gehienak JOCen, baina ez denak. Gotzon Urretabizkaia, esate baterako, Luistarretan ibili zen nerabezaroon, baina ez zen JOCera pasa.

Allerru antolatze lanek luze jo zuten; bi urtez aritu ziren beharrezko ziren baime-nak, tokia, bazkide taldearen bilketa eta abarrak antolatzen.

Zerrenda bat osatu zuten hasteko, proiektuari laguntzeko prest leudekeenak osatua. Jendeari ideiare berri eman zioten, giroa aztertu eta proiektuaren bidegarritasuna neurtzeko. Talde sustatzailean herriko "reboltoak" omen zeuden, Gotzon Urretabizkaiaren esanetan, eta hori zela eta talde anitza osatzeko ahalegina egin zuten, mesfidantzak saiheste aldera. Horretarako, batzorde eragilean Gaintxurizketako, Guraso Elkarteko, Luistarren elkarteko, Mariaren alabak kongregazioko eta Udalbatzako ordezkari bana izango zen.

Bikarioaren etxean<sup>172</sup> egin zituzten bilerak lehenengo urtean, goiko elizaren ondoan, urte baten ondoren, eta bazkideen kuotei esker<sup>173</sup>, lokala hartu ahal izan zuten arte.

Hasierako sortze batzordearen buru **Juanito Berasarte** jarri zuten. Juanitori gerra garaian heriotz zigorra ezarri zioten (gero barkatu zioten), baina beste belaunaldiko batekoa zen, eta gainera gizon estimatua zen herrian. Horregatik bilatu zuten Juanito Berasarte, herriaren atxekimendua bilatzeko.

Inguruko herrian bazen horrelako elkarte bat baino gehiago, eta haietara jo zuten estatutoak nola egin behar ziren jakiteko. Hauek eredu gisa erabili, eta estatutu propioak taxutu zituzten.

<sup>171</sup> Bazen mendi talde bat, baina ofizialki sortu gabea zen. Gurutze bat ipini zuten Bianditz mendian, horretarako baimen guztiak eskatuta, eta gaur egun ere, jarri zutenak urtero igotzen dira bertara, gero bazkaria egiten dutelarik. Joseba Urkizuk kontatua.

<sup>172</sup> Inaxio Esnal apaizak laguntza eskeini zien.

<sup>173</sup> Allerruren 2. boletinean ageri denez, hilean 5 pta. ordaintzen zituzten, baina ez dakigu hasierako kuota zenbatekoa zen.

Elkartea 1964ko abenduaren 17an sortu zen ofizialki, baina aurretik, ekainaren 16an, “Federación Vasco-Navarra de Montañismo” zeritzanak alta eman zion **Sociedad Deportiva Cultural Allerru** izeneko taldeari. Alegia, lehenbizi mendi federakutzan legezatu zuten, eta gero etorri zen elkarte gisa legeztatzearena.



Lezoko mendi koadrilak Bianditz mendian jarritako oroigarriak.

Allerruren arautegiak zera zioen:

*Allerru kirol, Aisialdia eta Kultur elkarte, Lezoko Unibertsitatean sortzen da, bizilagunen laguntzaz; instituzio honen helburua bertako gazteei ahal den formakuntza kultural hobereana jaso dezaten bitartekoak eskeintzea da, bai eta herriari aisialdia eta kirol giroa eskeintzea ere; gainera, ongizate izpiritual eta materiala ekar dezakeen edozeren zaintza eta sustapena du helburu<sup>174</sup>.*

“Sociedad cultural Recreativo Deportiva” formulapean sortzen ziren garai hartako taldeak, errejimenak onartzen zuen formula bakarrenetako bat zelako. Estatuetan jartzen ziren gauzetako asko, legeztatena lortzeko jartzen ziren. Honela, izaera politikoari uko egiten zitzaion:

<sup>174</sup> Allerruren sortze akta. Barne arautegia.

Lezoko herri mugimendua XX. mendean

*Art. 2: La sociedad Cultural, Recreativa y Deportiva ALLERRU<sup>m</sup> es una persona jurídica, asociacional de tipo cultural, recreativo y deportivo, **apolítica**, de carácter **católico** y sin finalidad de lucro<sup>175</sup>.*

Estatutuetan izaera katolikoa agertzearekin batera, elizak aholkularitza lanak egingo zituen elkartean, estatutuen arabera:

*Art. 5: Contará también la Sociedad con un **Asesor Eclesiástico**, nombrado por el Señor Obispo de la Diócesis a instancia de aquella.*

Eliza aholkulari honen betebeharra ere zehazturik zegoen estatutuetan.

*Art. 13 Las facultades expresadas en el artículo anterior se entienden con la limitación de los problemas planteados en el **orden moral, los cuales deberán ser juzgados por el Asesor Eclesiástico designado al efecto**. Este deberá siempre escuchar el criterio de la Junta directiva, pero su decisión será inapelable; aunque deba aspirarse siempre a una unión de criterios para solucionar dichos casos.*

Hortaz, aholkulariari zentsore lana ematen zitzaion; hark galbahetu behar zituen elkarteko ekintzak.

Hasierako zuzendaritzan hauek ibili ziren: Joxe Askasibar izan zen idazkaria eta Pilare Zapirain, Joseba Urkizu eta Juanito Berasarte zuzendaritzan.

Herrian jada bazen Patxi Larreak zuzentzen zuen dantza taldea, eta Allerruren sorrerarekin batera, taldea bertan sartu zen.

Gotzon Urretabizkaiak gogoratzen duenez, hasierako helburua taldeak sortzea zen, kirol ezberdinetako taldeak, kultur arlo ezberdinetakoak, eta abar, gerora bakoitzak bere kabuz funtziona zezan.

<sup>175</sup> Ibidem.

Uste zuten baino arrakasta askoz ere handiagoa izan zuen ekimenak: Martxan jarri eta gutxira 500 bazkide izatera iritsi zen, kopuru harrigarria inondik ere, Lezok zuen biztanle kopurua kontutan hartuta.

1965eko irailean, Gotzon Urretabizkaia zen presidente, presidente ordea Juanito Berasarte zen, idazkaria Jose Javier Askasibar, diruzaina Antonio Ibañez, eta bokalak hauek ziren: Ricardo Salaberria, Pile Villarrubia, Pillare Mitxelena eta Maritxu Aierdi.

Udalbatzaren ordezkaria Eusebio Balda zen, Luistarren izenean Jose Cruz Izulain zegoen, Gaintxurizketatik Salvador Etxegoien zen ordezkaria, eta Mariaren alabei, Guraso elkarteari eta baserriei zegozkien ordezkariak bete gabe zeuden.

Atalen ordezkariak honako hauek ziren:

Antzerki eta folklorea: Patxi Larrea.

Pelota: Ricardo Salaberria.

Eskubaloia: J. Intxaurrendieta eta Jesus Narvarte.

Futbola: J.M. Insausti eta Iñaki Garmendia.

Kultura: Ana Maria Artola eta Gurutz Salaberria.

Argitalpenak: Patricio Urkizu.

Ordurako, **435** bazkide ziren elkarteetan.

Ekimen ugari zuten abian, besteak beste, eta kulturaren atalean, hitzaldi ezberdinak antolatu zituzten: Alkoholiko anonimoei buruzko bat, musikari buruzko bat, sukaldaritza ikastaro bat...

Hala ere, herritarrak gehien biltzen zituzten ekimenak kirolaren inguruak ziren. Izan ere, Allerruk hasieran kirol jarduera izan zuen ardatz. Gero etorriko ziren kulturaren inguruko ekimenak. Zine klubaren bitartez, adibidez, atzerritik ekarritako pelikula ugari ikusi ahal izan zuten, eta horrek eragina handia izan zuen frankismo garaian jaio eta hezi ziren gazteengan.

Gotzon Urretabizkaiak bereziki gogoratzen du Iñaki Linazatorok eman zuen hitzaldi bat. Euskal herriko kulturari buruzkoa izan zen, tokian tokiko euskarek buruzkoa, eta gogoan du nola eskualde ezberdinetako euskarak imitatzen zituen hitzaldian. Entzuleak txunditurik utzi zituen, gogoan duenez. Hitzaldien truke dirurik jasotzen ez zuenez, bolaluma eman zioten, oroigarri.

Gotzonek argi du herriak jakintza premia zuela, ikasteko gogo zegoela eta Allerruk harrakasta handia izan bazuen, herriari behar zuena eskeini zitzaiolako izan zuela.

## Lezoko herri mugimendua XX. mendean

Gizarte aldaketaren inguruko kezka ere nabarmena zen. Bere boletinean, argi-talpenen sailean, hausnarketa ezberdinak egiten zituen Allerruk. Pentsamendu humanistak ziren, JOC bezalako taldeek jorratzen zituztenak. Hausnarketa hauetan, gainera, argi ikusten da Lezok bizi zuen aldaketa prozesua:

*Pensamientos: Sólo una sugerencia: abrir los ojos para contemplar la panorámica lezoarra de hoy.*

*Chimeneas, pabellones gigantes, fábricas y máquinas taladran el paisaje, horadan el vientre de los montes, carreteras y antes verdes campos. La industrialización progresiva ha desolado con su estética nueva lo pintoresco de la aldea rural...*

*¿Qué puesto ocupa en este mundo el factor hombre? Se da el valor necesario a los estadios para la redención de cuerpos y espíritus?*

*Se precisa un estudio profundo de la realidad, de todos los problemas: emigración, trabajo, despersonalidad, incredulidad...*

*Urge una actividad seria, no superficial, del todo convencida...*

*¿Pues cómo se mide el nivel de vida en una sociedad? ¿por los ruidos de sus motores, tractores o por la higiene de sus calles, lugares comunes, parques de recreo para infantes y ancianos, gimnasios o por sus bibliotecas?*

*Meditemos sobre el trecho que nos falta para llegar a la cumbre<sup>176</sup>.*

Kontutan hartu beharra dago, testuan azaltzen den bezala, langile klaseak urte haietan izan zuen "fronteetako" bat gizarte ekipamenduena izan zela. Liburutegi, kiroldegi eta antzeko azpiegituren aldarrikapenak ur horniketa, kale garbiketa eta oinarritzko azpiegituren aldeko aldarrikapenaren ondotik etorri ziren, bata bestearen atzetik. Eta Lezon ere berdin gertatu zen.

Euskarari ere egin zioten tarterik: Batetik, boletinean bertan euskarazko testuak agertzen ziren:

*Barkatu. Bigarren boletiniñan ez genuen, gaia izan arren, gure izkera xamur eta ederrean ezer idatzi.*

*Lezo lehen eta oraingo ikustaldian txit ez berdindu da.(...)*

*Gertakizun bat garrantzi izugarrikoa gertatu da: industrializazioa. Jaizkibel eta Altamiran zelai musker, garo eta piñu ugaritsuak, ortz aundizko tratorez beterik lur sabelak irikita, bere barrenak txoil autsiak eta gañekoak*

<sup>176</sup> Allerruren 2. boletina, 1965eko iraila.

*bidez beteak daude. Baserri aldean itzaltzen ari dira zaldi irrintzi eta bei ta idi marruak. Tximini audiak ke eztulgarri ta zakarra batetik eta bestetik sortzen dutela. Nun gelditzen dira ibai eta erreka, txori eta kirkirren abesti zuzmugarriak?*

*Olaxe mintzatzean gizadi aztu eta reaktionari baten bat naizela dirudit. Ez. Industrializazioa ez da txarra: oraingo gurdi azkarrak badute bere musika ere. Norbaitek esango du gauzak oso gañetik begiratzen ari gerala eta egia da. Urte batzuen barru Lezo emigrantez beterikan bere euzkaldun usaia galtzeko arrskuan egongo da...lkastolak, umeak...Gure pentsakera, gure jauntxotasuna, gure ikara besteak kotenarengatik...bata besteak ezin ikusteak, ta beste hainbeste ta hainbeste oker eta baita gure ondasun ez txikiak...zertan dira? Eta nola jokatu nai degu gaurko mundu ontan, dituan tamañako problemakin, auto-kritikaz ez badegu zuzen eta garbi ekiten?(...)<sup>177</sup>.*

Eta bestetik, ipuin lehiaketa antolatu zen, bai euskaraz eta bai gazteleraz.

Eta, pentsamenduekin jarraiki, kontzilioaren aldeko aldarriak ere ez ziren falta izan. Allerruko bazkideek ere gizarte ekintzetan parte hartzeko deia egiten zuten boletinetik:

*(...) porque es de tontos cerrar los ojos y pensar que no existen problemas para resolver, pensar que vivimos muy bien sirviendo los intereses de nuestro yoyoísmo, pues si no nos abrimos al estilo Concilio<sup>178</sup> y aceptamos la colaboración de todos los barrios nos ceñimos sólo a lo que se hace en el casco urbano, desentendiéndonos de los demas, mal podremos formar y podremos llamarnos allerrutarras sólo asistiendo al partido de balonmano de un domingo<sup>179</sup>.*

Beraz, nabarmena da ez zietela izkin egiten garaiko kezka eta eztabaidei: Inmigrazio oldea, kutsadura, industrializazioa, alienazioa...hauek guztiak jorratzen zituzten bere aldizkarian.

<sup>177</sup> Allerruren 3. boletina.

<sup>178</sup> Concilio Vaticano II, 1959-1965.

<sup>179</sup> Allerruren 3. boletina.

**Lezoko herri mugimendua XX. mendean**

Alleruetarrak parrandan. **Lezoko Fototeka.**

Euskal kulturaren gaineko kezka ere ez zuten ezkututzen, eta debekuak debeku, horren aldeko ahalegin handia egin zuten, bai salaketaren alorrean, baina baita ekintzetan ere.

Pertsona ospetsuak ere ekarri zituzten hitzaldiak eskeintzera. Esate baterako, Ricardo Arregik "Euskal Herria industrializazioaren aurrean" izeneko hitzaldia eskeini zuen.

Allerru elkarteak herria biziberritu zuela ukaezina da. Ekimenetan parte hartze-ko gogoia zuen lezoarrarentzako bilgune bilakatu zen, eta, denborarekin, hasieran zeunden baino talde gehiago osatu zen: Ehiztarien taldea, txirrindulari taldea, eta abar.

Allerrura biltzen zen herrian ezer egin nahi zuen bizilagun oro, eta horrek Allerru bilgune eta sorgune bilakatu zuen. Hirurogeiko hamarkadan sortu ziren taldeek Allerru eta horrelako taldeetan bilatu zituzten kide berriak, bertan kaptazio lanak eginez.

Hasierako urteetan arrakasta handia izan zuen taldeetako bat eskubaloiarena izan zen. Gotzon Urretabizkaiak gogoratzen duenez, herrian futbol zelairik ez izatea lagungarri izan zen kirol honek izan zuen arrakastan.



Lezoko Fototeka.

Izan ere, eta futbol zelai propioaren faltan, herriko **“aldeguna”** futbol ekipoak Nafarroako Bera herriko zelaian zuen egoitza ofiziala. “Aldeguna” taldean, Allerru taldearen sortzaile eta sustatzaile nagusietako batzuk biltzen ziren; “campeonato de frontera” zelako txapelketan aritzen ziren, muga inguruko taldeen aurka. Izenak argi adierazten du, saiatuak izanagatik ere, asmo xumea zutela, bere mailaren jakitun ziren seinale, Gotzon Urretabizkaia gogoratzen duenez<sup>180</sup>.

Allerruk herritarren babesa izan zuen, bazkide kopuruari erreparatuta argi ikus daitekeen bezala. Baina gainerako eragileekin izan zituen harremanak ez ziren beti gozoak izan. Istilu larririk ez, baina aisialdiaren inguruan ere sortzen da batzuetan lehiarik, eta Allerruk hartu zuen indarrak ez zituen denak gustora utzi, bildu dugun hainbat testigantza arabera.

Esate baterako, eta estatutuen arabera zuzendaritza batzordean Guraso Elkarteak toki bat gordea zuen arren, hauek, talde bezala, ez ziren bileretara joaten, ezta antolatzen ziren ekitaldietara ere. Haustura hau batez ere zine klubaren inguruan gertatu omen zen: Guraso elkartekoek ere filmak eskeintzen zituzten larunbatetan, baina belaunaldi gazteek nahiago izan zuten Allerruren ingurura bildu, hauek zine kluba antolatu zutenean.

<sup>180</sup> **Aldeguna** futbol taldearen partaideetako batzuk ziren: Antonio Pikabea(arduraduna), Joseba Urkizu, Ignacio Cordero, Mikel Labandibar, Tomas Cordero, Gotzon Urretabizkaia...



## Lezoko herri mugimendua XX. mendean

Udaletxearekin ere harremanak halamoduzkoak izan ziren maiz. Mugimendu herritarrek instituzioetan zeuden zirrikituak baliatzea erabaki zutenean, laguntza handiagoa bildu zuten udaletxetik, behin hauen baitan aniztasuna handiagoa izan zenean. Hori 1965etik aurrera gertatu zen<sup>181</sup>. Horretarako, udalaren “comisión de festejos” zelakoan parte hartzen hasi ziren Allerrukoak.

Baina ez zen Allerru izan Lezon sortuko zen kultur adierazpen bakarra. Hor izan zen **OSKARBI** ere.

### Oskarbi taldea

Euskal Herriko gazteen artean, mundu mailako gazteen artean bezalaxe, musika izan zen sozializaziorako tresna nagusienetako bat. Kezkak eta aldarrikape-nak bideratzeko tresna izan zen kantugintza 60ko hamarkadatik aurrera, eta mugimendu sendoa sortu zen Euskal Herrian.

Mundu mailan, folk musikak izugarritzko indarra hartu zuen, batez ere aldarrikapen esparruetan, eta ezker ideologiako kulturaren kantautoreek pisu handia izan zuten. Ildo honetan koka daiteke Oskarbi taldea.

“Ez dok amairu” taldearen hastapenetan parte hartutako taldea izan zen Oskarbi; koro batetan ziharduten hainbat herritar gaztek taldea osatu zuten koroa desegin zenean, 1966an. Helburua euskal musika zabaltzea zen. Izena, autoritateari aurre egiteko aldarri gisa erabili zuten, izan ere, Pasaiako ume jaio berri bati Oskarbi izena jarri nahi zioten, baina ez zieten utzi gurasoei, euskal izena zela eta. Hura salatzeke, Oskarbi jarri zioten taldeari. Partaideak Joxe Luis Treku, Iñaki Maritxalar, Agustina Pontesta, Pello Garbizu, Itziar Maritxalar eta Olatz Fresnedo izan ziren, beste hainbaten artean.

Zentsura izan zuten bidelagun bere ekitaldietan, eta derrigorrez abestu beharreko kantuak zehazten zizkien Donostiako “Turismo eta informazio bulegoak”. Zentsorea zelatan izaten zuten kantaldietan, eta nabarmen jarduten zuenez, ezagutu egiten zuten. Urte luzez aritu ziren kantuan, 1985ean desagertu zen arte<sup>182</sup>.

<sup>181</sup> Joseba Urkizuk dioenez, 1965etik aurrera udaletxeetan irekitze prozesu bat eman zen. Terzioen sistemaren bitartez, jende berria sartu zen. Lezoko udaletxean jauntxokeria nagusi izan aren, “jauntxo” horietako batzuk EAJren ingurukoak ziren, eta honek lagundu zuen Allerru bezalako elkarteekin harremanak gozatzerako orduan.

<sup>182</sup> *Orratz! 37. zkia*. 2001eko urtarrila. Hala ere, partaideetako batzuk gaur egun kantagintzan darraite.

#### 4.5 EKIMEN POLITIKOAK MARTXAN

Lezoko herria hasia zen gerrak eragindako lozorroa astintzen; ekimen berriek indarberritzea zekarten, eta indaberritze horrek beste ekimen gehiago zekartzan. ELA sindikatuaren propaganda<sup>183</sup> zen hirurogehiko hamarkadaren hasieran Lezon gehien banatzen zena, Landeia aldizkaria, hain zuzen ere.

Baina, aldizkariak gain, ikurrinak jartzen zituzten kanpandorrean, edota afitxetan margotutako ikurrina txikiak barreiatzen zituzten kaleetan<sup>184</sup>. Aberri eguna, izkutuan bazen ere, ospatu egiten zen, urtero herri ezberdin batetan, eta lezoar abertzaleak ere joaten ziren bertara: 1963an Gernikan antolatutako aberri egunerako autobusa antolatu zuten, eta gauza bera egin zuten hurrengo urtean, Bergarara joateko<sup>185</sup>. Errepublikarrek, bere aldetik, errepublikako banderaren koloreak zituzten lazoak eramaten zituzten jakan jarrita, apirilaren 14ean.

Euskal Herri mailan, belaunaldi berri bat sortu zen, grina berrien eta abertzaletasun klasikoarekin eman zen apurketaren islada izango zena. Gazteek EAJren geldotasuna ez zuten gogoko, ezker alderdien presentzia (PCE, PSOE) oso apala zen, eta atzerrian zegoen Eusko Jaurlaritzaren eta EAJren zuzendaritzaren irizpideak ez zituzten beretzat hartzen. Apenas zegoen harremanik hego Euskal Herriko eta atzerriko abertzaleen artean, EAJn edota ELAn egituratuak ziren abertzaleen arteko ez at.

Gainera, gazteek ikuspegi ezkertiarra zuten, orduko marxismo moeta ezberdinek gazte belaunaldi oso bat zipristindu baitzuten. Deskolonizazio prozesuek, blokeen arteko talkek eta existentzialismoak, gazteak ezkererara bildu zituen. Testuinguru honetan, abertzaletasuna eta ezker ideologia uztartzeko ahalginek, abertzaletasun klasikoa eta gazte belaunaldi berrien abertzaletasun zaharberritua banandu egiten zituzten.

Belaunaldi berri honek abertzaletasuna oso bestela ulertzen zuen, eta aurreko belaunaldietan hizkuntzak garrantzia sinboliko handia baldin bazuen, orain elementu zentral bilakatuko zen. Kontutan hartu beharra dago, frankismoaren eta migrazio masiboen ondorioz, euskara ama hizkuntza ez zuen lehenbiziko belaunaldia zela, eta horrek gazte hauek euskararen defentsara bildu zituen. Imanol Esnaolak honela laburbiltzen du gazteek bizi izan zuten errealitatea:

<sup>183</sup> Joxe Miguel Trekuak ekartzen zuen propaganda. Kartzelan izan ziren Trekutarrak, bai eta Zuloaga ere, ELAkoak zirelako. Joseba Urkizuk elkarrizketan esana.

<sup>184</sup> Joseba Urkizu.

<sup>185</sup> Imanol Esnaola: *op. cit.*

## Lezoko herri mugimendua XX. mendean

*Herri giroan eta harreman sarean berebiziko eragina izan zuen aldaketa gertatu zen, Lezoren historian lehen aldiz, euskara ez zen beste hizkuntza bat herritarren arteko harremanetarako hizkuntza bihurtzen hasi baitzen<sup>186</sup>.*

Horri ezker ideologiaren eragina gehitzen bazaio, erraz ulertzen da etnia eta arraza bezalako kontzeptuek indarra galdu izana abertzaletasunaren formulazio ideologikoetan, hizkuntzaren mesedetan.

*“Horiek horrela hau esan dugu: euskerak hortaratu duela Euskal Herriaren oinarrizko izakera edo nazio-jite berezia. Baiña hau, asko izanagatik ere, ez da dana. (...) hizkuntzak ematen baitu ere herritartasun giroa, herritar konzientzia, ahaidetasun-ustea, herri-kidetasuna, edo aberkide-anaitasunik iraunkorra” Hizkuntza eta herri-kidetasuna.”<sup>187</sup>*

Euskara galzorian zekusan belaunaldi berri hark bere seme-alabak euskaldundu zitezen nahi zuen, eta horretarako ikastolen mugimendua berpiztu zuten.

<sup>186</sup> Ibidem.

<sup>187</sup> Txillardegí: *Branka aldizkaria*. 2. zkia. 1966.

#### 4.6 BASERRITARREN KOOPERATIBA: ANTIXILLASTEGI

**N**ekazariak ere ez ziren geldi geratu; gerra aurreko **Denantzako** kooperatibarekin egin bezala, baserritarrak berriz ere bildu egin ziren, elkarlana sustatzeko asmoz.

Industriaren bultzakadak kalte egin zion nekazal jarduerari Lezon; alde batetik, baserritar asko industriara bideratu zituen, baina gainera, lur asko galdu zen industriaren mesedetan.

Nekazaritzarako geratzen zen lurak ere industriaren “zeharkalteak” pairatzen zituen. Kutsadurak kalte handia egin zion sagardogintzari eta orohar nekazal ekoizpenari<sup>188</sup>.

1972an, 57 nekazal esplotaziotatik, 20 baino ez ziren egun osoko jarduna eskatzen zutenak; gainerako 37etan, bertakoek kanpoan egiten zuten lan, eta ogia etxean egindako lanarekin osatzen zuten<sup>189</sup>.

Kooperatiba berriak “**Antxillastegi**” izango zuen izena, baina sortu aurretik, “**cooperatiba del campo**” deitu zioten talde sustatzaileari. Ideia hitzaldi batzuen ondoren sortu zen, izan ere, Oiartzunen bazen jada antzeko kooperatiba bat, eta esperientzien berri emateko “extensión sindical” eskualde mailako erakundeak aipatu hitzaldiak antolatu zituen.

1966ko urtarrilaren 20ean egin zuten lur sailen eskaera udaletxean, eta “mandoen hilerrian” egin zioten toki ekimenari<sup>190</sup>. Eskaeran ageri denez, pentsua eta ongarriak biltzeko gune izango zen bertan altxatuko zuten etxola<sup>191</sup>.

Urte horretako martxoan eman zieten baimena.

Gehien bat, pentsua ekartzen zuten: Garagarra, artoa, baba, alfalfa, lastoa... Nafarroatik ekartzen zuten. Kopuru handiagoa erosita, prezioa merketu egiten zen. Prezioa bertan negoziatu eta enpresa saltzaileak ekartzen zuen.

Gainera, bi errota jarri zituzten, bakoitzak orduko 7 zaku xehetzen zituelarik. Gerora beste errota modernoago bat erosi zuten, gaitasun handiagokoa.

Baserritarren bilgune izan zen Antxillastegi urte luzez, eta urtero, maiatzaren 15ean, San Isidron, bazkaria egiteko ohitura hartu zuten.

<sup>188</sup> Carlos Etxezurieta. *op. cit.*

<sup>189</sup> *Ibidem.*

<sup>190</sup> 1966ko martxoan izandako udal batza batetan hartutako erabakia. *Lezoko Udal Artxibo Historikoa.*

<sup>191</sup> *Lezoko Udal Artxibo Historikoa.*

#### 4.7 1970ETIK AURRERA. ALDAKETAK HARRAPALADAN.

**F**rankismoaren baitango kontraesanak gero eta nabarmenagoak hasi ziren izaten 1970etik aurrera. Langile mugimenduaren berrantolaketa, errejimeneraren kontrako erantzun armatua (batez ere Euskal Herrian), errejimeneraren baitango borrokak, Frankoren osasuna, nazioarteko egoera...denak ematen zuen aditzera aldaketa bazetorrela.

Hego Euskal Herrian, ETA erakundea izan zen aldaketa honen akuilu nagusia. 1951ean EKIN taldea sortu zenetik, 1973an Espainiako presidente Carrero Blanco erail zuen arte, bere ekintzek belaunaldi oso bat astindu zuten, eta estatuaren errepresioak elikatzen zuen “espiral” famatuak ehunka gazte bildu zituen borroka ezberdinetara. Euskararen aldeko borroka, langile mugimendua, langile auzoen azpiegituren aldeko borrokak...denek izan zuten, zuzenean edo zeharka, ETAREN astinduaren eragina. Deskolonizazioaren urteak ziren, mundu mailan nonahi sortu ziren boterearen aurkako talde armatuak, Vietnamgo gerra puri purian zegoen, Kubako iraultzak milaka gazteren mirespena lortu zuen. Euskal Herria ez zen korronte horietatik at.

1968ko ekainaren 7an, Tolosan, goardia zibil bat hil zuten polizia kontrol batetik ihesean zebiltzan bi ETAKidek. Haietako bat, Txabi Etxebarrieta Bilbotarra, Benta Haundin harrapatu eta hil egin zuen Goardia zibilak.

Urte bereko abuztuaren 2an ETAK Meliton Manzanos polizia-torturazalea erail zuen Irunen. Gobernuak “estado de excepción” zelakoa agindu zuen Gipuzkoa eta Bizkaiarako. Zurrumbiloa martxan zen.

1970ean egin zen Burgoseko epaiketak<sup>192</sup> epaituen aldeko elkartasun mugimendua sortu zuen, bai nazioarte mailan, baita Euskal Herri mailan ere.

Langile mugimenduak ere susperraldi nabarmena ezagutu zuen. Frankismoak ezarritako estruktura mugatzaileak (sindikatu bertikala) alde batera utzi eta sindikatu libreak antolatzeari ekin zitzaion. Sindikatu hauen batasunetik Langileen Komisioak sortu ziren. Hauek izan ziren estatu mailan langileen borrokaldien sustatzaile nagusiak.

ETAK ere bere langile frontea osatu zuen, izan ere, eta abertzaletasuna ardatz nagusi bazuen ere, ezkertiarzat baitzuen bere burua, eta langileriarekin bat egin nahi zuen frankismoaren aurkako borrokan. ETAREN baitan, hamarkada hartan, tentsio une eta hausturak ugariak izan ziren, bere burua nagusiki ezkertiarzat edo abertzaletzat zuten kideen artean.

<sup>192</sup> Hamasei euskaldun epaitu zituzten. ETAREN sei militanterentzat heriotza zigorra eskatu zuten epaiketari.

1975eko irailaren 27an ETaren militante Txiki eta Otaegi afusilatua izan ziren, FRAP erakunde armatuko Xose Humberto Baena Alonso, Jose Luis Sanchez Bravo eta Ramon Garcia Sanzekin batera. Afusilaketa hauen ondorioz Francok mundu mailako arbuioa jaso zuen. Herrian ere samina zabaldu zuten fusilamendu haiek. Lezon bertan, Gure txoko tabernan bildu ziren herritar asko, telebista aurrean, diktadoreak barkamena emango zuen esperantzaz. Aita Santuak ere deitu egin zion Frankori, barkamena sina zezan eskatzeko, baina hark ez zuen amore eman.

Bi hilabete beranduago, Franko hil egin zen, eta transizioa deituriko epeari hasiera eman zitzaion.

Frankok, hil aurretik, gaur egun Espainiako errege den Juan Carlos Borbon izendatu zuen bere oinordeko, eta errejimenaren inguruko teknokrata eta ministroek errejimen konstituzional monarkikoa diseinatzeari ekin zioten. Urte nahasiak izan ziren, eta 1975etik 1982ra arte iraun zuen egoera nahasi hark gatazka ugari ezagutu zuen gizarte mailan, batez ere hego Euskal Herrian. Batzuk erreformaren alde egingo zuten, halabehartuta edo, eta beste batzuk berriz uko egin zioten hausturan oinarrituko ez zen errejimen baten antolakuntzan parte hartzeari. 1981ean, tentsioa puri-purian zela, Tejero Goardia zibilak estatu kolpea jo zuen, eta, saiakerak porrot egin bazuen ere, erreforman



Ixkulin Elkartea. **Lezoko Fototeka.**

## Lezoko herri mugimendua XX. mendean

aurrikusita zeuden hainbat neurri bazterrera uztea lortu zuen. LOAPA<sup>193</sup> legearen bitartez estatu barruko “nazionalitate historikoei” mugak ezarri zitzaizkien, tokian tokiko estatutuek konstituzioaren “galbahea” izango baitzuten derrigorrezko, legeak onartzerako orduan. Horrek autonomia estatutuen gaitasuna ikaragarri murriztu zuen, eta Katalunyako, Euskal Herriko eta Galizako abertzaleek gogor salatuko bazuten ere, ez zuten estatuak atzera egin zezan lortu.

### Lezon, frankismoa amaitu baino lehen, azken elkarte bat sortu zen: Ixkulin

Testuinguru nahasi honetan, eta ezinezkoa badirudi ere, bazegoen politikaz aparte antolatze gogorik. Gizarte mailan tentsio nabarmena zen arren, batzuk aisialdia jorratzeko apostuari heltzen zioten, batzuen gozamenerako eta beste batzuen haserretarako. Izan ere, 1975ean Lezon **Ixkulin** elkarte sortu zenean, Lezon ez zioten denek harrera berdina egin. Politizatuenen artean, Ixkulin konpromezurik nahi ez zuten, edota konpromezu nagiak hartzen zituztenen txoko izateko sortua zela uste zuten<sup>194</sup>. Gainera, gizonezkoek baino ez zuten bazkide izateko eskubidea, elkarte gastronomikoen tradizioari jarraiki. Elkarte gastronomikoa izaki, otordu goxoak prestatzen lagundu du herriko jaietan, ikastolaren aldeko ekimenetan, eta beste hainbat ekitalditan ere. Jaietako bertsolaritza zein herri kirolen atalak ere bere gain hartu izan ditu elkarteak.



Aldeguna peña-ko kideak. *Lezoko Fototeka*.

<sup>193</sup> LOAPA: Ley de Organización Armónica del Proceso Autonómico. 1982eko uztailaren 30ean onartua.

<sup>194</sup> Halabaina, bazkideen inguruan galdetuta, orotariko joera politikoak aurki daitezke.

Lehenbiziko urteetan, ospe haundiko karroza desfilea antolatu zuen, gerra aurrean Gure Borda eta Bixi Bixi peñakoek antolatu zituzten jaien gisan.

Ixkulin gisa ezaguna izan aurretik, alegia, **Aldeguna peña** zirenean, ikastolaren aldeko diru bilketan ere parte hartu zuten.

1980tik 1985era bitarte arraunketan ere ibili ziren: trainerila eta batel bana erosi zuten horretarako, eta Gipuzkoa mailako txapelketetan ibili ziren. Ekimena bertan behera geratu zen 1985ean, nekezegia baizitzaien gastuei eta beharrek antolakuntzari aurre egitea.

Izan ere, hasieran Aldeguna deitu nahi izan zioten elkarteari; herrian bazegoen izen hori zuen futbol talde bat, eta hor zuen jatorria ekimen berriak. Baina errejistrora joan zirenean, ez zieten izen hori jartzen utzi, Oiartzunen bazelako izen bereko beste elkarteren bat. Antigua auzoko Ixtingorra elkartearen estatutuak izan zituzten oinarri bereak idazteko. Gauzak horrela, Jaizkibelgo bigarren tontorraren izena aukeratu zuten. Kale nagusiko Marc Legasseren bizileku izan zen Jamot enea etxean zabaldu zuten elkartea.

Aipatu dugu herrian izan zela elkarre berriaren kontrako iritzirik ere. Batzuek ludikoegitzat jo zuten, giro politiko eta kulturala pil-pilean zegoen hartan. Allerruk zuen indarra kontutan hartuta, hainbat herritarrek ez zuen ulertu zergaitik sortu behar zen beste elkarre bat. Gainera, bazkide kopurua 50era mugatu zuten, lokaletan ez baitzuten jende gehiagorentzako tokirik. Herritar askok ez zuen hori ondo ikusi, talde pribatuaren tankera hartzen baitzioten elkarteari.

Ilusioz eta liskarrez betetako unearen atarian zen Eukal Herria. Transizioaren atarian.



## V. ATALA

# FRANKISMO OSTEA

## 5.1 TRANSIZIO POLITIKOA: GIRO NAHASIA

**A**ipatua dugu 60ko hamarkadaren erdialdetik aurrera, frankoren aurkako talde ugari sortu zela, eta baita haien arteko liskar ugari izan zela ere. Banaketak, ezin ikusiak, elkarri kargu hartzeak... ezin konta ahala eman ziren. Herriak ez zuen guztien berri, eta urrunetik bizi zituen banaketa haiek. ETAn, ELAn, PCEn... denetan izan ziren barne eztabaida handiak. Herri xeheak Euskal Herrian, orokorrean, ixilean txalotzen zituen frankismoaren aurkako taldeak, barne banaketa horietan gehiegi erreparatu gabe.

Transizio garaian, ordea, lerratu beharra eman zen. Jada ez ziren ezkutuko eztabaidak, urrunak, baizik egoera politiko berri baten kudeaketa helburu zuten taldeen artean ematen ziren eztabaidak. Eta aurreko belaunaldian gutxi batzuren arteko ezin ikusiak zirenak, herrira zabaldu ziren, herrietan giro nahasia sortzeraino. Ilusio urteak izan ziren, bizi biziak, baina baita haserre, liskar eta porrot urteak ere. Iskanbila haietako batzuren ondorioek luzaroan iraun zuten, eta herri txiki batzuetan, gaurdaino iraun duten zauri gisa mantendu dira. Zauri guztiak ez dira itxi. Itxaropenari ate bat zabaldu nahi badiogu, eta Pello Garbizuren hitzei erreparatzen badiegu, akaso Lizarra Garaziren garaian<sup>195</sup> eman zen zauriak ixteko urratsen bat, azkeneko hogeitun urteetan ematen ez zena. Transizioan zauriak ireki bai, baina hurrengo urteetako politikagintzak ere ez zuen batere lagundu.

Ezker abertzaleak, Herri Batasuna taldean bilduko zenak, alde batera jo zuen, eta gainerako sentsibilitate politikoek bat egin zuten instituzio jaio berrien aldeko defentsan. Bategite horren mugarri izan zen 1988ko Ajuria eneako hitzarmena. Hitzarmen honek lubakia zabalduko zuen ezker abertzalearen eta gainerakoen artean.

1976an Erreforma politikorako legea onartu zen estatu mailan, 1977an amnistia eman zitzaien preso politikoei, 1978an konstituzioa onartu egin zen, eta 1979an Gernikako estatutua.

Aldaketa hauek guztiek nabarmen utzi zuten agerian giro politiko nahasia: Konstituzioa, estatu mailan, %88ko botoekin onartu zen, baina hego Euskal Herrian, oso bestelako emaitzak izan zituen. Ezezkoak (ETAren inguruko taldeak), eta abstentzioak (EAJk bultzatuak), baiezkoak baino gehiago izan ziren.

Autonomia estatutuaren inguruko erreferendumean, 1979an, gauzak bestela izan ziren. EAJk eta EIAk baiezkoa eman zuten, eta urtebete lehenago sortua zen HBk abestentziorako deia egin zuen. Estatutua onartua izan zen, botoen

<sup>195</sup> 1998ko akordioa, transizioa gertatu eta hogeitun urtera.

%90arekin, baina HBk eskatzen zuen abstentzio aktiboa oso altua izan zen, izan ere, parte hartzea %59koa izan baitzen.

Lezon, antzeko emaitzak izan ziren: hauteslegoaren %55a abstenituko zen, eta botoa eman zutenetatik %92,2ak alde bozkatu zuen.

Bistan da Konstituzioaren gaineko erreferendumetik, Autonomia estatutuaren gaineko erreferenduma arte, aldaketak eman zirela ezker abertzalean. Izan ere, ETA erakundea bi adarretan zegoen banatuta 1974tik, baina banaketa honek ez zuen oihartzun handirik izan, hasiera batetan, herritarren artean. ETA militarra alde batetik, ETA politiko-militarra bestetik. 1977an, ETA politiko-militarrak adar politikoa osatu zuen, EIA alderdia.

KAS blokean (koordinadora Abertzale Sozialista), alderdi asko zegoen, baita ETA politiko-militarra ere, eta ETA militarrek babesa ematen zion. Baina Autonomia estatutuaren erreferendumaz geroztik, bi ezker abertzale horien arteko desadostasunak handitu egin ziren. ETA politiko militarrek erreforma politikoaren alde egin zuen (nahiz konstituzioa onartu ez), eta armak mantentzen zituen, "Autonomia Estatutuaren defentsa bermatzeko". ETA militarrek, berriz, erreformari ezezkoa eman eta KAS alternatiba defendatu zuen.

Lezon ere bizi izan zen eztabaida hau. Batzuek EIA (gero Euskadiko Ezkerra) alderdira jo zuten, eta beste batzuk HBra.

Gatazka armatuak, bien bitartean, ez zuen etenik. ETArek bi adarrek gogor jarraitu zuten bere eraso armatuekin; Lezon **Emilio Guezala** hil zuten 1976an, poliziaren salatari izatea leporatuta. **Rafael Rekaola Landa** ere hil zuten 1978an, salatari zelakoan. Estatuko aparatuek, bere aldetik, kupidagabe erabiltzen zuten biolentzia, Euskal Herriaren subirautea nahiak mugatzeko. Torturak, hilketak,...ezin konta ahala gertatu ziren.

### **Estatuak Lezon erasotu**

Independienteak udaletxean zirela, 1979an, estatuaren inguruko talde armatuek Lezoko udaletxean bonba jarri zuen, arkupetan.

1980ko urtarrilaren 16an Batallón Vasco Español taldeak Aministiaren aldeko Batzordeetako kide **Carlos Saldise** erail zuen Lezon; "Luis Uriarte" komandoak hartu zuen bere gain erailketa. Estatu krimenetan ohiko izan zen bezala, ekintza beste talde batek ere hartu zuen bere gain, GAE taldeak hain zuten ere, nahasmena sortzeko asmo argiarekin.

## Lezoko herri mugimendua XX. mendean



Carlos Saldiasen erailketa salatzeako elkarretaratzea. **Lezo Aldizkaria**.

Gaueko hamabitan bi pertsonak hik zuten Carlos, Aralar kaleko bere etxean.

Borrokalari tinkoa, aurretik ere zauritua izana zen manifestaldi batetan, polizia-ren gomazko pelota batek begian emanda. Mehatxuak jaso zituen eraila izan aurretik, bai bere altzari dendan bertan eskuorriak botata, bai telefono deien bitartez ere. Lezoko udalak ekintza gaitzesteko mozioa onartu zuen:

*“Ekintza horien arurrean gelditzen zaigun irtenbide bakarra mobilizazioa eta herri borroka da. Eta hori ez da amaituko Euskal Herriak autogobernua lortu arte”.*

Ez zen Carlos izan estatuaren biktima bakarra.

**Victor Fernandez Ochoari** bi tiro eman zizkion BVEk, Hernanin, eta larriki zauritu. Tetraplejiko utzi zuten betiko.

Jaiotzez nafarra zen, izan ere bere gurasoek Ekalara alde egin zuten gerratik ihesi. Aita frontean ibili zen, errepublikaren alde.



Victor Fernández Ochoa. **Lezo Aldizkaria.**

Urte luzez aritu zen Victor, atentatuaren ostean, bere zauriak sendatu nahian, eta Mexikora ere egin zuen bidaia, ebakuntza egiteko. Altamirako Alzate auzoan, “**Victorren lagunak**” izeneko taldea sortu zen, bere osaketak sortuko zituen gastuei aurre egiteko. 4000000 pezetatako gastuak izango zirela zioten bere aldeko taldekoek, eta diru bilketa abiatu zuten.

1995eko martxoan hil zen, bere bizitzaren azken hamalau urteetan ospitalera hamaika joan etorri egin eta gero.

Bestalde, Juanito Trecet lezoarra ere frantses estatuak entregatua izan zen 1980ean, ondotik hemezortzi urte eman zituelarik preso.

1981ean Jose Luis Gurrutxaga atxilotu eta torturatu zuten.

1982an, amnistiaren aldeko mugimenduaren inguruan zebilen bizilagun talde baten kontrako polizia sarekada izan zen; hamabi lagun atxilotu zituzten, eta denak askatu bazituzten ere, galdeketa gogorrek eta torturak jasan zituzten poliziaren eskutik.

Urtebete beranduago, Ramon Zabaleta eta Javi Garmendia izan ziren atxilotu eta espetxeratuak.

## 5.2 TRANSIZIO OSTEA: KRISI SOZIO-EKONOMIKOA ETA HERRI AUTOERAKUNTZA

**T**ransizio osteko lehen udal hauteskundeetan, 1979an, EAJ izan zen garaile, baina ez zuen alkatetza eskuratu, gainerako indarren arteko hitzarmen bat izan zela medio. EAJk 5 zinegotzi lortu zituen, hautagaitza independenteak 4, EMK alderdiak 1, eta Euskadiko Ezkerrak 3; azken hiru indar hauek batu eta independenteetako Patri Urkizu hautatu zuten alkate. Alkate orde, berriz, Euskadiko Ezkerrako Pello Garbizu jarri zuten. Euskadiko Ezkerrak zalantzak izan zituen independenteen botoa ematerako orduan; batzuk jeltxoen alde nahi zuten egin, eta besteek berriz independenteen aldeko hautua zuten gogokoago. Izan ere, ez baitzuten argi independenteen joera politikoa zein zen.

Lezoko independenteetan joera politikoa ezberdinak elkartzen ziren. Batzuk, gero, ezker abertzalera jo zuten, eta beste batzuk ez zuten geroztik militantzia politikoa jarraitu. Jatorria ere orotariokoa zen. ORT<sup>196</sup> taldetik batzuk, ETaren adar ezberdinetatik beste batzuk, inongo taldetan ibilitakoak ez ziren beste hainbat... Kontutan hartu behar da, independenteak sortu zirenean, Lezon ez zegoela HBren talderik, militante bakan batzuk baizik.

Bere agintaldian egin zituzten artean, Altamirako auzoa izan zen garrantzitsuenetakoa bat. Hasierako egitasmoak 1200 etxebizitza aurrikusten zituen, eta haien kontra egon arren, azken egitasmoa 102 etxebizitzak onartu zituzten, halaberrez<sup>197</sup>.

Politikan ezezik, gizartearen beste esparru batzutan ere giroa ez zen gozoa. Ekonomia aldetik jota zegoen hego Euskal Herria. Industria pisutsuaren gainbeherak enpresa askoren itxiera ekarri zuen, eta berrogei ta hamar urtetan, lehenbizikoz, migrazio fluxua eten egin zen. Hamarkada osoan nozitu ziren krisialdi horren ondorioak. 1973ko petroleoaren krisitik hasi, eta industriaren gainbeherak behe joera arte, urte latzak izan ziren. Langabezia tasak ikaragarri egin zuen gora, batez ere industria guneetan, gazteen artean %50eko langabezia tasa izateraino.

Esan gabe doa horrek guztiak eragin zuzena izan zuela belaunaldi berriengan. Krisi ekonomikoa, baldintza politikoa...gazteak gogor kolpatzen zituzten, eta belaunaldi oso bat noraezean ibili zen, "no future" gogoan.

<sup>196</sup> Organización Revolucionaria de los Trabajadores. Lezon izan zuten taldea; gero gehienak ezker abertzalera bildu ziren; bilerak Zumeta tabernan egiten zituzten, plazan. Ourretako jendearekin koordinatzen ziren.

<sup>197</sup> Independienteen inguruko datuak, Mikel Arrizabalagak emandako elkarrizketan bilduak.

Gazte antolakuntza aberatsa izan zen laurogeiko hamarkadan, eta horrek orotariko mugimenduen sorrera ekarri zuen: Okupazioa, intsumisioa, ezker abertzalearen inguruko gazte taldeak, aisialdia taldeak, eta abar luze bat.

Baina etsipena ere zabaldu zen sektore askoren artean. Etsipena eta erresistentzia elkarren ondoan garatu ziren krisiak jotako hego Euskal Herrian.

Krisiak soilik ez, drogak ere gogor astindu zuen euskal gazteria. Orereta, Pasaia... ehunka gazte murgildu zen drogaren munduan. Lezon heroinaren eragina Oreretan eta Pasaian baino askoz gutxiago nozitu zuten, baina beste drogak (sintetikoak eta abar) dezente kontsumitu ziren laurogeiko hamarkadan.

### 5.2.1. DROGA

Lezon, gainera, gogotik egin zitzaion aurre droga trafikoari, herri boterea tresna erabilita. Ez zegoen jendea gaztediaren gainbehera besterik gabe ikusteko prest, eta droga trafikatzailerak jazarri egin zituzten, batzutan, herritik kanporatzeraino.

Hala gertatu zen **Altamira** auzoan. **Altamirako Auzo Elkartearen** ekimenez, auzoko trafikanteen kontrako dinamika abiatu zuten, mobilizazio ugari antolatu zutelarik. Ez zen borroka erraza izan, eta Goardia Zibilaren jazarpena ere jasan behar izan zuten. Urte batzuk beranduago jakingo zen Goardia Zibilak droga trafikoarekin zuen harreman estua.



Lezo Aldizkaria.

## Lezoko herri mugimendua XX. mendean

1985etik aurrera, droga trafikoa gora egin zuen Altamiran. Oreretatik eta Lezotik bertara joaten ziren droga erostera, eta auzo elkarteak neurriak hartu zituen.

Hasteko, batzarrak antolatu zituzten, droga trafikoaren aurka. Gero, piketeak jarri zituzten, trafikanteak zelatatzeke eta bere jarduera oztopatzeko. Gauez gizonak, eta egunez gazte eta emakumeak aritu ziren zaintza lan hartan. Droga saltzaileekin liskarrak berehala sortu ziren. Trafikanteek mehatxuka erantzun zuten, eta auzotarrek honako kartela jarri zuten auzoaren sarreran:

### “Gamelu garbiketan dihardugu”

Honako idatzi hau argitaratu zuten segidan, azken abisua emateko:

*“Altamirako trafikanteei zera adierazten zaie: gaur, 1988ko ekainaren 12tik aurrera, bizilagunek ez dugu mehatxurik onartuko, eta mehatxurik balego, ondorioei aurre egin beharko diezue”.*

Ustezko trafikante batek, *Zorongo* izengoitiz ezagutua zenak, Encarna Redondo bizilaguna jipoitu zuen erantzun gisa, eta Goardia Zibilak erasotzailea eta erasotuaren defentsan saiatu zen bizilagun bat eraman zituen atxilotuta. *Zorongok* erasotua bera izan zen itxurak egin nahi izan zituen, biktima rola bereganatuz.

Ustezko droga saltzaileek gogor erantzun zuten herri ekimena, eta mehatxuek ez zuten etenik izan, pistola ere erabili zutelarik jendea kikiltzeko.

Auzoan giroa bero-bero zegoen. 1988ko ekainaren 21eko gauean, egoerak eztanda egin zuen. Bizilagunek bi trafikante atera zituzten auzotik, eta segidan beste trafikante batzuk ere auzoa utzi egin zuten.

Gero epaketak etorri ziren, eta Altamirako hiru bizilagunek kalte ordaina eman behar izan zieten ustezko bi trafikatzaileri.

Droga trafikoarekin arazoa ez zen ordea Altamira auzora mugatu, baina bertan izan zuen eragin gehien. Droga trafikoaren aurkako mugimendu honek eragin handia izan zuen Lezon. Horretan zihardutenetako batzuk **ASKAGINTZA**<sup>198</sup> taldea antolatu zuten.

<sup>198</sup> Drogaren gaitza zabaldu zen lehenengo urteetan, Gipuzkoan, DEE (Drogak Eragindakoen Elkarte) izan zen eratu zen lehena. Bertako hainbatek sortuko zuten ASKAGINTZA gero.



Talde honek Gipuzkoan izan zuen jatorria 1983an, eta urte batzuk beranduago, beste lurraldeetako hainbat talderekin<sup>199</sup> bat eginda, hego Euskal Herri osora zabaldu zen.

Gaian sakondu ahala, salaketa soila egiteari utzi eta prebentzioari heldu zioten. Gainera, droga trafikoaren atzean dauden interes ekonomiko, politiko eta ideologikoak ere izan zituzten aztergai. Nahiko argi zuten, drogak Euskal Herrian estatuko beste inon baino eragina handiagoa izatea ez zela kasualitatea, baizik eta atzetik bazegoela gaztedia kontrolatzeko asmo bat. Gaztedia bera suntsitzerainoko asmo bat. Ez zen kasualitatea, haien aburuz, Europa mailan, proportzionalki, Euskal herria eta ipar Irlandan izatea droga kontsumo gehien. Denborak argi utzi zuen ez zebiltzala oker, izan ere, Goardia Zibilak droga trafikoarekin lotura estuak zituela jakin baitzen urte batzuk beranduago.

Drogaren gaia landu ahala, bere posizioa zorrotz joan ziren; prebentzioari lehen-tasuna emanez lehenbizi, eta, gerora, kontsumoaren erregulazioa aldarrikatuz. Drogak beti existitu direla defendatu zuten, eta haiekin elkarbizitzen ikasi behar zela argudiatu.

Lezoko Askagintzari dagokionez, lan oparoa egin zuten, bai mobilizazio anto-laketan, bai informazio eta konzientziazio lanetan, eta baita gazteen drogaren inguruko hezkuntzan ere.

**Andui** izeneko aldizkaria argitaratu zuen. Elebiduna, drogomenpekotasunaren inguruko artikulua argitaratzen zituen.

1990ean, lan ildo nagusiak zehazten zituen idatzia aurkeztu zuen Lezoko Askagintzak:

*Historiak erakutsi digu zibilizazio bakoitzak zenbait DROGEN kontsumoa egin izan duela.*

*Drogen kontsumo hori giza, kultur, jai, erlijio...ohiturei nahiko loturik agertu izanda eta beti ere oreka sozial handiagoko egoeratan.*

*Gaur egungo zibilizaioan milaka droga daude eta kontsumitzeko ere milaka era desberdinak, baina hau, desoreka sozial handiko egoeratan ematen da, kontsumitzeko erak indibidualistagoak izanik eta ohitura sozial eta kulturekin duten zerkusia txikia delarik.*

<sup>199</sup> Dzarraska Bizkaian, Txanpiñon Gasteizen hainbat talde ezberdin, Nafarroan.

**Lezoko herri mugimendua XX. mendean**

*Drogen kontsumoa **krisialdia jasaten ari den gizarte batean** bizi garenon beste seinale bat da, bere balioak eta azpiegiturak kolokan dituen eta sakoneko eraldaketaren beharrea dagoen gizartearena.*

*Gaur egun eta Euskal Herrian, drogen kontsumoa komunitatea osatzen dugun lagunen aurkako beste eraso tresna bat besterik ez da, ihesbide modu bat, desio ez dugun errealitatetik alde egiteko era bat, Askatasun eta Osasun maila handiagoak izango dituen eraketa pertsonal eta kolektiboan konpromezurik ez hartzeko bide bat.*

*Horrexegatik, hain zuzen, funtsezkoena ez da nola eta zein droga hartzen dugun, baizik eta ZERGATIK, ze motibogatik hartu eta eskatzen dugun, osasun eta askatasun maila minimoekin kontrajarriak dauden mailetaraino erabiliz.*

*DROGOMENPEKOTASUNAK, bere erroak amaigabeko ezberdintasun eta bidegabekerietan murgiltzen dituen fenomeno soziala da.*

*Drogak, gure gizartean axolagabeki eta inolako zigorrrik gabe eskatuak eta eskainiak diren sustantziak dira.*

*Drogomenpekotasunaren arazo honek kezkatzen gaituen zenbait pertsona, kolektibo, KOMUNITATEA gara, eta publikoki GURE GAIN HARTZEN DUGU, beti ere gure ahalmenen arabera eta gure iharduera eremuetan, DROGOMENPEKOTASUNAREN AURKAKO BORROKAN aktiboki parte hartzeko KONPROMEZUA.*

*DROGOMENPEKOTASUNIK GABE, BIZIRIK BIZI nahi dugulako honako konpromezua hartzen dugula adierazten dugu:*

*1) Drogomenpekotasunen fenomeno sozialaren oinarrian dauden sorburuen aurka borrokatzea, berauen ondorioak apurka desagertuz joateko garantia bakar gisa.*

*2) Drogen trafikoa eta sustapenaren atzean izkutatzen diren interes ekonomiko eta politikoen salaketa.*

*3) Drogen trafikoaren benetako erantzuleak dituen erreztasunak, konnibentzia maila eta zigorgabetasuna kritikatzeko.*

*4) Trafikarien aurkako herri presio eta salaketa judizialen alde egitea, beti ere, drogen trafiko sareekiko erantzunkizunetan erizpide kualitatiboak kontutan izanik.*

*5) "Segurtasun herritarrik eza" eta giza kontrolerako praktikak, neurriak eta jokabideak baztertzea, Askatasunaren aurkako erasoak suposatzen dutenez gero.*

*6) Kontuan hartzea, Instituzioek jartzen dituzten bitarteko eta neurriak eskasak direla Drogomenpekotasunen aurkako borrokan, eta, era berean, gaur egungo legeriak penalizatzaileak diren neurrietan ipintzen duela indarra eta ez prebentiboetan.*

7) Droga hartzaileen aurka burutzen diren jokabide, neurri eta praktika penalizatzaileak baztertzea, haiek bait dira drogomenpekotasunen arazoa nozitzen dutenak.

8) Drogomenpekotasunen prebentziorako neurri zehatz eta zehazkabeen alde egitea, eta, era berean, drogazaleen berrabiltzeko baliabideak eta komunitatean pertsona aktibo eta kritiko moduan birgizarteratzeko eginkizunetan laguntzea.

9) Prebentziorako dinamika komunitarioaren barnean, lagunkide, aktibo, sortzaile, elkarriketazale, gizatiar, kritikoak, eta ez kontsumitzaileak, ez norberekoiak, ez norgehiagokakoak... diren balore, jarrera eta jokabideak bultzatzea.

10) Prebentziorako Partaide gisa gure Herriarentzat Osasun eta Askatasun maila altuagoak lortzeko dinamika komunitarioan parte hartzea, aktiboa izango den konpromezu pertsonal eta kolektiboan oinarrituz.

Askagintza, 1990ko maiatza

### 5.2.2. LEZO GAZTE EZ ETSIA.

Krisialdi ekonomikoari, langabezia tasa altuari, bortizkeria politikoari, eta beste hainbat aldagai gogorri aurre egiteko gogoz zegoen gazteriak, bilgune ezberdinek antolatu zituen, espazio eraikitzaileak osatzeko. Batzuk, jatorri politiko zehatza zuten, beste batzuk elizaren inguruko gazteek sortuak ziren, beste batzuk ezkerreko mugimendu akrotan zuten jatorria. Haien artean elkarlana izan zen zenbaitetan, baina batzuetan ere talka egin zuten.

Gerra ostean sortu ziren lehenengo mugimenduek, aipatua dugun bezala, gerra aurrean ereindakoan dute jatorria; Frankismo ostean sortutakoek, hein batetan bederen, frankismo garaian egindako lanean duten bezalaxe. Hala uste du behintzat Patxi Larreak. Dantza, antzerki eta aisialdiaren inguruan hazitako belaunaldiak gizarte lanerako joera izan zuela argi du Patxik, ardurak hartzeko hezia izan zelako. Eta lotura ikusten du orduko eta ondorengo mugimenduen artean. “**Txerrimuño** Lezoko jende justuaren ondorioa da”<sup>200</sup> dio ozen.

**Txerrimuño**: Aintzina sagardo traturako gune zena, 1983ko abenduan izan zen okupatua<sup>201</sup>. Lezoko udalari baserria eros zezan eskatu zioten, baina udalak ezetz erantzun zuen.

<sup>200</sup> Patxi Larreak Imanol Esnaolari eskeinitako elkarrizketa.

<sup>201</sup> “Zartako” aldizkaria.

## Lezoko herri mugimendua XX. mendean

Urte oparoak herri mugimenduari dagokionez, ez bakarrik euskal gatazkari dagokionean, baizik eta beste borroka askoren inguruan ere. Txerrimuñoren osaketan parte hartu zuen Xabik ezinbestekotzat dauka testuingurua kontutan hartzea, Txerrimuñoren nondik norakoak ulertuko badira:

*Lemoizen, mugimendu antinuklearraren, Rock Radikalaren garaia zen. Langabezia ere handiagoa zen orduan. Egoera oso ezberdina zen. Etorkinen seme alabak zeuden<sup>202</sup>.*

Autoantolakuntza izan zuten ardatz, batzar bidez funtzionatzen zuten, eta egituraketa ez jerarkikoan oinarritzen ziren. Jarrera antiautoritarioa eta erradikala azaldu zuten, eta bere idatzietan hitz gogorak erabili zituzten:

*Aleop!! Ni con EA ni sin EA no queremos ser sordos<sup>203</sup> ni un pueblo de autoritarios sino de juerga y txarleta y que los curres que hay se repartan entre los de casa. Se puede vivir en Lezo aunque no se pueda respirar y no por los porros que se hacen sino porque sobran gitas traficantes y hay exceso de contaminación. En Altamira quieren meter una variante, solo decir: Goma 2<sup>204</sup>.*

Txerrimuñon ez zen jendea bizi, ez zen etxe okupa, baizik eta lanerako espazio zen. Hala ere, tankera ezberdinetako jendea bildu zen, eta hasieran taldetxo bakoitza bere kasa ibili zen, bere gela propioa hartuta.

*1984-1985 urteetan errekurtsio eskasek, jendearen gehiegikeriak eta elkar ulertzeko arazoek gelaka eta kuadrilen txabolen modura antolatze-ra bultzatzen dute (txerrimuño). Berez ez dago haserre gogorrik (...)<sup>205</sup>.*

<sup>202</sup> Jon Benitok Xabi Pikabeari egindako elkarrizketa.

<sup>203</sup> Euskadiko Ezkerra alderdikoei deitzen zitzaien "sordos".

<sup>204</sup> "Zartako" aldizkaria.

<sup>205</sup> "Zartako" aldizkaria.

Lau bost urte igaro ondoren hartu zuten lan komunitarioagoa egiteko konpromezua. Honek liskarren bat sortu zuen, baina Txerrimuñoren funtsa argituz joan zen.

Aisialdiari dagokionez, gaztetxe baten modura aritu zen Txerrimuño, kontzertuak, tailerrak, antzerkia, zinea, zuhaitzen haztegia, paper bilketa herrikoiak eta beste antolatzen.

Udalarekin arazoak ere ez dira falta izan; 1985eko jai batzordean ez zieten parte hartzen utzi, eta horren kontra buruturiko protesta ekintzetan, Txerrimuñoko hainbat gaztek salaketa jaso zuen, nahiz eta gero, Askagintzaren bitartekaritzari esker, auzipetuak izan ez.

Udalarekin izandako hartu emanetan, gatazka izan da nagusi; Herri Batasunarekin harreman gozoagoa izan badute ere, ez da beti zorionekoa izan, Txerrimuñoko Xabiren aburuz, interes asko baitago politikan:

*(...) baina gero interes asko daude. Ehizarekin, etxebizitzarekin, aisialdiarekin... eta oreka mantendu behar du<sup>206</sup>.*

Ezker mugimendua, azpiegituren garapenak dakartzan kalteen aurkako mugimendua, eta beste bizitza eredu ezberdina sustatzearen aldeko giza taldea izan da Txerrimuño.

Hori dela eta, mugimendu askoren jatorrian egon da Lezon: Intsumisioarena, feminismoarena, ekolojistena eta abar. Mugimendu hauek ez ziren soilik Txerrimuñoren inguruan hazi, baina zalantzarik gabe, Txerrimuño izan zen haue-tako askoren akuilua.

Esparru komunikatiboari dagokionez, **Zartako** izeneko aldizkaria atera zuten; bertan Txerrimuñon garatzen zen ekimen ororen inguruko informazioa biltzen zuten.

Txerrimuñok ez zuen ordea Lezoko gazte guztien antolakuntza esparrua ordezkatzeko; joera "akrata" zuen Txerrimuñok, eta ezker abertzalearen inguruko gazteek Gazte Asanblada antolatu zuten. Horiek antolatu zituzten gazte olinpiadak. Geroago jorratuko dugu, beste gazte talde batzuekin batera.

<sup>206</sup> Ibidem.

## Lezoko herri mugimendua XX. mendean



Txerrimuño.

### Intsumisioa eta antimilitarismoa

Lezon intsumisioaren aldeko mugimenduak indar handia izan zuen. Txerrimuñoren inguruko gazteek abiatu zuten derrigorrezko soldadutzaren aurkako ekimena, eta, laurogei ta hamarreko hamarkadaren hasieran, ezker abertzaleko gazteak batu zitzaizkien. Baina mugimendua lehenagokoa zen, bai Lezon, bai Euskal Herrian. 80eko hamarkadaren hasieran deklaratu ziren objetore, lehenbizikoz, Lezon. Udaletxeak egiten zituen soldadutzarako hainbat tramite, horien artean, soldadu joateko adinean zeudenen zerrenda osaketa, uniforme tailaketa eta beste. Horren aurka, urteroko zozketa egunetan udaletxe aurrean biltzen ziren intsumisioaren aldeko lezoarrak, eta izan zen **ekintza zuzenik** ere: tailaketarako erabiltzen ziren tresnak udaletxetik ohostu zituzten, eta Zubitxo errekan azaldu ziren botata. Tailaketarekin tematu ei ziren antimilitaristak, izan ere beste batetan tailaketa tresnak apurtu egin zituzten, jendaurrean, eta udaletxeko atea kateatu egin zituzten. Gauzak honela, armada “erretiratu” egin zen Lezotik, eta aurrerantzean ez zen tailaketa gehiagorik egingo herrian.



**Lezo Aldizkaria.**

1987an udaletxeak urrats garrantzitsua egin zuen antimilitaristen alde. Lezo “gune desmilitarizatu” deklaratu zuen, eta armadari laguntzeari muzin egin zion. Horrelako neurri bat hartzen zuen Euskal Autonomia Elkarteko lehenbiziko udalerrria izan zen. Alkatea ere zigortu nahi izan zuten hori izan zela eta, baina absolutu egin zuten bi epaiketa ezberdinetan. Militarrek ez zuten gogo onez hartuko erabakia, eta salaketa jarri zuten Lezoko udalaren aurka. Lezoko udala, baina, ez zen kikildu, eta militarrek egiten zuten Jaizkibelen erabileraren aurkako jarrera agertu zuten, udaletxean mozioa onartuta.

Objezioak indarra hartu ahala, urrats bat aurrera egin eta intsumisioari ekin zitzaion. Honen arabera, ordezeko zerbitzu sozialari<sup>207</sup> ere uko egiten zitzaion.

Larogei ta hamarreko hamarkadatik aurrera, intsumisioak izugarrizko indarra hartu zuen. Lezon, 1991ean, intsumiso bat atxilotu eta Iruñeara eraman zuten preso. Lezoar ugari bertaratu zen espetxera, atxilotuari elkartasuna adierazteko, eta baita Madrilgo Alcalá espetxera ere, presoak bertara eraman zutenean. Baina errepresioak ez zuen balio. Izan ere, intsumisioa hazi besterik ez zen egin, bai Lezon eta bai Euskal Herri osoan ere<sup>208</sup>.

Txerrimuño izan zen intsumisioaren aldeko mugarrietako bat Lezon, esan dugun bezala. Baina urteak ez dira alperrik igarotzen, eta Txerrimuño ere iritsi

<sup>208</sup> Lezo 12.zkia.

<sup>207</sup> Soldadutza armadan egin beharrean, gurutze gorrian, DYA elkartean, edo beste antzeko talde batetan egiteko “beta” zegoen.



## Lezoko herri mugimendua XX. mendean



Armadaren aurkako aldarrikapenak indar handia izan du Lezon.

zen belaunaldi berrien garaia. Laurogei ta hamarreko hamarkadan Txerrimuño indarberitu egin zen; belaunaldi berri bat sartu zen, eta orduan izan ziren ekintza nagusienak.

Bere burua ere gehiago “zaintzen” hasi ziren. Partaideetako batzuk adinean gora zihoazela eta, Guraso taldea antolatu zen, jolas gela antolatu, masaje tailerra egin, heziketari buruzko tertuliak...heziketari garrantzia handia eman zitzaion Txerrimuñon, hezkuntza balore berrien sustatzeko ezinbesteko baldintza zelakoan.

Txerrimuñok zabaldu zuen okupazioaren atea. Eta gero beste batzuk etorri ziren. **Darieta** okupatu zuten 1996ean. Jabeek salaketa jarri zieten, eta okupek, bere aldetik, eraso jaso zutela salatu. Bost lagun azaldu ziren etxera, okupak konponketa lanak egiten ari zirela, eta lan tresnak lapurtu eta mehatxu egin zietela salatu zuten. Ez zen hau okupazio bakarra izango. 1999an, gazte talde batek **Lobato** etxea okupatu zuen, hamabi lagun joan ziren bertara bizitzera, eta tailer ezberdinak, eskulanak eta musika jorratu zituzten bertan.

Txerrimuñon tokia izan zuen beste aldarrikapenetako bat, ekologiarena izan zen. Ingurumenak eraso ugari jaso du eskualde honetan, Allerruren hasierako idatzietan ere aipatzen ziren erasook. Eraso horiei erantzuteko, eta jendearengan ingurumenarekiko konzientzia pizteko, talde ekologista sendoa sortu zen Lezon.





**Lezoko ekoloji taldea:** Laurogeiko hamarkadaren bukaera aldera antolatuta, Lezoko autobidearen aurkako borrokaren itzaletara, zuhaitz landaketak burutu eta ingurumenaren kontrako erasoak salatu zituen batipat. Txerrimuñon biltzen zen gazte taldearen inguruan sortu zen, herrian garapen suntsizaileraren aurkako konzientzia pizgarri gisa.

Autobidearen aurkako dinamikaz gain, Jaizkibelgo ingurumenaren defentsa egin zuen, ustiaketa basatiaren aurka, eta militarren jarduerak sortzen zituzten kalteak salatzen. Zubitxo errekararen defentsan ere aritu ziren, haren kutsaduraren aurka, eta udalak eskolaren proiektua aurkeztu zuenean, honek errekarari egingo zion kaltearen aurka ere.

**Portua:** Lezori itsasoa lapurtu zioten lehenbizi, eta hesiaren bestaldetik, gainera, kutsadura baino ez zitzaion iritsi. Honen inguruan herrian ezinegona nabarmena izan da azken hogeitahamar urteotan. Estatuaren esku dauden Lezoko lurretan muturra sartzerik izan ez arren, gogotik nozitu batitute lezoarren muturrek bertako kiratsa. Burnia, ikatza...denetik izan da, eta da oraino, Lezori ohostu dioten lur sail horretan.

Azken urteotan, gainera, Superportuaren egitasmoa abiatu dute instituzioek. Honen inguruan ere iritziak denetariokoak dira. Bada superportuari esker barruko kaia garbiagoa izango dela argudiatzen duenik, beti ere Jaizkibelen kaltetan:

*“Merkantzien garraioak beti sortzen ditu hainbat eragozpen, beraz, hori guztia kanpora ateraz gero, espazio zabalak irabaziko lirateke badia bere onera ekartzeko, eta pentsa daiteke barrualdean gauzatu daitezkeen egitasmoetan: esate baterako, kirol-portua, arrantza-instalazioen zabaltzea, erabilpen ludikorako guneak...”<sup>209</sup>*

<sup>209</sup> *Orratz!* 30. zkia. 2000ko maiatza: Jose Ignacio Espel, Portuko Agintaritzako lehendakaria.

## Lezoko herri mugimendua XX. mendean

Kontrakoek argudiatzen dute Lezok ez duela bere kaia berreskuratuko, baina Jaizkibel hondatu egingo dutela zeharo. Lurrak libratzekotan, aisialdi publikorako baino, merkantilizatuak dauden negozio tertziarioetarako izango lirakeen susmoa dute. Gainera, superportuak beharko lituzkeen lotura errepide, trenbide berri eta besteen inguruko kezka azaltzen dute, egitasmoa ez baitago zehazturik.

Desarrollismoa salatzen aritu diren taldeek lan ugari dute bailaran (AHT, autopista, superportua...), eta datozen urteotan eztabaidagai izango diren zalantzarik ez dago.

Leitzarango autobiaaren aurkako Lurralde koordinadorak ere taldea izan zuen Lezon, 1990etik aurrera, eta autobiaaren afera bideratu zen arte.

Baina autobietan, lezoko ekolojistik bereari eman zioten lehentasuna.



Lezoko Fototeka.

**Autobiaaren aurkako herri ekimena:** Gatazka ugari sortu zuen autobidearen eraikitzeak Lezon. Laurogei ta hamarreko hamarkadan piztutako gatazka izan zen; Lurren desjabetze ugari eman zen, eta kotxeen igarotzea nabarmen igoko zen beldur zen herritargoa. Altamirako bizilagun askok ere kontrako jarrera azaldu zuten: Herriik isolatuago egongo ziren kezka zuten, Campsaren gertutasuna zela eta istripu batek eragin zitzakeenak ere larritzen zituen, eta etxeetan obrek izango zuten eraginaz ere susmo txarra azaltzen zuten<sup>210</sup>.

<sup>210</sup> Orratz!1. go zkia. 1996ko ekaina.

Bartzelonako Leber enpresari mugikortasun ikerketa eskatu zion Foru Aldundiak, eta autobia ez beste alternatibak proposatu zituen: Hirugarren karrila egitea N-1ean (orduaren arabera norabidea aldatuko zukeena), Oreretako semaforizazioa aldatzea (zaharkitua zegoen), garraio publikoa hobetzea, Irundik Lasarterainoko tranbia egitea, eta autopistaren liberalizazioa. Foru Aldundiak, herri ekimenak salatu zuenez, muzin egin zion enpresak aurkeztutako txostena kontutan hartzeari.

Autobiaren aurka egiteko, ekintza ugari burutu zen: Udaletxean jarrita zegoen maketara kateatu ziren, kanpaldia egin zuten, Patxi Riezu hiru asteko gose greba egin zuen <sup>211</sup>

Altamirako auzo elkarte zaharraren teilatura ere igo ziren, eta bi astez izan ziren bertan “akanpaturik” <sup>212</sup>.



Lezoko Fototeka.

Bailaran eginak ziren eta egitekoak ziren azpiegiturak kontutan hartuta, behin behineko konponketetatik haratago, gizarte ereduaren aldaketa aldarrikatu zuten, “garapen txikitzailearen” aurkako aldarria eginaz.

<sup>211</sup> *Orratz!* 3. 21. orria. 1996ko abendua.

<sup>212</sup> *Orratz!* 6. 1997ko maiatza.

**Lezoko herri mugimendua XX. mendean**

*“Bailaran martxan dira autobiairen bigarren fasea, A-8a sei karriletakoa bilakatzea, autopista berri bat (Usurbil-Arragoa), kaiaren handitzea eta AHT. Honi aurre egiteko, gizarte ereduaren aldaketa beharrezkoa ikusten dugu, garraioa beste era batera planteatuz eta Amalurra errespetatuz”<sup>213</sup>.*

Autobia zela eta, obraren kontrako taldeak udalarekin izandako hartu emanak ez ziren gozoak izan. Mikel Arrizabalaga HB ko alkate zela, etzuen autobiairen aurkako jarrera tinkoa azaldu, ekolojisten ustez. Jarrera legalistari eman ei zion lehenasuna, eta lanak salatu egin zituen epaitegietan. Kale erantzuna, ordea, beste eragile batzuen esku utzi zuen ekolojia taldekoen arabera, eta, drogaren aferarekin ez bezala, ez zion babes osoa eskeini herri mugimenduari.

Autobiaen aurka aritu ziren hainbaten ustez, udalak indarge ikusi zuen bere burua Foru Aldundiaren egitasmoaren aurrean, eta oposizio epel bat kontrajarri zion aipatu obrari, bide batez proiektuan zenbait hobekuntza lortuaz.



**Lezo Aldizkaria.**

<sup>213</sup> *Orratz!* 17. 1999ko martxoa: Autobiaen aurkako herri ekimena.



### Trantsizio osteko mugimendu gehiago

Lezoren historiaren errepasoan ikusi ahal izan dugunez, eliza eragile nagusietako bat izan da, une ezberdinetan.

Elizak Lezon izan zuen rola nabarmen aldatu zen hiruregei ta hamarreko hamarkadatik aurrera. Nagusigo osotik, eragile garrantzitsu izatera igaro zen lehenengo, baina, Frankismoaren azken urteetan, herri dinamikak erabat irentsi zuen elizaren dinamika soziala, eta, aisialdiaren inguruko taldeez aparte, ia hutsaren hurrengoan utzi zuen elizaren presentzia soziala Lezon.

Elizaren inguruko taldeek kezka adierazten zuten bilakaera honen inguruan:

*1982-1985 epean mezatarak dijoazenen artean jaitsiera nabaria gertatu da: 901etik 654ra jaitsi da meza entzuleen kopurua, hau da, %27,41. Adinari dagokionez, jaitsiera hori 7-14 urtekoetan (%29,22) eta, batez ere, 25-44 urtekoetan (%51,61) nabarmendu da. (...) Hizkuntzari dagokionez, euskaldunen artean ezagutu da gehienbatez urritze hori (%37,70).<sup>214</sup>*

Fedearen sustapena helburu zuen talde baten sorrerak, agerian uzten du fedearen galeraren inguruan eliztarrek zuten kezka. Pentsaezina zatekeena, urte batzuk lehenago:

<sup>214</sup> Parrokiko Gazte Taldeak: *Lezo Aldizkaria*. 1985. Igandeko mezara joaten den herritar kopuruaren inguruko azterketa.

## Lezoko herri mugimendua XX. mendean

**Sendotza taldea:** “Kristoren ikasketak irakatsiz, gure sinesmesa sendotzea da helburua”. Horrela definitzen zuten talde honetako partaideek bere betebeharra. Elizara gero eta gazte gutxiago biltzen zela ikusirik, gizartean horren zergaitiak bilatzeko hausnarketak egiten zituzten, erabakiak hartu eta fedea zabaldu ahal izateko.

Halabaina, izan zen herrian elizaren inguruko talderik, baina hauek elizarekin zuten harremana gero eta zeharkakoagoa zen.

Elizaren inguruko gazte talde batek **Lezo** izeneko aldizkaria atera zuten 1985etik aurrera: Demografia, ekonomia, politika, udalgintza, ekologia, erlijioa eta inkesta soziologikoak jorratzen zituzten bertan. Eragin handiko aldizkaria izan zen, iraun zuen bitartean.

Laurogeiko hamarkadan elizan aisialdiaren inguruko ahalegin berezia egin zuen. Hego Euskal Herri osoan nonahi sortu ziren aisialdi taldeak. Lezok ere izan zuen berea.

**Ekaitz astialdi taldea:** Umeak aisialdian heztea zuten helburu. 12-15 urtera bitarteko umeak biltzen zituzten. 1982an sortua, Ijurko Auzoko Urdaburu kalean izan zuten egoitza. Jose Luis Aperribaik zuzentzen zuen sendotza taldearen ekimenez sortutako taldea, izpiritu kritikoa, autonomia, giza baloreak eta sormena lantzea zituen helburu. Elizaren inguruko taldea zen (aisialdiaren esparruan, elizak eragin handia izan du hego Euskal Herrian, izan ere, taldeen erdiak baino gehiagok harekin harremana baitute).

Herriko ekimenetan parte hartze handia izan zuten, bai gabon jaietan, ihauterietan, korrikan, eta abar. Ihauterietan, **Trapujaleren** inguruko guztia antolatzen zuten ardura hartu izan dute bere gain.

Umeak larunbata arratsaldero biltzen zituen bere lokalean, eta udan hamabost eguneko kanpaldia antolatzen zuten.

*“(...) nik uste bere garrantzia dutela (umeek) gaztetxoek euren artean eta gurekin pasatzen duten denborak. Batzuei denbora galtzea iruditu arren, jolasteak, lagunekin egoteak edo denbora libreak etorkizunean diru gehiago irabaztea ekarriko ez dion arren, bere pentsaera eta izaera osatzen lagunduko baitiote eta agian zoriontsu izaten (...)”<sup>215</sup>.*

<sup>215</sup> Haritz Salaberria, Ekaitz astialdi taldeko begiralea. *Orratx! 10*. 1998ko martxo.





## Lezoko herri mugimendua XX. mendean

Txerrimuño inguruan sortutako zine klub honek, urte batzuk lehenago ASKA-GINTZA taldeak sortutako beste batetan izan zuen jatorria. Aurreko hura Silvy Szinetarrek antolatu zuen, eta Txerrimuñokoa berriz, bere alabak bultzatu zuen.

Gazteez gain, emakumeek ere izan dute bere antolakuntza gunea. **Gaxuxa emakume taldea**, kasu:

Helburu nagusia, emakumeen topalekua sortzea izan zen. Denbora gehiegi etxean igarotzen zutela medio, arazoak zituzten besteekin harremanak izateko, eta komunikazioa errazte aldera sortu zen taldea. Soinketa, yoga, gantxilo ikastaroa, automakilajea...eta beste hainbat ikastaro antolatu zuten, Guillermo Lazon kaleko atzekaldeko egoitzan.

### 5.2.3. Esparru komunikatiboa

Honetaz gain, eta komunikazioaren esparruan, **Sendotzako** talde batean zebiltzan gazteek (EKAITZ taldea antolatu zutenek), **ASKE aldizkaria** argitaratu zuten, 1985etik aurrera. Beste hainbat ekimenen akuilu izan zen Jose Luis Aperribai apaiza ere tartean izan zen. Berarekin batera, Mari Mar Arozena, Imanol San Sebastian, Mikel Susperregi, Juan Luis Urkizu eta Lander Zurutuza aritu ziren aldizkaria lantzen. Historia, literatura eta gizarte gaiak izan zituzten aztergai aldizkarian. Lau zenbaki atera zituzten orotara, azkena 1987ko irailekoa izan zelarik. Lekukoa Lezo udal aldizkariak hartu zuen. Aske aldizkariaren agur idatzian, honako hau adierazten zuten:

*“Gure gaurko erabakiaren arrazoi nagusia denbora falta da(...) uste dugu egindako lanak pena merezi izan duela eta “ASKE”k bide berri bat urratu duela Lezoko kulturaren inguruan. (...) Gauza guztiak dute hasera eta bukaera. Hemen eta orain bukatzen da “ASKE”...”*

Geroko **Lezo aldizkariak** jarraitu zuen bideari erreparatzen badiogu, ordea, ukaezina da **ASKE aldizkariak** eragin handia izan zuela. Bai jorratu beharreko gaiak, eta baita jorratzeko modua ere, nola edo hala bideratu egin zituela esan daiteke. Lezoren historiari, mitologiari, euskarari eta orohar kulturari eman





zaion garrantzia bi aldizkariotan dago isladatuta, eta bien arteko jarraipena antzeman daiteke.

**Lezo aldizkaria** egiteko ardura herrian sortu zen talde ezberdinen arteko **koordinadorak** hartu zuen bere gain, 1988an. Orotara hogeitazentzaki argitaratu zituzten, harik eta 2000n azken zenbakia atera zuten arte.

#### 5.2.4. Lezoko elkarte koordinakundea: Esperientziak bateratu.

Koordinakunde hau jai alternatiboen inguruan sortu zen.

Laurogeiko hamarkadaren hasieratik gorpuzten ari zen herri mugimenduak bertan izan zuen mugarri nagusia. Droga trafikoaren inguruan izandako mugimenduen ostean, eta herrian sortu ziren dinamiken itzalera, herriko taldeek batera jarduteko beharra ikusi zuten. Ezker abertzalea egituratu egin zen hamarkada honetan Lezon, batez ere Tiñeluren sorreratik aurrera, eta ezker abertzale eratu honek akuilu lana egin zuen taldeen koordinaketan. Honek ez du esan nahi koordinakunde hau ezker abertzalearen talde bilketa zenik, baina esan daiteke koordinadora honek eta ezker abertzaleak bat egiten zutela udal politikari buruzko ikusmoldean. Zaila da zehazten zenbaterainoko eragina izan zuen ezker abertzalea eratu izateak, baina ukazina da harremana izan zela laurogeiko herri dinamika, ezker abertzalearen eraketa eta geroko taldeen arteko bategite hartan.



Izan ere, 1986ko jaietan haustura eman zen jaietan, Lezoko udalburuen (EAJ) eta hainbat herri mugimenduren artean. Talde hauek jai alternatibo jendetsuak antolatu zituzten, eta ondotik taldeen koordinakundea antolatu zen. 1986ko jaietan Lezoko elkarte gehienak zeuden koordinakundean: Oroitzene AEK euskaltegia, Altamira auzo elkarte, Altamirako gazteak, Askagintza, Allerru, Dantza Eskola, Ekaitz, Eskalada taldea, Euskara taldea, Amnistiaren Aldeko Gestorak, Hezikuntza guraso elkarte, Haurtxo haur eskola, Ixkulin, Lezoko ekolojia taldea, Lezoko zine klub, Lurralde, Pysbe auzoko elkarte, Senideak, Tiñelu, Txerrimuño, Txistu taldea besteak beste.

## Lezoko herri mugimendua XX. mendean

Hasiera batean Andreonen biltzen ziren eta denbora asko eman zuten horrela, baina gero, udalak bilera bakoitzeko eskaera txostena betetzea eskatzen ziela eta, lekuz aldatzea erabaki zuten. Gerora, bilerak Ekaitzek zuen aretoan egiten hasi ziren.

Talde eta elkarten partaidetza eta elkarlana errealitate bat izan zen ondorengo urteetan: *“konbentziturik gaude indarrak batu, inizatibak bultzatu eta baliabide urriak aprobetxatzeko erarik egokiena delako sortu zen koordinakundea”* zioen Maria Jose Intxaurrendietari **Lezo aldizkarian** egindako elkarrizketan. *“Azken finean lezoarren eguneroko bizitza osatzen duten elkarte guztiak eragiteko tresna baliogarria iruditzen zaigulako”*.

Taldeen arteko harremanak irekiak eta aberatsak izan ziren: *“Kontuan hartu behar duzu oso pertsona ezberdinak gaudela, pentsakera desberdinekoak, baina hori ez da izan oztopo. Alderantziz, oso aberatsa izan da eta denok izan dugu eta dugu aukera gure irizpideak botatzeko. Askotan eztabaida gogorak ere izan ditugu baina nire ustez garbi dago denak beharrezkoak garela.”*

Elkartasun eta lankidetzara hori igartzen zen gero kalean, Lezon. Elkarte bakoitzak antolatzen dituen ekintzetan besteen partaidetza jaso izan zutelako eta, *“nolabait taldeko lanaren helburua gauzatzen ari delako. Bizi garen gizarte indibidualista honetan ez da erraza baina gutxienez saiatzen gara, zertxobait behintzat, auzo lana bultzatzen”*.

Taldeen arteko elkarlana ez zen Lezo aldizkaria egitera mugatu, jaietan ere elkarrekin aritu baitira. Elkarlan honen adierazle nagusietako bat dugu **Lezoko ihauteria**. Eta **TRAPUJALE**.

1984an Ekaitz astialdi taldeak ihauteria antolatzeko asmoa agertu zuen, eta hurrengo urtean, 1985ean, desfilea antolatu zuten Allerru, Ixkulin, Takili-Takulu fanfarrea, Txerrimuño eta Guraso elkartearekin batera. Hurrengo urteetan behera egin zuen ihauteriak, eta 1989an, Ekaitz taldearen ekimenaren ondorioz, biziberritu egin zen jaia: trapujale pertsonaia atera zuen desfilean, eta urte berean udaleko Kultur batzordeak ihauteriarik bultzada ematea erabaki zuen, ihauteriarik izaeraren inguruko hausnarketa abiatuz. Hartara, egokitzat eman zuen Ekaitz taldeak buruturiko ekimena. Kultur taldean adostu ziren izenak, egin beharreko ekintzak eta zeremonia guztiak.

Beraz, Ihauteria jai berria zen Lezon, 1984ean, eta 1989an zaharberritu egin zuten; jaia antolatzeko ideia ezberdinak zeuden, baina herrian ez zuten Donostiaren antzeko ihauteririk nahi, baizik eta sustraietara itzuli nahi zuten, erritual berriak taxututa.



Trapujale, Lezoko ñauterietako pertsonaia nagusia. *Lezoko Fototeka.*

## Lezoko herri mugimendua XX. mendean

Trapujale, Lezoren izpituaren ikur izango zen aurrerantzean; Jaizkibelgo leizezulo batetan zuen bizileku, eta urtean behin Lezora jeisten zen, ihauteriari hasiera emateko.

1988ko ihauterietan gorpuztu zen jada ideia; Txerrimuñokoek tarratada mozorrotua antolatu zuten, eta Ekaitz taldekoek trapujalaren desfilea eta buru moztearen errituala egin zuten. Harrera bikaina izan zuen ekimenak, eta udalean eraman zuten, bertakoekin elkarlanean ekimena borobiltzeko. Helburua, urte gutxi batzutan ihauteri propio eta jatorra edukitzea zen, behin erritual berria tradizio bilakatuta.

Gainera, ihauteri egunak izendatzeko modu propioa ere asmatu zuten: Ostegunzuri, ostiralori, larunbatgorri, igandubel, astelehenarre, asteartebeltz. Larunbata izango zen egunik garrantzitsuena.

Baina Trapujale ez zen bakarrik egongo. Marinazkane sorgina, trapujalaren aldameneko koban bizi denak, tokia izango zuen Lezoko ihauterian. Marinazkanek, eta bere zirikoek ere. Hauek jendea zirikatzen ibiliko dira jaietan: Munttar, Ixku, Aller, Sumi, Tiñel, Sats, Let.



Umeak Zabarreren urratsen atzetik. **Lezoko Fototeka.**

### Batasuna taldeen artean, lubakia alderdi politikoen artean

Taldeen arteko batasun giroa bai, baina hau ez zen politikan isladatzen. Aipatu dugu lehen ere gizartea, batez ere esparru politikoan, erdibitu egin zela laurogeiko hamarkadan. Ezker abertzaleak alde batetara jo zuen, eta gainerakoek bestera.

Ezker abertzalea nagusi izango zen Lezon, baina, Ajuria Eneako hitzarmenaren ondoren, eta hura isolatzeko abiatu zuten strategiaren ondorio, ez zen beti alkatetzan egon. Hala gertatu zen 1991an; transizioan EAJri gertatu bezala, nagusi izan arren ( HBk 6 zinegotzi, EAJk 2, EAk 2, PSEk 2, eta EEk 1), bazterrera utzi zuten HB. Horrek giroa are gehiago nahastu zuen. 1993an, ordea, EAko zinegotzi batek HBren alde egin zuen, eta bi urtez HBk izan zuen alkatetza. Hurrengo hauteskundeetan gehiengo absolutua lortu behar izan zuen, alkatetza esku-ratzeko. Gehiengo gehiengo, ilegalizazioak udaletik kanpo utzi zuen ezker abertzalea 2003an, gainerakoek hartu zutelarik udal ordezkaritza bere gain.

Lezon apurketa, baina, Ajuria eneako hitzarmena baino lehen ere eman zen. 1983an EAJ jarri zen alkatetzan, eta udala eta herri mugimenduaren arteko harremanak erabat trenkatu egin ziren. 1986ko herri mugimendutik jaiei boikota egin zitzaizenean, udal ekitaldiei ez zieten babesik eman.

Datu hauek, baina, agerian uzten dute ezker abertzalea errealitate sendoa izan dela, transizioaren ondotik, Lezon. Borroka askoren akuilu izan da, bai herrigintzan, eta baita arazo nazionalari dagokionez ere. Gehienetan herrian sortutako hainbat mugimendu gorpuzteko lana egin du ezker abertzaleak, drogomenpekotasunaren aferan kasu<sup>217</sup>. Eragile izateko, **Tiñelu elkarte**a sortu zuten, eta urte guzti hauetan ezker abertzalekoen bilgune bilakatu da<sup>218</sup>. 1982n kultur arloan lan egiteko sortua, herri mugimenduekin bat egin eta euskararen alde, droga trafikoaren kontra, eta gizon-emakumeen berdintasunaren alde lan egiteko bilgune bilakatu da. Beste ekimen batzuk ere burutu ditu elkarteak: 1994ean sagardo eguna antolatu zuen lehen-bizikoz. Urtean bi bider antolatzen hasi ziren, Mendekoztetan eta Santa Krutzetan.

Tiñelura, gainera, Lezora bizitzera etorritako asko bildu da; horrek Lezoko dinamikara bildu ditu bizilagun berri asko.

Tiñelun bere ekimenak aurrera ateratzeko behar adina espazio ez zutela eta, lbai-ondo bilgunea zabaldu zuten 1999an, eta helburua herrigintzarako ekimenak abiatzeko espazioa eskeintzea zen.

Kultur ekimen horien artean soka tira taldea, sega txapeleta, eta truk txapelketa daude.

<sup>217</sup> Droga salmentaren kontrako dinamikatik Askagintza taldea sortu zen, ezker abertzaleak sustatuta.

<sup>218</sup> Sortu eta berehala ehun bazkide inguru izatera iritsi zen.

### 5.3. GATAZKA LEZON

**P**resoak, iheslariak, manifestazioak...eguneroko ogi izan ditugu azken hogeitahamar urteotan, eta indar bereziz gure eskualdean.

Testuinguru honetan, presoen aldeko mugimendua izan da indar gehien izan duen taldeetako bat. Amnistiaren aldeko Batzordea 1977ko amnistia erdiesteko sortu zen, baina behin hura lortuta, lanean jarraitu zuten, gatazkak bere horretan iraun zuenez, presoek kolektiboa ere laister sortu zelako berriz. Gaur arte. Amnistiaren aldeko mugimenduak **Astintzen** izeneko aldizkaria argitaratu zuten 1988tik aurrera.

Mobilizazioak ohikoak izan dira Lezon, bai AABek, eta baita **Senideak** (gero Etxerat) elkarteak antolatuta.

Horiez gain, plataforma "anitzagoak" ere sortu izan dira, unean uneko beharren bati erantzunez. Esate baterako, Juanito Treceten askatasunaren aldeko plataforma: 1996an sortua, espetxean 18 urte zeramatzala, eta hego Euskal Herriko beste hainbat herritan sortu zen dinamika batetan txertatua. Zigorren 3/4ak beteak zituzten presoak aska zitzaten eskatzen zen.

Gogorkeria izan da urte hauetan herritarren arteko haserreak sortu dituen eragilea. ETAk eragindako gogorkeriaren aurka, baina baita beste edozein indarkerik eragindako zein-nahi heriotzaren aurka ere, **Pakearen aldeko taldea** sortu zen Lezon.

Laurogei ta hamarreko hamarkadaren hasieran sortua, Euskal Herriko beste hainbat herritan bezala, gatazkaren ondorioz hildakorik gertatzen zen bakoitzean kontzentrazioa burutzen zuten. Nahiz beste hainbat talderekin batera sortu, ez zuten harremanik izan garaian sortu ziren Gesto por la Paz edo antzeko taldeekin. Gonbidapena jaso zuten, baina ez zuten bertan parte hartzea komenigarri ikusi, eta bere kasa aritu ziren. Elizak taldea lagundu zuen, eta, bere ekimenez sortu ez bazen ere, kontzentrazioetan agertzen zuten pankarta elizan gordetzen zuten<sup>219</sup>.

Ezadostasunak eta talkak, baita **gazte mugimenduan** ere. Baina baita **adostasuna** eta **elkarlana** ere. 1986an Lezoko Gazte Asanblada osatu zuten hamar gazte inguruk.

Askagintza taldea izan zen talde honen sorrera bultzatu zuena, gazteen autoantolakuntza sustatu nahian.

<sup>219</sup> Jose Munduate apaizak esana.

Imanol Esnaolak gogoratzen duenez, kultur esparrua zuten kezka gai, eta maila lokalera mugatzen ziren, ez zutelarik garapen ideologiko handirik. 1987an asanbladari forma eman zioten, lehenengo EKAITZ taldearen lokaletan bilerak eginez, eta gero ANDREONERA igaroaz. Udalarekin harreman onak izan zituzten, baina Imanol Esnaolak dioenez, ez zituzten oso aintzakotzat hartzen, instituzioek gazteek herri baten garapen eta geroan duten garrantziaz behar besteko konzientzia ez dutela eta. Hala ere, eraisteko zai zegoen etxe bat eman zieten erabil zezaten, eta beranduago lokal bat lortu zuten, hau ere udalak utzita. Gazte asanblada 1989an desagertu zen, baina urte gutxi batzuk beranduago beste gazte asanblada bat sortu zen. Honen aurrekoak baino indar handiagoa izan zuen, eta ekimenak ere ugariagoak izan ziren. Horien artean, ezagunena Herri olinpiadana izan zen.

**Lezoko Herri Olinpiadak.** Gazte asanblada berriaren eskutik, olinpiadak antolatzeke batzordea osatu zen, eta proba ezberdinak antolatu zituzten: Ibilaldi neurtua, Maratoia, Mahai-jokuak, joke-erratz, sky lasterketa, altxorraren bila, futbito eta ginkana. 1995ean hasi ziren antolatzen.

Imanol Esnaolak azpimarratzen duenez, talde honen bi ardatz nagusiak euskara eta gazteen arteko elkar ezagutza zein elkarlana izan ziren.

Elkarlana egiteaz gain, gizartean nagusi ez ziren baloreak ere sustatu nahi zituzten.

*“ahal den neurrian konpetibitatea ez bultzatzea, nahiz eta lortzeko helburu zaila izan gizartearen egoera ikusita”.*

Ehun gazte inguru bildu zen herri olinpiadetara. Olinpiadetan abiatutako elkarlanaren ondorioz, **Zabarre** gazte taldea sortuko zen. Gazte talde hau Joxe Zabala “Zabarre” pertsonaiaren inguruan sortu zen, hain zuzen ere, itsasotik bueltan zetorrenetan kaian egiten zitzaion ongi etorriaren inguruan. Zabarrerren pertsonaia bultzatu zutenen asmoa, herrian mitologia eta herri tradizioak sustatzea zen, Trapujalerekin egin zuten bezalaxe.

Olinpiaden ideia Hondarribia eta Andoaindik ekarri zuten, bertan arrakasta handia izan baitzuen ekimenak. Jaien eta gazteen inguruan antolatzen zen.

Olinpiadak elkarlanaren ispilu izan ziren bezala, jakina da desadostasunak ere izan zirela gazteen artean. Lubaki politikoak esparru guztiak hartu zituen, eta gazte esparruan ere beste horrenbeste gertatu behar zuen.



## Lezoko herri mugimendua XX. mendean



Herri Olimpiadak prestatzen. **Lezo Aldizkaria**.

Izan ere, ez zen herriko gazte talde bakarra izan. Izan zen besterik ere: eza-gunena, **Gazte Herri** elkarte, 1994ean sortua.

Gazte-Herri elkarteak **UDAR** taldean izan zuen jatorria. Talde hau irratifuzionatuen talde bat zen (Unión de Amigos Radioaficionados de Lezo).

Helburuen artean Lezoko jaietan parte hartzea, kultur ekitaldiak sustatzea, lehiaketak antolatzea, gazteen arteko elkar ezagutza erraztea, txapelketak, tailerrak, jokuak...antolatzea, eta gazteen elkargune izango zen lokal bat lortzea zeuden. Beste gazte talde batzuk kargu hartu izan zieten, politika kontuak zirela medio. Baina haiek apolitikotzen zuten bere burua:

*“(...) Ez dakit zer egin dugun gaizki edo zer egin behar dugun Gazte –Herri apolitikoa dela esplikatu eta ulertarazteko. Ezin al du gazte batek politikaz pasa? Denok izan behar al dugu alde batekoak edo bestekoak? Politika ez da munduaren ardatza”<sup>220</sup>.*

<sup>220</sup> Raul Giraldes. *Orratx!* 11. zkia. 1998ko maiatza.





Lezoko Fototeka.

**Zabarre** taldekoek, berriz, batera jardun nahi ez izatea egotzi zieten, esate baterako 1995ean, eskualde mailako gazte egun indartsua antolatu zutenean, Gazte-Herrikoek jai paraleloa antolatu nahi izan zutela eta. Zeharka, PSO Eren menpeko talde izatea egotzi zitzaien<sup>221</sup>.

Gazte asanblada eta Zabarrek ez bezala, Gazte Herrikoen ekimen gehienak bere lokalean bertan egiten zituzten, eta ez zuten kale ekimena helburu.

**Gazte-press** izeneko boletina argitaratu zuten Gazte-Herrikoek; bertan mundu mailako pobreziaaren aurkako artikulua, jaien inguruko berriak, antolatzen zituzten ekitaldi eta ikastaroen ingurukoak, hezkuntzaren inguruko hausnarketak eta beste jorratzen zituzten. Elebitan argitaratzen zuten. Irratia sortzeko ekimena ere abiatu zuten, hura ere elebitan.

Talde hauetaz gain, herrian 1986/87 urteen bueltan **Jarrai** taldea sortu zen. Jarrai, maila nazionalen, laurogeiko hamarkadaren hasieran sortu zen, eta KAS koordinakundearen parte zen. Ekimen ugari abiatu zituen, gizarte borroka ugari-tan hartu zuen parte, eta gazte asko bildu zuen politikagintzara.

<sup>221</sup> Imanol Esnaola: *Orratz 12. zkia*. 1998ko uztaila.

#### 5.4. EUSKALGINTZA LEZON.

**F**rankismo garaian sortu zen gau eskoletatik abiatuta, euskalgintzaren eta euskararen aldeko talde ugari sortu zen Lezon. Batzuk, euskararen irakaskuntzan murgildu ziren, eta beste batzuk, esparru komunikatibora bideratu zuten bere ahalegina.

**Euskal Herrian Euskaraz** taldea 1987an eratu zen Lezon; administrazioa euskalduntzeko kanpainak, euskal asteak, eta abar antolatu zituen. 1991ean, **euskara taldea** sortu zen, Txerrimuñon biltzen zena, baina urtebete baino ez zuen iraun.

Baina euskalgintzaren esparruan nagusitasuna izan duena, zalantzarik gabe, **AEK** izan da.

1980an sortu zen herrian helduak alfabetatzeko elkarte hau; herrian euskararen aldeko jarrera sustatu duen taldea izan da aek azken bi hamarkadetan, herriko dinamika sozialean zeharo txertatutakoa, eta kultur eragile nagusienetakoa izan dena. **Oroitzen**e euskaltegia 1991ean zabaldu zuten, eta 1997an berrikuntza lanak egin zituzten.

Hasiera gogorrak izan zituen; euskaltegia izan baino lehen, ikastetxe ezberdinetan eman zituzten eskolak. Gero, kultur etxera pasa ziren. Beraien helburuetako bat udalarekin akordioa lortzea izan batzen ere, lehenengo ahaleginek huts egin zuten. Hala ere, udalaren diru laguntza eta babesak jaso izan du aek taldeak, 1986an eta 1987 salbu; aek eta Eusko Jaurlaritzaren arteko desadostasunak puri purian zirela, diru laguntza ukatu egin zitzaizkien, eta grebari ekin zioten Lezoko aek-koek.

Euskara eskolak emateaz gain, euskalgintzarekin harremana duten ekintza asko burutu dituzte, liburu eta diska azoka, Olentzeroa, euskal feria...kasu.

Horiez gain, ekitaldi ugari antolatu du aek-k; iparraldeko ikastolen alde, esate baterako, Lapurdiko Eguna antolatu zuen 1998ko mendekozte jaietan. Laborari lapurtarrek bere barazkiak eskeini zituzten, Urruñako ikastolako haurrek abestu zuten, bertako trikitilariak ere jo zuten, eta Kiki Bordea abeslari arbonarrak lapurdiko kantuak abestu zituen.

1992an aek eguna ospatu zen Lezon, eta jende multzo handia bildu zen herrira.

## 5.5 HEZKUNTZA FORMALA. BESTE GATAZKA GUNEA

**H**ezkuntza publikoak euskara hutsezko irakaskuntzaren aldeko apostuari heldu dio laurogeiko hamarkadatik aurrera, gizarte bultzadari erantzunez. 1980an sortu zen lehendabiziko euskara hutsezko taldea, eta ordutik aurrera euskararen aldeko erronkari heldu zioten gogoz. 1991 urtean, gaztelera hutsezko A eredia desagertu egin zen, eta B eta D ereduak jarraitu zuten. Euskalduntze prozesu honetan asko lagundu zuen **GURASO ELKARTEAK** eta eskola publikoak bat egiteak; frankismo garaian sortutako Guraso Elkartek, Franko osteko egoera administratiboa normalduz joan zen heinean, bere egoera ere finkatzeko beharra ikusi zuen. Bi aukera mahaigaineratu ziren: ikastolarekin edota publikoarekin bat egitea.

1981ean egin zituzten bilerak: Lehendabizikoa ikastolarekin, maiatzaren 4ean. Ez zen adostasunik izan; ikastolak jarritako baldintzen artean, hauek: umeak lizeoaren arategiaren arabera hartuko zituzten (haur kopurua, haur erdaldun kopurua, eta abar), Lizeoa ez zen Guraso Elkarteko irakaslegoaren kargu egingo, eta kontratu berriak zehaztutako baldintzetan sartuko ziren, lizeoan sartu beharreko umeak gain-erako baldintza ekonomiko berdinetan sartuko ziren, eta Lezok urtero ume kopuru minimo bat bidaliko zuen lizeora.

Guraso elkartekoek onartezin iritzi zieten baldintzoi, eta eskola publikoarekin hasi zituzten negoziazioak, maiatzaren 11ean, eta ados jarri ziren.

Eskola publikoan sartu izanaren ondorioz, beronen izaera nabarmen euskaldundu zen, izan ere, B ereduko bi talde sortu zen, eta D ereduko bat.

Bategitearen ondorioz, Joannes Etxeberri eraikina egin zuten (geroko Lezoko institutoa). Pildain eskoletan B ereduko talde bat jarri zen martxan, Palomeran (behin behineko eraikinak, gaur egungo polikiroldegia dagoen orubean) D eta B ereduko talde bana, eta Joannes Etxeberrin O.H.O-ko taldeak jarri ziren.

### **Guraso elkarte berria eta udaletxearen arteko talka.**

Autonomia lortu osteko hezkuntza sisteman, eskola publikoetan Guraso elkarteak sortu ziren, eskolen baitango antolakuntza gisa. Eskolaren funtzionamenduaren parte dira geroztik. Lezon ere hala sortu zen Gurasoen Elkartea. Talde honetan aintzineko Guraso Elkarteko partaide batzuk izan ziren, eta baita herri eskolako guraso berriak ere.

Eskola publikoaren azpiegiturak, Lezon, zaharkiturik zeuden. Pildain eskola zaharra zegoen, eta zaharberritzea pentsatu zuten arren, azkenean aukera hori baztertu egin zuten, eta Jaizkibel-azpi egitasmoa martxan jarri zuten Udalaren, herri eskolaren eta Eusko Jaurlaritzaren artean.

## Lezoko herri mugimendua XX. mendean

1987tik aurrera zegoen onartuta egitasmo hau, baina 1991ko udal gobernuaren aldaketak proiektua geldiarazi egin zuen. Alternatibo bat aurkeztu zuten udalburuek, aurrekoa baino askoz azalera txikiagokoa. Herriko hainbat sektorengan haserrea eragin zuen erabaki honek; kontutan hartu behar da aurreko egitasmoa Eusko Jaurlaritzak onartua zela, eta udalak eta Guraso Elkarteak adostutakoa zela. Hark aurrikusitako 9000 metro karratuetatik, 3000 metro karratutara pasa zen egitasmoa.

1990-1992 artean tirabira ugari izan zen **Guraso Elkarte**<sup>222</sup> eta udaletxearen artean. 1991ean “eskolaren proiektua jasaten ari den blokeoa” salatu zuten prentsaurreko bidez. Nabarmendu zuten, sei urte zeramaten eraikin berriaren zai, baina Lezoko udalaren baitan zeuden ezinikusiek proiektua atzeratu besterik ez zuten egiten. 1992an EA, PSE, EAJ eta EE-k osatutako gobernu batzordeak eskolaren proiektu berri bat aurkeztu zuen, baina Guraso Elkarteak ez zuen onartu, lau urteko atzerapena ekarriko zuelako. Gauzak horrela, manifestazioa burutu zen herrian egoera salatzeko, “Eskola berriak orain” lelopean.

Udal gobernuak, bere aldetik, proiektu propioa aurkezteko zuen eskubidea aldarrikatzen zuen.

1995ean Jaizkibel-Azpi eskola zabaldu zuten. 1986an hasi ziren negoziaketak, Hezkuntza Guraso Elkartearen eta Jaurlaritzaren artean. Akordioarekin, lezoarrek derrigorrezko ikas prozesu osoa Lezon egin ahal izango zuten. Eskola publikoa hiru gune ezberdinetan banandurik geratu zen: Pildain eskola, Joannes Etxeberri<sup>223</sup> eta Jaizkibel-Azpi<sup>224</sup>.

Jaizkibel-azpi eraikinaren bigarren fasea 2000. urtean hasi ziren eraikitzen, horrela 0tik 12 urtera bitarteko eskolaratzea eraikin bakarrean biltzeko helburua lortuaz. Pildain eskolak ez ziren gehiago hezkuntza gune izango.

Herri eskolak ume asko biltzen ditu Lezon. 1997an eskolaratutako umeetatik, %80k Lezoko herri eskolan eman zuen izena<sup>225</sup>. Honezaz gain, Pasai Donibaneko ume eskolaratuen %35ek, Lezoko herri eskolan ziharduen ikasten.

<sup>222</sup> Herri Eskolako gurasoen elkarte 1980an sortu zen Herri Eskolako guraso elkarte. Zenbait hitzaldi antolatu zituzten sexualitateaz, kontsumoaz... baina bestelako zenbait jardueraz ere arduratuko ziren: plastika, kirola eta irteerez, adibidez. Guraso Elkarteak udaletxeko Kultur Sailean ere parte hartzen zuen, eta herriko festetan ere bai. Finantzazioa bazkideen aportazioz burutzen zen eta beharrezko arabera zen ekarpena.

<sup>223</sup> Joannes Etxeberri ikastetxeko ikasleek ekimen komunikatibo ezberdinak abiatu zituzten: Kalaka irrata: 1990ean abiatua. Kalaka aldizkaria: 1980tik aurrera Bertan bertsoak, txistek, errezetak, denborapasak, eta abar jasotzen zituzten.

<sup>224</sup> *Orratz!* 5.1997ko martxoa.

<sup>225</sup> *Orratz!* 8.1997ko azaroa.

## 5.6. KULTUR ERAGILEAK

**O**rratx! Kultur elkarte. 1996 urtean sortua, aldizkaria egiteko asmoarekin abiatu zuten taldea, baina, denboraren poderioz, kultur talde sendo bilakatu zen: Sail ezberdinak eratu ziren, bai antzerkigintza, argazkigintza, jaien antolaketa eta umeen aisialdia antolatzeko. Azken honi begira, ludoteka egitasmoa abiatu zuten 2000 urtean, **Ixerka** izeneko gazte sailaren bitartez. **Ixerka** taldea, **Ekaitz** taldeak Orratx! Ekimenarekin bat egitearekin batera sortu zen.

**Orratx! Antzerki taldea:** 1999an sortua. Lierni Fresnedori egindako elkarrizketa baten ondoren, **Lezoko Antzerki Taldeak** antzerki talde berriaren zuzendari izateko eskeintza luzatu zion. Antzezlanak prestatzeaz gain, antzerki tailerrak ere antolatu zituen taldeak.

### **Dirautenen artean, Allerru.**

Frankismo garaian kultur berpizkundearen ikur izan zen Allerru elkarteak bizirik iraun du urte guzti hauetan. Urte luzez lan sakabanatua egin du; izenak hor iraun du, baina egoera juridiko politiko berriaren aurrean egin beharreko berregituraketa juridikoari ez diote duela gutxira arte heldu. Lana berriz, etenik gabekoa izan da talde bakoitzean.



Lezoko Fototeka.

## Lezoko herri mugimendua XX. mendean

1996an futbol taldea berrindartu egin zen, Allerru ia hilzorian baitzen. Zuzendaritza berria osatu zuten, eta zazpi talde antolatzea lortu zuten. Futbol zelaiarekin ere, zaharrak berri. Aurreko belaunaldikoak bezalaxe (aldeguna taldekoak), Allerru futbol taldeak ez zuen tokirik jolasteko, eta Matigoxotegiko zelaian ziharduten, maizter.

Hartara, eta Euskal Herria plazako zelaia egin zutenean, BAZENGARAIA deitu zioten, zelaiaren zai eman zuten denbora luzea gogoan. Gero Altamirara pasa ziren, eta azkenik lortu zuten hain premiako zuten zelaia, hilerri ondoan dagoena: Plazeta, 2000 urtean zabaldu zutena.

Allerru mendi taldeak Donibaneko Itsas Mendi elkartearekin antolatu zituen irteera batzuk. Ume taldeak ere mendizaletasunera erakarri ditu haienezako txangoak prestatuta.

Txirrindularitza: 1980an Allerru zikloturista taldea sortu zen. Txirrindulari taldeaz aparteko taldea osatzen dute; batzuetan harremana hobea izan da besteetan baino, eta atal independientea dute Allerruren baitan.

1990etik aurrera, Jaizkibelgo mendi bizikleta froga antolatzen hasi zen.

Pilotari dagokionez. Josetxo Etxandi memorialaren antolaketan ibili da pilota taldea.

1997an eskubaloia taldea desagertu egin zen. Denboraldi txarra egin zuten, eta gainera kiroldegia ez zegoen bukatuta. Ondorioz, Oiartzuna joan behar izaten zuten jolastera, eta apenas biltzen zen lezoarrik animatzera. Gainera, ez zuten inor aurkitzen umeak entrenatzeko.

2002an, udaletxeko kirol teknikariak lagunduta, Allerru berrantolatzeari ekin zitzaion, izan ere, Allerruren baitango taldeak bakoitza bere gisara zebilen, estatutuak ez zeuden eguneraturik, eta Eusko Jaurlaritzak zehazten zituen irizpide juridikoak ez ziren betetzen. Allerru Kirol Elkartearen izena hartu zuen, eta azpitalde hauek osatua izan zen: Pilota, mendia, futbola, eskubaloia, txirrindularitza, sof-bola, saskibaloia, ehiza, areto futbola.





Allerru ehiza eta arrantza elkarteak: 2002an sortu zen. Bere garaian Allerruko lokaletik alde egin zuten ehiztariak, hainbat istilu izan zutela eta; lokal berria hartu zuten, Lopeneko etxeetan. 80 bazkide inguru dira.

Allerruz aparte, izan dira beste kirol ekimen batzuk ere. Ospetsuena, **Rugby eskola independentea**. 1988an sortu zen, Txerrimuñoren baitan, “*gazteak heziketaren bidez marginazio mudutik aldetzeko*” asmoz. Hogei bat gazte ibili zen lehen taldean, baina eskolan, orotara, ehun gazte inguru ibili ziren.

### Beste talde batzuk

**Udal Musika Akademia:** 1986/87an sortua, talde ezberdinen batuketarekin, alkatea dute elkarteko lehendakari. Sorreraren aurretik, musika tailer zeritzan taldea zegoen herrian, eta Pildain eskoletan zuten bildulekua. Hauek 100 ikasle inguru biltzen zuten.

Urtero, apirilean, **Lesoinu** izeneko ekimenaren ardura izan dute: aste horretan musika ekitaldi ugari antolatu izan dute, bai abesbatza ezberdinen emanaldiak, bai hitzaldiak, eta abar. Ikasleen emanaldiak eta kanpotik etorritako musikarien emanaldiak uztartzen ditu Lesoinuk.



Lesoinu ekimena. **Lezoko Fototeka**.

### Lezoko herri mugimendua XX. mendean



"Murixka", dantzan egiten den jauzi baten izena da. **Lezoko Fototeka.**



**Lezoko Fototeka.**

Elizako abesbatza, zangotz akordeoi taldea, txinparta txiki abesbatza, trikiti taldea, txistulariak... aritu dira elkarrekin. Baina ez dute bakarrik musika estilo "klasikoa" jorratu, izan ere, denetariko taldeak bildu ditu musika eskolak (Jousilouli, Harlax...).

**Dantza:** Allerrutik banandua zen Lezoko folklore taldeari, **Murixka** izena jarri zioten 1990ean<sup>226</sup>. 1999an, kiroldegi ondoko 120 m<sup>2</sup>ko lokal bat hartu zuten, bere jarduera burutu ahal izateko.

<sup>226</sup> *Orratz!* 5. 1997ko apirila. "Murixka", dantzan egiten den jauzi baten izena da.



**Lezoarrak saltzaile elkarte:**

“Elkartuak denontzat esku-atsegin” zuen lelotzat. 25 bat dendarik osatua, Gipuzkoako merkatarien elkartearekin aritu zen elkar-lanean. Hipermerkatuen lehiari aurre egiteko, prezioen bateratzea eta antzeko ekimenak abiatu zituzten.

**LABURBILDUZ**

Lezoren aldaketa goitik beherakoa izan da azken mendean. Gizarte aldaketa, urbanistikoa, politikoa, soziologikoa... dena aldatu da Lezon. Kanpotik etorritako aldaketak gehienetan, Lezok halamoduz haiekin moldatzen ikasi behar izan du. Baina ez esan, lezoarrek xomorro izaera dutelako, Lezon ez dagoela herri mugimendurik. Lezok egoera berrietara moldatzeko tresnak sortzen jakin duelako, eta, bere txikian, bizirauten asmatu duelako. Kontrako indarrak boteretsuak izan dira, baina herriak sortuak ere ez dira makalak izan. Horregatik dirau bizirik, itxuraldatuta baina, eta etorkizuneko Lezori kezkatu begiratzen diola. Aurretik etorritako aldaketekin bezalaxe, etorriko direnen aurrean ere beharrezko tresnak asmatuko dituen konfidantzaz. Akaso, itsasoa berreskuratzeko adinako indarra biltzeraino. Victor Hugok ez zukeen sinestuko.



## BIBLIOGRAFIA ETA ITURRIAK

### Ahozko iturriak. Elkarrizketak.

Patri Urkizu, Rosi García Lizarraga, Maria Garmendia, Javier Isasa, Mikel Salaberria, Joseba Urkizu, Gotzon Urretabizkaia, Xabier Alegria, Itziar Goienetxea, Tito Labordeta, Mikel Arrizabalaga, Imanol Esnaola, Pepita Legorburu, Mari Krutz Urkizu, Anparo Lopetegi.

Gainera, beste lagun batzuk egindako elkarrizketak ere erabili ditut:

Imanol Esnaolak Patxi Larreari egindako elkarrizketa.  
Imanol Esnaolak Inaxio Artolari egindako elkarrizketa.  
Jon Benitok Txerrimuñoko Xabier Pikabeari egindako elkarrizketa.  
Jon Benitok Pello Garbizuri egindako elkarrizketa.  
Lander Zururuzak Inaxio Artolari egindako elkarrizketa.

### Aldizkako argitalpenak.

*Allerruren boletina*  
*Andui*  
*Aske*  
*Branka*  
*La Constancia*  
*El Día*  
*Euskalerría*  
*Gazte-press*  
*Kalaka*  
*Lezo*  
*Oarsoaldeko Hitza*  
*Orratx!*  
*Punto y Hora*  
*Umeen deia*  
*Zartako*

### Artikuluak eta liburuak

Apalategi, Jokin (editorea): *Psicosociología de los movimientos asociativos vascos : sus representaciones sociales*. Gasteiz : Instituto de Estudios sobre Nacionalismos Comparados, 1999

Barrutiabengoa Olazabal, Usoa; Elias Muxika, Nerea; Gonzalez Fernandino, Garoa; Rodriguez Gutierrez, Araitz: *Astelehenean baserrian, asteartean...Lezoko baserriak lehen eta orain*. Lezo: Udala, 2005.

Lezoko herri mugimendua XX. mendean

Esnaola, Imanol: *Lezoko euskararen hizkuntza soziala*. Lezo: Udala, 1999.

Estornés Zubizarreta, Idoia. “ *La construcción de una nacionalidad Vasca El autonomismo de Eusko-Ikaskuntza 1918-1931*”.

Etxezurieta, Karlos: *Lezo herriaren ikuspegi sozio-politiko ekonomikoa*. Argitaratu gabea.

*Guía de Lezo. Naturaleza y huella humana*. Lezo: Udala, 1927.

Garmendia Amutxastegi, Gotzon; San Roman Uranga, Alaitz: *Lezoko demografía eta industria XX. mendean*. Lezo: Udala, 2003.

Jimeno Jurio, José María. “*Navarra jamás dijo no al Estatuto Vasco*”. Tafalla: Txalaparta, 1997.

Managaitz Intsumitu Taldea: *Managaitz intsumitu taldearen 95-96 urtekaria*. Trintxerpe; San Pedro: Managaitz, 1997.

Ó Broin, Eoin: *Matxinada: historia del movimiento juvenil radical vasco*. Tafalla: Txalaparta, 2004

Rilova Jericó, Carlos: *Askatasunaren Arbola*. Lezo historia garaikidean (1793-1876). Lezo: Udala, 2005.

Silvan, Leandro: *Lezo*. Donostia: Aldundia, 1970.

Torres, I. : *Umeen deia*. Claret. Bilbo. 1969.

Urkizu, Patri: *Zoazte hemendik!: 1936ko Santakruzak*. Zarautz: Susa, 1995.

Urkizu, Patri; Intxaurrendieta, Patxi: *Garbizu anaiak. Zubigar, Iruzubi, Tege. 1921-1936*. Lezo: Udala, 1991.

Urkizu, Patri; Intxaurrendieta, Patxi: *Tomas Garbizu. 1901-1989*. Lezo: Udala, 2002.

Urkizu, Patri; Agirre Sorondo, Juan: “*Teatro y cine Vasco*”: *Toribio Alzaga, “representaciones euskéricas”*. *Euskal Erria*, (LXV,1912).

Valverde, Lola: *Historia de Gipuzkoa*. Donostia: Txertoa, 1984.

### Ibon Ostolaza Oiartzabal

Donostian jaioa, 1974an. Soziologia ikasketak egin zituen EHU. Historia ikasten dihardu egun. Herri mugimendu ezberdinetan aritutakoa, euskalgintza eta desobedientzia alorrek aztertu ditu besteak beste.

Herri mugimenduaren eta instituzioen arteko harremanak izan ditu aztergai azken urteotan.

# *Lezoko historia urratsez urrats*



Lezoko Unibertsitateko Udala



**ARANZADI**

zientzi elkarteak . society of sciences  
sociedad de ciencias . société de sciences